

+



Telefonoaren hastapenak Debagoiengan  
Iñaki Zabaletari elkarrizketa, hizkuntza gutxituez

**UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2019**



**DATOZEN ERRONKEI NOLA HELDU EZTABAIDATZEN AHALDUNGAI NAGUSIEKIN**

Gipuzkoako lau alderdi nagusietako zerrendaburuak batu ditu Goienak hauteskunde kanpainaren atarian / 5

Denis Itxaso (PSE-EE), Maria Valiente (Elkarrekin Podemos), Juan Karlos Izagirre (EH Bildu) eta Markel Olano (EAJ) hautagaiak, Goienako debatearen moderatzaile Goiatz Aranarekin, Miramonen. MIKEL EZKERRRO

# Puntako laborategiak Arrasaten

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak industria aurreratuko laborategiak egingo ditu Trefasa zegoen lursailean / 14

**Aranzadik maiatzaren 17an egingo du konexioa Nazioarteko Espazio Estazioko astronautekin / 6**

**SINADURAK**

	XABI IGOA / 19
	MARIA AGIRRE / 10
	ALAZNE GURIDI / 35
	NEREA MAKAZAGA / 13
	AGURINE BARRUSO / 48

**kon2natu**  
erreflexuen aurkako graduatuak  
+ eguzkitako graduatuak

**99€**

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIOPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multipticasgipuzkoa.com







### Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Maiatzaren 26an egingo dituzte udal eta foru hauteskundeak, eta, horren harira, probintziako lau alderdi nagusietako ahal-dungai nagusiak mahai-inguru batean batu dituzte Infosarek eta Goienak elkarlanean, Miramongo Parke Teknologikoan.

Markel Olano (Beasain, 1965) da EAJko zerrendaburua, 2015etik Gipuzkoako diputatu nagusia dena, hain zuzen.

EH Bilduren zerrendaburua Juan Karlos Izagirre da (Donostia, 1963), 2011tik 2015era Donostiako alkate izandakoa.

Denis Itxaso (Donostia, 1975) da PSE-EEko ahal-dungai nagusia, 2015etik Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako diputatua.

Azkenik, Elkarrekin Podemosen zerrendaburua Maria Valiente da (Salamanca, 1961), Gipuzkoako batzarkidea 2015etik.



Gipuzkoako ahal-dungai nagusiak mahai-inguruan Goiatz Arana eta Ainhoa Ibañez aurkezleekin. ENEKO AZURMENDI

### Ekonomia ereduaz eztabaida

Ekonomiari buruz hitz eginez eman diote hasiera mahai-inguruari. Izagirrek hartu du hitza lehenik, eta "lorpen faltsuak" adieraztea ez dela ona leporatu dio EAJri. "Kezkatzen gaituena da genero arrakala handia, aberatsen eta langileen arteko diferentzia, baita gazteen prekarietatea ere. Sistema honek prekarietatea sustatu eta ingurumena apurtzen du".

Olanok erantzun dio esanez Europako herrialde aurreratuen eredu dela hemengoa, eta ez duela alternatiba proposamenik ikusten. "Zein eredu da hobea? Venezuelakoa? Nikaragukoakoa?", zuzendu zaio Izagirreri.

Itxasok uste du "lan ona" egin dela azken lau urteotan; hala ere, onartu du badagoela lana egiteko oraindik. "Esportazioak hazten ari dira, enplegua ere gorantz doa, baita soldadak ere. Horrek ez du esan nahi, ordea, guztia ondo dagoenik. Aitortu behar dugu desberdintasunak badaudela oraindik, eta emakumezkoak enplegu falta dutenen gehiengoa direla".

Krisia langileek ordaintzen dutela azpimarratu du, azkenik, Valientek. "Enpresariak dira onuradun handienak, krisia mauka da haientzat. XXI. mendean enplegu mota aldatzen ari dela kontuan hartuta, plan estrategiko bat landu beharra daukagu, eta etorkizuna enplegu berdearen bidez eraiki. Enplegu zuzena eta tokiko merka-

# Azpiegituretan talka nagusia

Ekonomia, pentsioak, bide eta ingurumen azpiegiturek, eta abar izan dituzte hizpide Markel Olanok, Juan Karlos Izagirrek, Denis Itxasok eta Maria Valientek; Goiena telebistak gaur, egubakoitza, 23:00etan eskainiko du mahai-ingurua, osorik

taritza bultzatzea ezinbestekoa da, gure ustez", zehaztu du.

### Zerga-politika eta aberatsak

Elkarrekin Podemoseko batzarkideak "justizia fiskala" eskatu hasi du zerga politikaren tartea. "Gehiago irabazten duenak gehiago ordaindu behar du. Sozietate zerga igotzeaz gain, zerga iruzurraren aurka borroka egin behar dugu. Paradisu fiskalak bukatu beharra dago", dio.

Itxaso ere zergak progresiboak izatearen alde agertu da, eta harmoniarene aldeko apustua egin du. "Modu harmonizatuan disei-

natu beharko genituzke zergak. Hala ere, ongizatea bermatzeko zergak ondo kudeatzen ari dira, eta hala jarraitu behar dugu".

Izagirrek ere uste du zergak modu justuan banatu beharko lirakeela, eta EAJri leporatu dio ondasun handien gaineko zerga kendu izana. "Aberatsek Gipuzkoan zuen garaian baino gehiago ordaintzen dute orain. Ondasunen zerga egokiagoa da etorkizunaren eta enpresen osasunaren ikuspegitik. Oso aurrerakoa den fiskalitatea daukagu egun Gipuzkoan", erantzun dio Olanok.

**"GIPUZKOARREK ORAIN GUTXIENEZ 15 KILOMETRORA AUTOBIDE BAT DUTE"**

MARKEL OLANO

**"GENERO ARRAKALAK ETA PREKARIETATEAK KEZKATZEN GAITU GEHIEN"**

JUAN KARLOS IZAGIRRE

### Bide-azpiegiturek bukatuta?

Olanok adierazi du lau urte hauetan aurrerapauso handiak egin direla bide-azpiegiturei dagokienez. "Deskarga 5-6 urte oso modu arriskutsuan egon da. Orain, arriskua ekiditeaz gain, autobidea martxan jarri dugu, eta Gipuzkoako herritarrek 15 kilometrora autobide bat daukate. Hori albiste pozgarria da".

Itxasok ere bat egin du. "Hiru lorpen nabarmenduko nituzke: Gipuzkoako biribilgunea bukatu dugu, biztanle orok 15 kilometrora gaitasun handiko errepide bat du, eta bidesarien ara-

**"ONGIZATEA BERMATZEKO, ZERGAK ONDO KUDEATZEN ARI DIRA ORAIN ARTE"**

DENIS ITXASO

zoa konpondu dugu. Kanpotarrek ere ordainduko dute eta kamioiek ere lagunduko dute errepidea mantentzen. Azkenik, tarifa laua Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horrek lagundu du autoa erabiltzen dutenentzat merkeagoa izan dadin probintzia arteko ibilbidea".

Valientek ohartarazi du autobidea ordainduta dagoen arren herritarrek ordaintzen jarraitzen dutela. "Saltzen digute errepidea konpontzeko eta egoera hobean egoteko erabiltzen dutela diru hori, baina errealitatea da AP-8a penagarri dagoela, zuloz beteta, segurtasun gutxirekin, argitasun faltarekin, eta abar".

Izagirrek bide beretik jarraitu du. "Sare nagusia egin dago, baina ekintza puntualak egitea falta da orain. "Mantentze-lanek asko kezkatzen naute. N-1 errepidea oso gaizki dago, eta beste batzuk ere bai. Zaharberritu egin behar dira".

### Turismoa lurralde osora

PSE-EEko ordezkariak hasi du turismoaren gaineko erronda, adieraziz kostaldeko turismoaren eta barnealdekoaren arteko aldea orekatuz doala pixkanaka. Hala ere, onartu du oraindik aldea

**"AZKEN 20 URTEETAN EZ ZAIO EMAN TRATAMENDU ONIK ZABORRARI"**

MARIA VALIENTE



handia dela. "Lortu behar dugu Donostiara datozenak gainontzeko eskualdeetara ere joatea. Horrekin lanpostu duinak lortu behar ditugu, ostalaritzan ere hitzarmen kolektiboa bermatuz".

Valientek erantzun dio esanez "abandonatuta" dagoela barneko turismoa. "Turismoak lurralde osoan eduki behar du eragina, eta barnealdeko turismoa ez dago bermatuta", dio. Gaineratu du sektore honetako langileen baldintzak "prekarioak" direla.

Ondorio positiboak eta negatiboak aipatu ditu Olanok. "Positiboa da gure lurraldea geroz eta erakargarriagoa dela. Negatiboa, berriz, masifikazioa ere handia dela. Turismoa dibertsifikatu eta barnealdera erakartzea lortu behar dugu. Hala ere, barnealdeko eskualdeak ez daude lo, eta etorkizun oparoa dutela uste dut".

Izagirrek masifikazioari erreparatu dio. "Eskaintza zabala daukagu Gipuzkoan, potentzialitate izugarria; beraz, zabaldu dezagun lurralde osora. Denok gara turistak, eta turista arduratsuak behar ditugu. Turismo jasangarria eta ez masifikatua". Era berean, azpimarratu du turismoa ezin dela "ekonomiaren motorra" izan, "osagarri" bat baizik.

**Pentsioak: lorpenak eta premiak**  
Olanok adierazi du EAJ izan dela euskal pentsiodunen alde zerbait lortu duen bakarra: "Gure eskuduntza ez den arren; izan ere, pentsioak Espainiako Estatuaren eskuduntza dira, eta Estatuan EAJ izan da PPrekin negoziatu eta pentsioak hobetzeko. Euskal pentsiodunek hilero onura bat jasotzen dute orain".

Itxasok dio arlo honetan aldaketa bat izan dela Pedro Sanchez

## Genero berdintasunaren gaineko lau ikuspuntu

**MARKEL OLANO**  
EAJ

Genero berdintasunari dagokionez, "aurrerapauso handiak" eman ditu Diputazioak azken lau urteetan, Olanoren ustez, eta bide hori "elkarlanari esker" lortu dela adierazi du.

"Taldea feministak bakarrik ez, enpresek, zerbitzuek, guztiok pausoa eman behar dugu Europako herrialde aurreratuenen egoera edukitzeko. Kontziliazio parekideetarako proiektu pilotuak ditugu martxan 40 enpresatan".

**"TALDE FEMINISTEK SOILIK EZ, GUZTIOK EGIN BEHAR DUGU AURRERAPAUSSA"**



**JUAN KARLOS IZAGIRRE**  
EH BILDU

Erabateko atxikimendua erakutsi du Izagirrek genero berdintasunarekiko, eta mugimendu feministaren garrantzia azpimarratu du. "Egin beharreko aurrerapauso bakoitza mugimendu feministarekin batera egingo dugu, eta etorkizunean ere hala egingo dugu. Etorkizuneko Gipuzkoa ikuspegi feminista batetik eraiki behar dugulako. Azken lau urteetan ez dugu borondate politikorik ikusi, ez baita euro bat ere bideratu gai honetara".


**"IKUSPEGI FEMINISTA BATETIK ERAIKI BEHAR DUGU GIPUZKOA"**



**DENIS ITXASO**  
PSE-EE

Itxasok uste du mugimendu orokor bat sortzen ari dela azken urteetan. "Diputazioak bere egin du genero berdintasuna, eta erakunde agendan ere sartu du. Horren erakusle da 40 enpresa parte hartzen ari diren proiektua. Emakumezkoen kirola lidergo berriak eta ordezkari gehiago lortzen ari da, baita ikusgarritasuna ere. Hori kirolean bakarrik ez, kulturaren, ekonomian eta beste hainbat arlotan ere lortu egin behar dugu".

**"FORU ALDUNDIAK BERE EGIN DU GENERO BERTINTASUNA"**



**MARIA VALIENTE**  
ELKARREKIN PODEMOS

Genero berdintasuna egunerokotasuneko ardatza izan beharko litzatekeela uste du Valientek, nahiz eta oraindik ez duen hala ikusten. "Beharrezkoa da Diputazioan alor bat izatea eta finantziario hobe edukitzea. Ahalduz bilatu behar dugu, bortizkeria matxista amaitu, eta LGBTIQ kolektiboaren eskubideen defentsarako konpromisoa hartu; hori guztia mugimendu feministarekin elkarlanean, noski".

**"AHALDUNTZEA BILATU BEHAR DUGU, BORTIZKERIA AMAITU"**



Espainiako gobernuburu izendatu zutenetik. "Sanchez pentsioak eguneratzen ari da. Sozialistok Toledoko Itunaren alde gaude pentsioak bermatu daitezen, eta KPIaren arabera igo, eskuina etorri ez dadin horren inguruan murrizketak egitera".

Valientek, Olanori erantzunez, adierazi du ez zaiola dominak jartzea gustatzen. Gero, gaineratu du Toledoko Ituna "gardena eta irekia ez den bitartean", pentsioak KPIaren arabera igozteaz legez onartu beharreko

gauza bat dela, eta erretiroa hartzeko adinaren muga 65 urtetan jarri. "Inor ez dadin 70 urterekin oraindik lanean egon".

Izagirrek aldarrikatu du gutxieneko pentsio 1.080 eurokoa izan beharko litzatekeela. "Nahiz eta Diputazioaren eskuduntza ez izan, Eusko Jaurlaritzatik asko egin daiteke, eta lau urte hauetan atzera egin dugu".

**Erraustegiaren alde eta kontra**  
Ingurumena izan da jorraturiko azken gaia. "Hitza bete" dute-

laesanez hasi da Olanok. "Esan genuen hondakinen kudeaketaren arazoa konponduko genuela, eta bete dugu. Zubietako azpiegitura batzuk dagoeneko martxan daude", dio.

Itxasok ere "harro" azaldu da hondakinen kudeaketaren arloan egindako lanarekin. "Birziklapen-tasak gora egin du, azpiegiturak eraiki ditugu, zabortegiak itxi, ez dugu zaborra esportatzen jarraitu beharko aurrerantzean eta energia berriztagarria sortuko dugu".

Valientek dio azken 20 urteetan ez zaiola tratamendu onik eman zaborrari. "Ekonomia berdea aldarrikatu gura dugu, eta erraustegia oztopo bat besterik ez da bide horretan. Zaborra erretzea beharrezkoa izango da, eta Gipuzkoa 35 urterako hipotekatu duzue".

Izagirrek ere bat egin du azken horrekin. "Erraustegirik gabeko kudeaketa publikoa gura dugu, eta erabiltzen diren azpiegiturak gipuzkoarren nahietara egokitutakoak izatea".

## HAUTESKUNDEAK M26 GOIENAN UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

**GOIENA TELEBISTA**

DEBATEAK ALKATEGAIEKIN HERRIRIK HERRI

- MAIATZAK 14, MARTITZENA: ARRASATE.
- MAIATZAK 15, EGUAZTENA: ANTZUOLA.
- MAIATZAK 16, EGUENA: ARETXABAETA.
- MAIATZAK 17, EGUBAKOITZA: OÑATI.
- MAIATZAK 20, ASTELEHENA: ESKORIATZA.
- MAIATZAK 21, MARTITZENA: BERGARA.
- MAIATZAK 22, EGUAZTENA: ELGETA.
- MAIATZAK 23, EGUENA: ARAMAIO.

22:00ETAN, GOIENA TELEBISTAN. ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA.

**goiena**  
ZU HEMEN ZAUDE





2019-2020

lanerako gertu!

# Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

## MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKO  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

### Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

### Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)

943 71 21 91



## Athlon-en lanean dagoen MGEpko Asir Informatika ikasle dualaren testigantza.

### Emaguzu zure izena, mesedez, eta zein ziklo egiten ari zaren.

Ni Iñaki Ayala naiz eta goi mailako Sareko Informatika Sistemen zikloko bigarren maila ikasten ari naiz. 10 urte lan egin ondoren, goi mailako ziklo bat ikasteko gogoia sartu zitzaidan, informatika munduan, batez ere, beti gustuko izan dudalako, eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoa aukeratu nuen.

### Eta zer moduz ikasketetara bueltatzea? Nola sentitu zara ikasle bezala? Aldatu al da ezer?

Egia esan, nik uste baino hobeto; baliteke orain arduratsua izatea eta horrek ikasketak hobeto eramatean lagundu izana. Bestetik, informatika mundua urte batetik bestera asko aldatzen da; pentsatu zenbat aldatu zen 10 urtetan... Ikasketa eredu ere gaur egun askoz praktikoa da eta nik esango nuke askoz gehiago ikasten dela.

### Dualean zaude, ezta?

Lehenengo maila bukatu bezain laster, 2018ko ekainean hasi nintzen dual formazioan; nire kasuan, Athlon enpresan. Eta oso gustura nago, giro oso ona daukagu enpresan.

### Zein izan da zure instruktorea enpresan?

Judith Eraña da nire enpresako instruktorea. Enpresan pasatako lehenengo bi egunetan, aurreko urtean nire ziklo bera egin zuenaren laguntza eduki nuen, eta gero, ni bakarrik moldatu naiz Informatikari gisa enpresan, nahiz eta aukera dudak kontsultak egiteko gure soportea eramatean duen enpresari eta unibertsitari; horretaz aparte, dokumentazioa ere erabiltzen dut.

### Zein da enpresaren lan esparrua?

Ni dualean nabilen enpresaren lan esparrua da bizi dugun garai honetan ohitura osasungarriak sustatu eta pertsonaren ongizatea bermatzea. Gizartearen ongizate maila hobetzen laguntzea, pertsonak lagunduz ohitura osasungarriak bereganatu eta garatu ditzaten.

### Eta zein da zure sailaren edo lantaldearen lan esparrua? Zein motatako lanak egin dituzu epe honetan?

Apur bat denetik egiten dut; gure zikloan ikasitako dena jorratzen dut. Gehienbat, zerbitzarien mantentze-lanak, web orriari aldaketak, datu baseen eta ordenagailuen mantentze-lanak egiten ditut. Horretaz aparte, erabiltzaileei zerbitzua ematen diet, momentu honetan enpresa hazten doa eta 60 langiletik gora daude, bakoitzak bere ordenagailua erabiltzen du eta horrek hainbat arazo sortzen ditu.

### Ondo moldatzen zara ikasketak, lana eta aisialdia uztartzeko?

Hasiera baten, ez dakizu nola moldatuko zaren ikasten eta lanean, baina denetara ohitzen zara, eta, egia esan, nahiko ondo eraman ditut bi gauzak; gogoia izanez gero eta ondo antolatuta, ez dago arazorik.

### Esaguzu, mesedez, zer eskaini dizun enpresan praktikak egiteak, bai pertsonalki bai ikasketa aldetik?

Nire kasuan, enpresan informatikari bakarri izateak urduritasun puntua ematen dizu, ez dakizu zein arazo izango dituzun eta gai izango zaren irtenbidea bilatzeko, baina hori guztiari erronka moduan hartuta asko motibatzen nau. Orduan konturatzen zara arazoak konpontzeko gaitasuna daukazula, eta pertsonalki poza ematen dizu. Lehen esan dudak bezala, ikasgai gehienak ukitzen ditut praktikak egiten, eta horrek klasean emandako dena praktikan jartzeko aukera ematen dit. Oso gomendagarria da dual formazioa egitea, urte osoz ikasteko aukera ematen duelako.

### Eta zer moduz orain? Informatikarekiko grina areagotu egin zaizu?

Egia esan, beti izan dut informatikarekiko grina, baina azken bi urteetan areagotu egin zait, ikasten eta lanean ibili ondoren pasoa handitzen joaten da eta. Nire hurrengo urteko asmoa zibersegurtasunean sartzea eta mundu hori jorratzea da, gaur egun geroz eta garrantzitsuagoa da eta segurtasuna enpresetan.

Eskerrik asko, Iñaki, zure esperientziaren berri emateagatik, eta zorte on zure hurrengo erronka pertsonalari!





Zaharren egoitzetako langileak. ARANZAZU EZKIBEL

# Zaharren egoitzetako langileen elkarretaratzea

ELAk deituta, elkarretaratzea egin dute zaharren egoitzetako langileek Bergarako Munibe plazan. Lan baldintza "prekarioak" dituztela salatu dute, eta kalitatezko zerbitzua emateko beharra aldarrikatu dute. 2018ko urriaz geroztik daude borrokan

**Amaia Zabala** BERGARA

Gipuzkoako Diputazioak zaharren egoitzetako langileen baldintzak "prekarizaten" jarraitzen duela dio ELAk. Hala, ekitaldia egin dute Bergaran.

Ekitaldiaren aurretik, etxez etxe esku orriak banatzen ibili dira. "Bi urte baino gehiago dararamatzagu hitzarmena sinatu gabe, eta, gure baldintzak hobetzeko eskaera egiteaz aparte, kalitatezko zerbitzu bat aldarrikatzen dugu", adierazi dute agerraldian. Izan ere, zaharren egoitzetako langileak 2018ko urriaz geroztik daude borrokan.

Zaintza duina jaso ahal izateko kalitatezko lan-baldintzak izatea ezinbestekoa dela azaldu dute. "6.000 egoiliarren beharrei erantzuteko, 15 minutu ez dira nahikoa egoiliarrak altxatu, garbitu eta janzteko; horrez gain, dagozkigun kontratu eta soldata duinak nahi ditugu", azaldu du ELAko genero berdintasuneko arduradun Leire Txakartegik. Haren ustez, "emakumeak direlako" dituzte lan baldintza txarrak. "Gizonezkoak lanean ari diren sektore pribatizatuekiko %30eko arrakala pairatzen

dute", dio Txakartegik. Hori horrela, Aldundiari galdetzen diote ea zaintza lanak ez duen merezi bestelako baliorik.

**Akordioa patronalarekin**

"Greba dinamika martxan jarri genuenean, Aldundiak ELAko ordezkariari eta patronalei negoziatzeko eta akordio batera iristeko eskatu zigun. Hala egin dugu Adegri eta Matia patronalekin, baina, akordio hori finantzatzeko ordua iritsi denean, Aldundiak uko egin dio", azaldu du, eta gehitu: "Maite Peña diputatuak faltsutu egin du ELAren eta patronal nagusiaren arteko akordioa".

**Maiatzaren 10era arte**

"Maiatzaren 10ean amaituko da deitutako greba sorta eta espero dugu Diputazioak bere jarrera aldatzea, eta dagoen akordioa ontzat ematea. Ez badago akordiorik, borrokan eta greban jarraituko dugu, baina hori langileek eurek erabaki beharko dute", dio Txakartegik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, momentuz, ez du erantzunik eman nahi izan.

Zurekin  
**DEBAGOIENA**  
gara



# Aranzadi Ikastolaren eta Espazioko astronautaren arteko konexiorako prest

Bergarako Aranzadi Ikastolako ikasleek Nazioarteko Espazio Estazioan (ISS) dagoen Nick Hague astronauta estatubatuarra elkarrizketatuko dute maiatzaren 17an, 10:51n. Australiako irati-amateur baten bidez. Ekitaldia 10:00etan hasiko da

**Amaia Zabala** BERGARA

"NASAk gazteen artean zientziaren dibulgazioa bultzatzea helburu duen ARISS programaren barruan egin dugun proiektua da; beraz, ekitaldi instituzional bat da eta protokolo ugari eskaintzen ditu. Proiektu pedagogiko bat aurkeztu genuen eta prestigioa izan da gure ikastola lehen saiakera hautatua izana. 2011n proiektua hasi zenetik, Espainiako Estatuko 11 ikastetxek soilik izan dute konexio hau egiteko aukera. Aurtan, esaterako, estatu mailan hiru ikastetxek soilik egingo dute horrelako konexioa", azaldu du Arizmendi Ikastolak.

Ekitaldia 10:00etan hasiko da eta ikasleek proiektu horren prozesua, eta, ikasi dutena azalduz egingo dituzten aurkezpenez gain, Javier Armentia Iruñeko Planetarioko zuzendaria eta Bittor Rodriguez astronomian aditua den bergararra ere bertan izango dira.

Nick Hague astronautari elkarrizketa egiteaz 6 eta 18 urte bitarteko hogeitaz hamar eguneko bitarteko hogeitaz hamar eguneko bitarteko hogeitaz hamar eguneko bitarteko...

**Espedizioaren gidariak, gogotsu** Espedizio guztiek izan ohi dituzte gidariak, eta honako honek ere izango ditu. Maider Jorge eta Oier Elortza batxilergoko ikasleak, hain zuzen, eta Aranzadi Ikastolaren eta ISSko astronautaren arteko konexioa aurreikusitako moduan joatearen arduradunak izango dira.

"Galderen txanda ondo eramatea eta ordena mantentzea da gure ardura. Niri, oso zaila egiten zitzaidan pentsatzea ikastolan astronautekin berba egiteko aukera izango genuela; astronautak beti ikusten dituzu urrun



Nick Hague astronauta estatubatuarra elkarrizketatuko duten ikasleak. ARANZADI

Espazioan, eta, niretzat, oso zaila zen imajinatzea noizbait aukera hori izango genuenik. Behin aukera dugula ikusita, berriz, oso pozik eta gogo handiz. Bizitzan behin izango dugun esperientzia da eta topera bizi izango dugu", dio Oier Elortzak, espedizioaren gidarietako batek.

Maider Jorge espedizioaren beste gidariak ere "ilusio handiz eta gogotsu dagoela" aitortu du: "Ilusio handia egiten didan gauza bat da, baina, egia esan,

**MAIDER JORGE ETA OIER ELORTZA IKASLEAK IZANGO DIRA ESPEDIZIOAREN GIDARIAK**

ez nago urduri; ziurrenik, eguna gerturatu ahala urdurituko naiz, zerbait gaizki aterako ote den kezka, eta abar. Azken batean, oso pozik gaude guztiok, inork ez baitu pentsatzen inoiz astronautekin horrelako konexio bat egiteko aukera izango duenik; beraz, aukera aprobetxatzea eta momentua disfrutatzea goaz".

Jorgek gaineratu du esperientzia honekin ikasi duela zerbait nahi denean saiatur lor daitekeela: "Proiektu hau ezerezetik abiatu genuen, eta lortu dugu. Gainera, ilusio handien egiten didana da nik proposatutako ideia bat aurrera ateratzeko ikastola guztia martxan jarri izana. Eskertzekoa da ikastolak hori lortzeko egin duen lana".



Pirritx, Porrotx eta Marimotots panpinak estratosferan. ARANZADI IKASTOLA

## 'Katxiporreta II', helburuak beteta

*Katxiporreta II* misioa erabat arrakastatsua izan zen eta *Pirritx*, *Porrotx* eta *Marimotots* panpinak estratosferara helioz betetako globo batean bidali zituzten. Hain zuzen ere, zapatuan 11:55 aldera izan zen jaurtiketa, eta ikusle ugari bildu ziren Aranzadi Ikastolako patioan.

Nafarroako Bardean lurreratuko zela aurreikusten zuten eta Bergararik auto batzuk globoaren atzetik joan ziren GPSak bidali ziren seinalea jarraituta, lurreratzea ikusi eta pailazoak berreskuratzeko helburuarekin. Azkenean, estratosferatik barrena hiru ordu inguruko bidaia egin ostean, Sabada eta Ejea artean, Aragoi, Nafarroako mugatik gertu, lurreratu zen. Panpinen bidaiaren argazki guztiak ikusgai [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus) atarian.

**FAGOR**   
FAGOR ARRASATE

**2019ko OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**DEIALDIA**

**Data:** 2019ko maiatzaren 24an, ostirala.  
**Ordua:** 08:30ean lehen deialdian, eta 09:00etan bigarrenan.  
**Tokia:** AMAIA ANTZOKIAN, Arrasaten.

**EGUNEKO AZTERGAIK**

1. Aktak onartzeari buruzko txosten eta akordioa.
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena.
  - 2.1. 2018ko Gestioari buruzko akordioa.
  - 2.2. 2019ko Gestio Plana onartzea.
3. 2018. Urteko kontuen azterketa.
4. 2018. Urteko Memoria ez Finantzarioa.
5. 2018. Urteko emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7. "Mondragon Industrierako Automatizazioa" Dibisioari eta FAGOR TALDEARI buruzko txostenak.
8. Kooperatiba bazkideen Barne Erregelamenduko 33 eta 34 Artikuluak aldatzea.
9. 3/2016 Araua, kooperatiba bazkideen emaitzen banaketari Buruzkoa, aldatzea.
10. 2/2016 Araua, Kooperatiba Bazkideen Aurrerakin maila finkatzekoari buruzkoa, aldatzea.
11. Kooperatibako kontu hartzaileen izendapena.
12. Kontseilu Errektorea berritzea.
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
14. Galderak eta eskariak.

Arrasaten, 2019ko apirilaren 17an.  
Juan Antonio Azpizku  
Fagor Arrasate, Koop.E. Lehendakaria



# Fagorren ikerketaren aurkako ahotsak

Fagor Etxetresnak kooperatibaren porrota kontratazio politika nepotistarekin eta absentismoarekin lotu duen EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen ikerketak aurkako erantzunak izan ditu; LABena eta Ordaindu elkartearena, esaterako

## Amaia Zabala ARRASATE

"Orain, EHU-UPVko irakasle batzuek egindako ikerketa baten, Confebaskek diktatua dirudiena, langileak egin nahi dituzte egorearen erantzule; lan baldintzak prekarizatzen jarraitzeko estrategia patronalaren urrats bat gehiago ikusten ari gara", dio LABek, eta gaineratu du bazkideak ordezkatzen dituen Kontseilu Sozialari bota nahi zaiola errua, nahiz eta kontsultarako organoa izan hori.

Kontratazio sistema "nepotistaren" gainean zera diote: "Esan dute abizenak gehiago balio zuela kalifikazioak baino. Errealitatean, ordea, ekoizpen pos-

tuetan sartzen ziren langileek gehiegizko kalifikazioa zuten. Horietako asko emakumeak ziren, gainera, industrian emakumeen sarbidean Fagor Etxetresnak aitzindari izan baitziren".

Benetako arazoa zuzendari-tzako kideen kontratazioa izan zela gaineratu dute: "Etekinik eman ez zuten Brandt eta beste enpresa batzuk erosten 200 milioi euro gastatzeko erabakia hartu zutenak, esaterako".

Langileen absentismoa jaso dela arazo nagusi gisa ere badiote, eta makinak ez direla aipatzen "azpierzabiltza" zeudenean, "gehienezko ekoizpenetik urrun. Ez ziren langileak falta,

lana falta zen. Ez zen izan absentismoa 1.000 milioiko zorra sortu eta Polonia eta Frantziako proiektuak finantzatzen jarraitu zuena".

## Ordaindu elkarte, "harrituta"

Ordaindu elkarteko hainbat kide "harrituta" agertu dira Fagor Etxetresnen porrota gertatu eta ia sei urte bete direla ikerketa hori egin duelako EHUK: "Bitxia, oso bitxia benetan, ia berrogei urtean bazkide izan garenoi kooperatibak eta Mondragonek ez digutela inolako azalpenik eman, eta EHUren bitartez jakin behar izan dugulako gertatutakoa."

# Euskal Herri osotik etorri da jendea Puntaik Punta jaialdira

Maiatzaren 3tik 5era izan da jaialdia Eskoriatzan eta antolatzaileek balorazio "positiboa" egin dute

## Amaia Zabala ESKORIATZA

Kanpokoei eta bertakoei eskualdeak dituen natura, ibilbideak eta bestelako turismo aukerak erakusteko asmoarekin sortu zuen orain dela lau urte Mankomunitateak Puntaik Punta jaialdia, eta, geroztik, urtero herri ezberdinetan ospatzen dute; aurtun, Eskoriatzan izan da.

## Ibilbide tematikoak nagusi

"Puntaik Punta sendotzen ari den jaialdi bat da eta hori ikusi da edizio honetan, Euskal Herri osotik etorritako jendea ibili baita. Jarduera gehienak mendian izan dira, eta baita arrakastatsuenak ere, batez ere, ibilbide tematikoak, eta hori kontuan hartuko dugu hurrengo urterako. Hegaztien behaketaren ibilbidean, esaterako, 50 lagun inguru elkartu ziren eta sendabelarrak ezagutzeko men-



Puntaik Punta jaialdian. OIHANA ELORZA

di ibilaldian ere 30etik gora. Kaleko ekitaldietan jende gutxiago ibili da, eguraldiak ere ez baitu lagundu", azaldu du Eskoriatzako alkate eta Mankomunitateko Garapen eta Turismo Saileko presidente Jose Ramon Zubizarretak.

**HEMEN**

eaj pnv

EMAN BOTOA

EAJ-PNV.EUS

f t i



# Bus linea berriak jarriko dituela dio EH Bilduk

EH Bilduko hautagaiek hainbat eskakizun egin dituzte eta konpromisoak hartu dituzte Debagoiengan murriztu ziren bus lineak berrezarri eta zerbitzua hobetzeko linea berriak jartzeko; baita Elorregiko geraleku "intermodalean" komunak jartzeko ere

## Eneko Azkarate ELORREGI

EH Bilduko hainbat hautagaiek eskualdeko autobus linea indartzeko eta Elorregiko bus geltoki "intermodalean" komun publikoa jartzeko eskakizuna eta konpromisoa hartu dute.

Eguaztenean egin zuten agerraldia, Elorregiko bus geralekuan. Mikel Biain Oñatiko alkate eta Batzar Nagusiatarako hautagaiek esan zuen agintaldi honetan EAJK eta PSE-EEk osatutako Foru Aldundiak "murriztu" egin dituela ordura arte indarrean zegoen bus zerbitzua eta, ondorioz, eskualdeko nahiz kanpotik eskualdera datozen zen-



EH Bilduko hautagaien agerraldia. GOIENA

bat erabiltzaileengan "eragin zuzena" izan duela.

## Aldundiak kasurik ez

Era berean, gogora ekarri du murrizketak bertan behera eskatzeko eta Elorregiko geralekuan zerbitzu minimoak jartzeko eskatzeko sinadura bilketa egin

zela, Aldundira igorri zirela eta Aldunditik ezezkua etorri zela. Hori horrela, EH Bilduk konpromisoa hartu du Eibar-Bergara-Eskoriatza ardatzeko "komunikazioak hobetzeko linea berriak" ezartzeko eta Elorregin zerbitzu minimoak ezartzeko: "Komun publikoak", esaterako.

## Gorroñoigoitia eta Ormaetxea omendu dituzte

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak ohiko batzar nagusia egin zuen atzo arratsaldean Garaia gunean. Elkartearen logotipo berria aurkeztu zen ofizialki, eta zuzendaritza batzordea zati baten berritzea erabaki zen. Miguel Angel Laspiurrek jarraitzen du presidente. Bazkideek onarpena eman zioten iazko jardueraren planari eta aurtengoari. Arrasateko kooperatiben mugimenduaren bultzagile nagusi izan zen Jose Maria Arizmendiarrietaren ildo jarraitzea eman eta berritzeko borkazioa duen elkarteak bizirik dauden Arrasateko lehen kooperatibaren sortzaileak omendu zituen: Alfonso Gorroñoigoitia eta Jose Maria Ormaetxea. Markel Olano diputatu nagusia eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea izan ziren ekitaldian. Era berean, Juan Jose Alvarez Zuzenbidean katedradunak berbaldia eskaini zuen, *Zientzia, gizartea, prestakuntza: balioak eta erantzukizuna* izenburupean.

## Edukiontzi marroietan eta grisetan pedalak jarriko dituzte

Bestetik, Mankomunitateak gogora ekarri du garbiguneek bete beharreko ordenantza dutela

## E.A. ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak aditzera eman du hiri hondakin organikoaren eta errefusaren edukiontzietan irisgarritasuna hobetzeko pedalak jartzeko lanak hasiko dituztela datorren astean. Eskoriatzako edukiontzietan hasiko dituzte lanak astelehenan, hilaren 13an. Aurreikuspenen arabera, martitzenean Elgetan, eguaztenean Bergaran, eguenean Arrasaten, barikuan Aretxabaletan eta zapatuan, berriz ere, Arrasaten jarraituko dute lanekin, "hiru bat astetan edukiontzietan pedal guztiak jarri arte".

Lanek irauten duten bitartean, edukiontzi inguruetan trafikoan eta oinezkoengan eragozpen txikiak sor daitezkeela jakinarazi du Debagoieneko Mankomunitateak.

## Garbiguneetako arautegia

Bestetik, Mankomunitateak garbigunearen funtzionamenduen gaineko ordenantza gogorarazi du. Izan ere, azken boladan eskualdeko hiru garbiguneetan "erabiltzaile asko obra baimenik edo baliokiderik gabe" agertzen ari da. Horrenbestez, gogorarazi du etxeetako lan txikien hondakinak, lurrak, errautsak, kristalak, eta abar onartu ahal izateko, Udalak emandako obra baimena edo baliokidea den beste agiriren bat erakutsi beharko dela. Baimenik gabe, erabiltzaile bakoitzak gehienez hondakin hauen 100 litro eraman ahal izango ditu garbigunera hilabete bakoitzeko. Dena dela, hilabeteren batean 100 litroko muga honetara iritsiz gero, hurrengo lau hilabeteetan ezingo du halako hondakinik eraman.

ULMA	Forja, S. Coop.	Oñati
<b>OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA</b>		
Eguna: 2019ko maiatzaren 17a		
Ordna: 09:00etan lehenengo deialdian eta 09:30an bigarrenan		
Lekua: MU Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)		
<b>GAI ZERRENDA</b>		
1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO		
2. 2018KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2019KO GESTIO PLANA BERRUSTEA		
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA		
4. 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO		
4.1 2018ko ekitaldiko banalako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio		
4.2 2018ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio		
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA		
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2018KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA		
7. 2018KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA		
7.1 2018ko ekitaldiko emaitzak banatzea		
7.2 Berozdatzeko Erreserba Fondoak banatzea		
8. POGU III-REN II. IDAZPURIAREN 1.3.3, 1.4.2 ETA 2.2 ATALAK ETA III. IDAZPURIAREN 2.2 ATALA ETA BARNE ARAUDIAREN 42, 43 ETA 82 ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN HIRUGARREN ETA LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK GEHITZEA, FONDO PROPIOAK SENDOTZEKO		
9. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)		
9.1 2018an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua		
9.2 2019an IPDK-ko zehazteko aplikatzeko proposamena		
9.3 ULMAren 2019ko jardueraren sozialaren ildoan azalpena		
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK		
11. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA		
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA		
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA		
14. GALDE-ESKEAK		
<p><b>OHARRAK:</b> Buzkideen proposamena zue ULMA Forja, S. Coop-en ("Kooperatiba") egoitza erabiltzeko ditzazte urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuaren karguak egindako geroz kontuak. Batzar Nagusiaren deialdian egin behar izan daitezke. Hala ere, buztan parte jartzen diren Koopeatibaren egoitza ditzazte erabiltzeko bane araudian eta POGU III an proposamendu aldatutako beste oia eta aldatuta kontu justifikazio kontuak, eta hori duan erabiltzeko edo baliokidea edo deialdian.</p>		
Oñati, 2019ko maiatzaren 2a		

ULMA	Agrícola, S. Coop.	Oñati
<b>OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA</b>		
Eguna: 2019ko maiatzaren 17a		
Ordna: 14:30etan lehenengo deialdian eta 15:00etan bigarrenan		
Lekua: ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)		
<b>GAI ZERRENDA</b>		
1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO		
2. 2018KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2019KO GESTIO PLANA BERRUSTEA HALA BADAGOKIO		
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA		
4. 2018KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO		
4.1 2018ko urteko banalako kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea		
4.2 2018ko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea		
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA		
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2018KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA		
7. 2018KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA		
8. POGU III-REN II. IDAZPURIAREN 1.3.3, 1.4.2 ETA 2.2 ATALAK ETA III. IDAZPURIAREN 2.2 ATALA ETA BARNE ARAUDIAREN 42, 43 ETA 82 ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN HIRUGARREN ETA LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK GEHITZEA, FONDO PROPIOAK SENDOTZEKO		
9. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)		
9.1 2018an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua		
9.2 2019an IPDK-ko zehazteko aplikatzeko proposamena		
9.3 ULMAren 2019ko jardueraren sozialaren ildoan azalpena		
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK		
11. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA		
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA		
13. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA		
14. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA		
15. AHALMENAK ESKUORDETZEA		
16. GALDE-ESKEAK		
<p><b>OHARRAK:</b> Buzkideen proposamena zue ULMA Agrícola, S. Coop-en ("Kooperatiba") egoitza erabiltzeko ditzazte urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuaren karguak egindako geroz kontuak. Batzar Nagusiaren deialdian egin behar izan daitezke. Hala ere, buztan parte jartzen diren Koopeatibaren egoitza ditzazte erabiltzeko bane araudian eta POGU III an proposamendu aldatutako beste oia eta aldatuta kontu justifikazio kontuak, eta hori duan erabiltzeko edo baliokidea edo deialdian.</p>		
Oñati, 2019ko apirilaren 26a		





Pio Garcia doktorea, kirurgia egin aurretiko azterketa batean.

## "Espezialistak zure begiak eta ikusmena zaintzen"

**PIO GARCIA OFTALMOLOGOA**

### **Zein pazientek egin dezakete presbizia ebakuntza? Eta zein betebeharrak daude ebakuntza egin aurretik?**

Betaurrekoak erabiltzen dituen eta ikusmen ona duen 40-45 urtetik gorako edozein pertsonari egin dakioke ebakuntza.

Hori dela eta, kirurgia egin aurretik, ezinbestekoa da azterketa bat egitea, gaixotasunik ba ote dagoen baztertzeko: glaukoma, makulako endekapena edo keratokonoa.

### **Zenbat denbora behar da osatzeko?**

Jeneralean, ebakuntza izan duen begiaren ikusmena lausoa izango da ebakuntza osteko 24-48 orduetan. Horregatik, pazientearen lehenbailehen buelta dadin bere egu-

neroko bizimodura, lehenengo, begi bat operatzen da eta handik astebetera, beste begia. Horrela, ebakuntza egunean bertan, arratsaldetik aurrera, bizimodu normala egin dezake pazienteak.

Zeri esaten diogun bizimodu normala? Paseatzeari, telebista ikusteari, irakurtzeari, ordenagailuan ibiltzeari, eta abarri. Edozelan ere, badaude jarduera batzuk ezin direnak ebakuntza osteko bi asteetan egin; adibidez, bizikletan ibiltzea eta korrika egitea. Kontaktuzko kirolak ezin dira hilabete igaro arte egin – igeriketa barne–.

Era berean, ez da komeni 15-20 kilotik gorako pisuak hartzea,

baina ez dago arazorik, adibidez, erosketa-poltsa hartzeko.

### **Zertan datza ebakuntza?**

Hiru fokuko leiarrekin egiten den ebakuntza zertan datzan ulertzeko, atun-lata batekin egingo dugu konparazioa. Hasteko, atun-lata irekiko dugu; gero, hustu egingo dugu; eta azkenik, leiarra barruan jarriko dugu. Leiar horrek ahalbidetuko digu urrunera eta gertura ikusi ahal izatea.

### **Zenbat irauten du? Ze anestesia mota erabiltzen da?**

Kirurgiak hamar minutu inguru irauten du, anestesia topikoarekin; hau da, begietan tantak botata. Gainera, ebakun-

tza egiten ari den bitartean, anestesista bertan egoten da, pazientearen zelan dagoen ikuskatzeko eta haren antsietatea baretzeko, beharrezkoa balitz, sedazio bidez..

### **Ze arrisku dakar ebakuntzak? Ze konplikazio-maila sor dezake?**

Oso ebakuntza segurua da. Edozein ebakuntzatan izan daitezkeen konplikazio larrienak infekzioak dira: 3.000 pazientetik lek jasaten ditu.

Ebakuntza egin aurretik, sintoma posibleak jakinarazten zaizkio pazienteari, eta, horrelakoren bat badauka –begia oso gorri, mina...–, larrialdi zerbitzuetara joan behar du, infekzioaren edo konplikazioaren bat ote dagoen egiaztatzeko eta lehenbailehen artatzeko, txarra joan ez dadin.

Beste konplikazio batzuk ere izan daitezke: gaueko haloak, adibidez. Ez dira larriak, baina bai desatseginak. Jende askok dio, gauez, gidatzen dabilela, auto bat aurretik badator, puntu bat beharrean –bonbilla–, izar bat ikusten dela –haloak–. Denborarekin, desagertu egiten da fenomeno hori, baina pertsonaren araberakoa da haren iraupena. Egunak, asteak edo hilabeteak iraun dezake.

### **Zein da pazienteen asebetetasun-maila mota horretako ebakuntza bat egin ostean?**

Pazienteen asebetetasun-maila %99koa da. Jeneralean, pozik ez dagoen jendea izaten da ez dituelako ebakuntzaren espektatibak ulertu. Gauza bat argi izan behar da: sekula ere ez dugu ikusiko 15 urterekin eta betaurrekorik erabiltzen ez gunden garaian bezain ondo. Ebakuntzaren helburua pazientearen bizi-kalitatea hobetzea da. Hau da, egunerokoak egiteko gauza

izatea, baina betaurrekoak erabili barik: hondartzan ikusi ahal izatea, jatetxe bateko karta irakurri ahal izatea, euria denean betaurrekoak ez bustitzea eta ez lurruntzea...

Alegia, betaurrekoekin hobeto ikusten dugu argi gehiago dagoenean eta okerrago, berriz, ilunago dagoenean; eta ebakuntzaren ostean gauza bera gertatuko zaigu. Era berean, norbaitek guk baino ikusmen hobea baldin badu nahiz eta guk betaurrekoak erabili, pertsona horrek guk baino ikusmen hobea izaten segituko du guri ebakuntza egin ostean; izan ere, pertsona garaiki eta txikiak daude, eta ikusmenarekin ere gauza bera gertatzen da. Batzuek beste batzuek baino hobeto ikusten dute.

Ebakuntza honek duen onura nagusia zera da, betaurreko progresiboak erabiltzearekin konparatuta: ikuseremua zabaldu egiten dela. Betaurrekoekin, kristalaren bidez bakarrik ikusten dugu, eta, adibidez, atzerako ispilu bat ikusteko burua mugitu behar dugu; leiarrek, berriz, angelu guztietatik ikustea ahalbidetzen digute.

Beste abantaila bat da betaurreko progresiboekin urrunera ikusteko kristalaren goiko aldetik begiratu behar dugula eta gertura ikusteko, berriz, kristalaren beheko aldetik. Edozelan ere, ebakuntza egin ostean, hauxe bakarrik egin beharko dugu: begiratu eta enfokatu, burua mugitu barik.

## "PAZIENTEEN ASEBETETZE-MAILA %99 DA"

## Asko duzu ikusteko

### Oftalmologia zerbitzua

Zure begiak eta ikusmena zainduko dituen espezialista taldea.


RPS 194/16. Zerbitzularia: Pio Garcia doktorea, Medikin eta Kirurgian lizentziaduna. Asistentzia-arduraduna: Irane Cachero doktorea, Medikin eta Kirurgian lizentziaduna.

Hospital Quirónsalud Vitoria  
Esperantza kalea, 3, 01002, Gasteiz, Araba  
**945 252 500**  
Aurretiko hitzordua  
**901 500 501**

Hospital  quirónsalud  
Vitoria







ZABALIK

MARIA AGIRRE

## Herriak eta hiriak

Ez da fenomeno berria, baina azken urteetan areagotuz doa etenik gabe.

Herrien aldean, hiriak ari dira bereziki hazten. Aurreko batean irakurri nuenez, Donostiak lehenengo aldiz 187.000 biztanleren langa gaingitu du. Pozarren hartu da albistea. Beti izan ohi da ona hiri nahiz herri batek bizilagunak irabaztea. Kendu beharrean, betiere, hobe gehitzea.

Gipuzkoako kapitalean periferia hazi da gehien; hau da, auzoak. Inguruko herrien aipamena ere egingo nuke.

Ni neu azken urteetan Astigarragan bizi naiz, eta ikaragarria da herri horretan azken hamarkadan eraiki den etxe kopurua, eta, jakina, biztanleriaren hazkundera ere begi bistakoa da. Azken 10 urteetan gutxi gorabehera bi mila biztanle irabaztea ez da zifra makala.

Baina aipatzen hasita, azpimarratu beharra dago zerbitzuak ez direla maila berean garatu. Azken hamarkadetan ozen eskatu den eskola publiko berriaren arrastorik oraindik ez egotea horren sintoma nabarmena da. Era horretan, biztanleria hori duen arren, DBH

ziklorik eskaintzen ez duen herri bakarra da Gipuzkoan. Eta badiotsuet eskaera egiten hasi zenetik makina bat urte pasa dela.

Bitartean, gabezia hori mahai gainean, berriro ere udal hauteskundeak parez pare. Zenbat herritan izango diren horrelako edo antzerako oinarriko beharrak!

Hirietan, berriz, ematen du proiektuen abiadura beste bat dela. Alderdi batzuk etorkizuneko super-mega proiektuak aurkeztera ere animatzen dira. Izan ere, alderdiei hirietako alkatetzak lortzea oso erakargarri zaizkie. Hiri zein herri handi, baina populatuaren diren horiek dituzte begiz jota. Kanpainaren norabidea ikusterik baino ez dago, mitin handienak hirietan! Zenbat herri txikitik ikusiko ditugu Diputaziorako hautagaiak? Noizbait Leintz Gatzagan izan da horrelako mitinik? Arrazoiz esan ohi dute herri txikitian, askotan, abandonatuta sentitzen direla.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Ni ez naiz hemengoa

JAUME GELABERT

HTTPS://LABUR.EUS/JACNS  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Kataluniako afera dela eta, independentziaren kontrakoez oso argudio sendoa erabiltzen dute azkenaldian Twitterreko eztabaida sakonetan, aurkariari erantzuteko aukerarik ematen ez diona: "Begira iezaiozu zure nortasun agiriari. Zer jartzen du?: E-S-P-A-Ñ-A!". Marratxoak nonahi ager daitezke, hitza hizkika edo silabaka zatitua, baina badirudi ezinbestekoa dela espainol guzieren aberriaren izena maiuskulaz idaztea,

aldarriak behingoz aurkari nazionalista baztertzaleari ez-nazionalista kosmopolitaren sufrimendua ezagutaraziko diolako esperantzan. Enpatia lezioa.

Bada, Hauteskunde Batzordeak doktrina bera aplikatu omen du Iruñean Modou Faye *Beltxa*-ri hautagai izateko aukera ukatu dionean. Batzordeak argudio sendo ezaguna erabili du debekua ezartzeko. Nik dakidala, Fayek ez du inolako ustelkeria kasurekin harremanik izan, ez du inongo kutzaren arpilatzean parte hartu, ez du indarkeria matxista erabili, ez zaio sekula burutik pasatu pederastia kasurik zuritzea,

ez du frankismoa goraipatu edota nazionalkatolizismoaren biktimarik umiliatu. Hala eginda ere, ez litzateke traba izanen. Oztopoa da ez duela Espainiako nazionalitatekerik –berri galdera, "zer jartzen du zure dokumentuan?"–, nahiz eta 10 urte joan diren egoera administratiboa erregularizatu eta bizileku baimena lortu zuenetik. Seguru asko, erabakia legezkoa izanen da erabat. [...]

Noiz edo noiz, aireportuan, familia bisitatzerako joaten naizenean, gure etxetik gure etxerako bidaia egiten dudala etorri zait burura. Badirudi legediak ez diola aukera bera eman nahi hainbat bizilaguni.

**goiena**<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzaganako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**



## BERBAGAI

# "Kooperatibak sortzen laguntzen diegu FARCeke borrokalari ohiei"

**AITOR ALTOLAGIRRE** ALECOOP KOOPERATIBAKO LANGILEA

**Amaia Zabala** ARRASATE  
Mondragon Taldeko LKS eta Alecop kooperatibak Kolonbian dabilta lanean, Europar Batasunak hango bake prozesua finkatzeko martxan jarri duen eta 30 hilabete iraungo duen proiektu batean. FARCeke borrokalari ohiekin egiten dute lan, batez ere, eta Aitor Altolagirre legazpiarra horietako bat da.

## Nondik, nola eta zeinen ekimenez sortu zen proiektu hau?

2016ean Bake akordioa sinatu zenean, FARCeke gerrillariak Gobernuarekin hitzartu zuten birgizarteratzeko bideetako bat kooperatibismoa izatea. Prozesu horretan, ECOMUN izeneko kooperatiba bat antolatu zuten, eta horren barruan beste 120 kooperatiba sortu dira. Gure lana etorkizunera begira horiek guztiak harmonizatzea da; kontseilu errektoreak eta batzar batek nola izan behar duten, ze merkatu aukera dauden, eta abar.



Aitor Altolagirre asteartean joango da berriro Kolonbiara. AMAIA ZABALA

## Hainbat erakunde daude proiektu honen atzean, ezta?

Bai; Europar Batasunak, Kolonbiako eta Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak laguntzen dute ekonomikoki. Agirre

Lehendakari Centerren babesa ere lortu dugu, bermatzaile moduan. **Zuen laguntza leku konkretu batean zentratzen da?** Ez, Kolonia osoan zehar; izan ere, 13.000 borrokalari

horiek herrialde osoan zehar banatutako 80 gune edo herrixkatan daude.

## Gatazkaren ostean, gune horiek zein egoeratan daude?

Populazioaren erdia hiri handietan bizi da, Bogotan, Medellinen eta Cartagenan, esaterako, eta beste erdia herri txikietan. Azken hauetara iristeko errepideak izugarri txarrak dira, harriz eta hareaz beteta; imajinatu, 40 kilometro autoz egiteko bost ordu behar dituzu. Borrokalariekin oso lotuta dauden guneak dira, oso elkartuak diren komunitateak, eta elkarlanean sekulako lanak egin dituzte aurrera ateratzeko, baina ez dute utzi bertara biderik sartzen.

## Zein da borrokalarien profila?

24 eta 70 urte arteko jendea dago. 24 dituztenak 14 urterekin sartutakoak dira; batzuek bahitutako eta lapurtutako haurrak direla esango dute. Ni ez naiz horretan sartuko. Gazte hauek, ordea, ez dute kanpoko hezkuntzarik jaso. 70 urtekoak, unibertsitatek ateratakoak dira batzuk, komunismo zaleak eta borrokalaren mundutik datozenak beste batzuk. Korriente ezberdinetatik datoz, eta, ondorioz, barne gatazkak dituzte.

## HAU BE BADOGU!

## Reala koparen bila Granadara



Txuri-urdinek Erregina Kopako finala jokatuko dute bihar, Atletico Madrilen aurka:

@MaddiTorre: "Errepikatua dadila Realak 1987an lortu zuena. Juanan Larrañaga eredu izanda, horretara goaz! #AurreraReala #granadatxuriurdirin".

@RealSociedadEUS: "Gutako askok lortu ezin izan zutena lortzeko bidean zarete, bai final bat jokatu eta bai titulu bat irabazteko Realarekin", Imanol Agirretxeren hitzak #AurreraReala".

## '#Besarkada' traola 'trending topic' izan da

"Faxismoaren eta diskriminazio politiken gorakadari aurre egiteko" besarkada kolektiboak antolatu dituzte, eta, horrela, #besarkada traola erabilienetakoa izan da asteon.

@AneIrazabal: "Gaur Iruñea, bihar Durango. Itxaropena. Herrien #Besarkada #Abrazada @MugakZabalduz".

@otoprisma1: "Bunkerraren Europaren aurrean... Gora Herria! #besarkada".

## 'Mirariak' Txapeldunen Ligako partidetan

Sare sozialek eztanda egin dute Txapeldunen Ligako emaitzekin. Liverpoolen kontra zuen 3-0eko irauli zuen Anfielden 4-0 lortuta, eta beste neurketan, Tottenhamek 95. minutuan eskuratu zuen garaipenaren gola:

@nerbiox: "Txapeldunen liga baino, fededunena izan da aurtengoa. Bejondeiela etsi ez zuten Liverpool eta Tottenhami".

@jontolest: "Ez dauka parekorik. Txapeldunen Liga da".

## ITURRI ONETIK

## Koalturrek 10. edizioa izango du

Bukatu da Arrasateko gaztetxean egiten den Koaltur Ostegunen 9. denboraldia, orain arteko denboraldi laburrena baina "jendetsuenetakoa", antolatzaileen esanetan. 200 pertsonatik gorako kontzertu dezente izan dituztela diote eta ikus-entzule gehien honako hauek izan dituztela: Rude Pride, Unidad Alavesa, Jerry A 25th Coming Fire eta Estricalla eta Anari. Dagoeneko erabaki dute 10. denboraldia egitea, eta urriaren 3an emango diote hasiera. Hamargarrena izanik, berezia izango da?

## ALBISTE IZAN ZEN

2009-05-07

## Arizmendarrieta santu egiteko eskaria egin zuten

On Jose Maria Arizmendarrieta santu egiteko bidean, beste urrats bat egin zuten Alfonso Gorroño goitiak eta Jose Maria Ormaetxeak, Arrasateko kooperatiben sortzaileetakoak: bildutako informazioa Vatikanora eroan zuten, modu horretara, kanonizazio eta beatifikazio prozesuko lehen fasea bukatuta. Erromara eroandako eskaria aztertzeko hogeit bat urte beharko zirela adierazi zuten biek.





## Eskerrik asko!

JOSE MARI ANDUAGA

BERGARA

Amaitu dira Labegaraietako jaiak.

Jende ugari pasatu da auzotik, eta eskerrak eman nahi dizkiegu jai hauek aurrera ateratzen lagundu diguten denei:

Labegaraieta kiroldegiko taberna; Mikel Gaitxao harakina; Felsiñe fisioterapia zentroa; Iñarra fisioterapia zentroa; Lazkano oinetakoak; Sugoï erloju-denda; Hierros Naparra; eta Bergarako Udala.

Eta, nola ez, auzokideei eta Labegaraietako kuadrillari.

Eskerrik asko!

## Langileen kontrako propagandatik harago, Fagor Electrodomesticos-en itxieraren benetako gakoak argituz

ZORION ORTIGOSA ETA XABIER LLODIO

LAB-EKO INDUSTRIA FEDERAZIOA

ARRASATE

Fagor Electrodomesticos-en itxieraren inguruan EHUKo irakasle batzuek egindako ikerketan, Confebask-ek diktatua dirudiena, langileak egin nahi dituzte egoeraren erantzule, beste hainbat enpresatan egin den moduan.

Nonbait, kooperatibistak *langileegiak* ziren, eta ez ziren oso *jabe* sentitzen. Harrigarria da hala izanda interesak kobratzeari uko egitea, soldata jaiste eta euren kaleratzea sinatu izana. Jabetzaz gain, langile kontzientzia da, hain zuzen ere, elkartasunari, berdintasunari eta parte-hartzeari zentzua ematen diena kooperatibetan.

Abizenak gehiago balio omen zuen kualifikazioak baino. Errealitatean, ekoizpeneko langileek gehiegizko kualifikazioa zuten, horietako asko emakumeak, eta itxi aurreko azken 6 urteetan, enpleguaren erdia galdu zen. Erantzuleak dira etekinik

eman ez zuten Brandt eta beste enpresa batzuk erosten 200 miloi euro gastatzeko erabakia hartu eta 1.000 milioiko zorra sortu zutenak.

Absentismoa ere arazo larria omen zen, nahiz makinak azpierzabiltza zeuden, gehienezko ekoizpenetik urrun. Ez ziren langileak falta, lana falta zen.

Alferrak, entxufatuak eta berekoiak izateaz gain, ez omen ziren inolako sakrifizioerik egiteko prest egon. Langile askok 12.000 eta 18.500 euro artean jarri zituzten, ordea. Ikerketaren egileek antzeko egoeran gauza bera egingo lukete?

Dirua galdu zuten. Lanpostua ere bai. Orain, beraien eruz izan zela entzun behar dute. Ez da bidezkoa eta ez da egia.

LABen, elkartasunez eta berekoikeriarik gabe proiektu eta proposamen desberdinetan lan egin zela bizi izan genuen. Erabatekoa izan zen inplikazioa.

Ezaguna da amaiera. Ikas dezagun gertatutakoaz, etorkizunera begiratzeko, baina era objektiboan. Egindako lanaren ondarea geratzen zaigu. Ea etorkizuneko baliagarria den, bai sindikalgintzarentzat eta baita kooperatibismoarentzat ere.

## Amaren gorpuzki gabe

AITZIBER ANGOITIA OLEA

ARRASATE

Aditzera eman nahiko nuke nire amaren gorpuzkiak lurpetik ateratzearen inguruan gertatutakoa, herritarrek jakin dezaten eta antzekorik bizi izan ez dezaten.

1. Udaletik amaren gorpuzkiak laster hobitiek ateratzeko asmoa zegoen jakinarazpena jaso nuen. BAZen bitartez Udalarekin harremanetan jarri nintzen, eta behin eta berriro esan zidaten denbora gutxi falta zela, baina abisatuko zidatela.

2. Denbora gutxi falta zelakoan, nire prestaketak egin nituen eta kolunbarioa erosi nuen.

3. Handik denbora apur batera eta niri jakinarazi gabe, hobitiek atera eta amaren gorpuzkiak hobi komunera bota zituzten.

4. Horren berri izan nuenean, udaletxera jo nuen eta esan zidaten ez zidatela gutunik bidali ez nintzelako gutunak bizi. Errolda begiratzeko gero, ohartaraziko dira bertan bizi naizela –eta aurreko jakinarazpena etxera bidali zidatela–. Geroago, beste batzar batean, esan zidaten Espainiako Aldizkari Ofizialean eta hilerrian argitaratu zutela.

5. Espainiako Aldizkari Ofiziala eta hilerria aipatuz edozein erreklamazio edo ke-xari uko egiten diote. Uste dut oso herritar gutxi- daukagula ohitura eta denbora Espainiako Aldizkari Ofiziala begiratzeko.

Ez naiz gehiago luzatuko, baina interesa duen beste edozein herritar jakinaren gainean jarri nahi nuen. Teorikoki ordezkatzeko nauen Udalak nire eskubideak urratu ditu.

Eta larriena da gertatutakoa justifikatu nahian oso argudio hutsalak eman dizkidatela.

Herritar moduan ditudan eskubideak defendatzeko hedabide honen laguntasuna eskertzen dut.

## EHUren azterlana Fagor Electrodomesticos hondoratzeko arrazoiei buruz

ASUN GONZALEZ ETA MIKEL OLABE

ORDAINDUKO ZUZENDARITZA

BATZORDEAREN IZENEAN

ARRASATE

Egunotan, barra-barra dabil Fagor Electrodomesticos (FED) hondoratzeko arrazoiei buruz EHUK egin duen azterlana.

Nepotismoari eta giza baliabideetako politika eztabaidagarri bati egotzen die, batez ere, hondorapena.

Langile-politika –bazkide berriak egitea– hedatzeko proiektuei lotuta egon da, hala nola Brandt erosteari, Poloniako hedapenari... eta horiek kooperatibaren zuzendaritzak proposatu, babestu eta erabaki ditu, MCCren abalarekin.

Hedapen-politika horiek sekulako porrota izan dira. Bitxia da, benetan, azterlana EHUK egin izana, FED hondoratu eta ia sei urtera. Bitxia, kontuan harturik Mondragonek MU duela kide, eta horrek ezin hobeto ezagutzen duela kooperatibaren funtzionamendua eta bitartekoak, eta Lanki Kooperatibismoaren Ikertegia duela...

Bazkide berriak hautatzeko, Fagor taldearen –Copreciren, Ederlanen, Electronica Arrasateren...– araudia hartzen zen aintzat, eta bazkideen seme-alabak lehenesten ziren, hein batean. Fagor taldearen Kontseilu Nagusia arduratzen zen bazkide berriak onartu eta kooperatibetan banatzeaz. Ez dugu uste araudi hori izan denik FEDen gainbehera ekarri duena.

Azterlanak dioenez, absentismo-indizea –gazteena, batez ere– handia zen FEDen; baina taldeko gainerako kooperatibetan baino apur bat handiagoa baino ez zen.

FED hondoratzeak zalantza ugari sortzen ditu, langile-politikaz harago. Zalantza garrantzitsuagoak eta sakonagoak. Kooperatibako zuzendarien hutsegite taktiko eta estrategikoen ondorioz hondoratu zen FED.

MCCk, FEDeko zuzendaritzarekin batera, arduragabetasun handiz jokatu zuen, eta arazo ugari sortu zituen –oraindik orain, noiz konponduko gaude–. Erortzen utzi zion kooperatibari. Horren aurrean, FEDeko 1.000 inguru bazkide ohik, Ordaindu eta Eskuratu taldeetan elkarturik,

epaitegietara jo behar izan dugu, kooperatibari laga genizkion 50 milioi inguru euro erreklamatzeko.

Ondo legoke MCCk bere baliabideak –MU?– erabiltzea, zuzendaritzak egin zituen hanka-sartze estrategikoak eta horiek ekarritako ondorioak sakonki aztertze. Errua bazkide xeheri botatzea erraza da beti... baina ez du inork sinesten.

## Gazteei eskan

JON OTERO URIBARREN

ARRASATE

Gaur egun, bada, denok dakigu gazte gutxi ditugula, eta, noski, dauden gutxi horiek antisorgailuak erabiltzen dituzte.

Baina gureak egin du, zeren *baby boom*-eko belaunaldia adinez aurrera baitoa.

Beraz, zer eskatu gazteei?

Zergatia badakizue, edo ez?

Ume gehiago beharko ditugula etorkizuneko, hemen, Euskal Herrian. Eskatu beharra dago gazteei antisorgailu gutxiago hartu ditzaten.

Pobreak direla, ekologiaren mesedetan ez doala?

Ume horiek berek emango dizute umorea eta indarra aurre egiteko arazo latz horiei.

Superpopulazioak ez dio onik egiten ekologiari.

Baina hemen jada marra gorria zeharkatu dugu eta eutsi egin behar zaio jaiokuntza-tasari, handituz jaigaltze-tasa.

Soldata hobeagoak etorriko dira umeek ematen duten indarrak.

Munduko beste zenbait tokitan antisorgailuak musu-truk emateak bere zentzua du, baina Euskal Herrian jada hurrengo etapa oso larria dator, baldin antisorgailuak erabiltzen jarraitzen baduzue.

Beraz, arren, ez hainbeste antisorgailu.



# Indarrak batuta, "eredu gizagabearen" aurka

EAJk eta PSE-EEk agintzeko izan duten eredia hitz horiekin definitu du Elkarrekin Podemosek. Horren aurrean, Ahal Dugu, Ezker Anitza eta Equo alderdiek indarrak batu dituzte, feminismotik eta ekologismotik bestelako eredu bat eskaintzeko asmoz

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Elkarrekin Podemosek aurkeztu du udal hauteskundeetako zerrenda Kulturateko klaustroan, eta "lanerako gogotsu" datozela adierazi dute. Azken agintaldia-ri begira jarrita, salatu nahi izan dute azken lau urteetan Udalean barne kudeaketa "autoritarioa" egin dutela EAJk eta sozialistek, eta hitz hauek erabili ditu alkategai izango den Igor Urizarrek Udal Gobernuaren agintzeko eredia definitzeko: "Lau urte hauetan, gehiengo instituzionalaz baliatuta, barne kudeaketa autoritarioa burutu dute, gure proposamenak behin eta berriz zapuztuz, gure informazioerako eskubidea ukatuz eta oztopatuz, legea bihurtuz euren borondatea inposatzeko, emandako hitza eta hainbat kasutan udalbatzan bertan emandako botoa bete gabe".

Gobernuak egin duen udal kudeaketaren balantzea erabat "negargarria" izan dela ere azpimarratu du Urizarrek, herrian bizi diren hainbat egoera lasgarri azaleratuz: "Desjabetze traumatiko batzuk ere burutu dituzte, inongo erruki edo gizabide gabe jendea etxetik era txarrean ateratzera behartuz. Merkataritxikiei bizitza zaildu diete, oztopo guztiak jarritz eta enpresa handiekin izaten duten malgutasuna inondik inora erakutsi gabe. Hori bai da EAJren eta PSE-EEren benetako aurpegia", adierazi du Urizar alkategaiak.

**Eredu "eraldatzailea"**

Arrasateri "bestelako eredu bat" eskaini nahi diote: ezkerretik, feminismotik eta ekologismotik.

"Aurkeztu dugun hautagaizak eredu gizagabe hau tinko salatzen du, eta Arrasateko herriari eredu alternatibo eta hausle bat eskaintzen dio. Ezkerretik, feminismoan eta ekologismoan oinarritu nahi duen eredu eraldatzaile bat".



Elkarrekin Podemos-eko hautagaiak, Kulturateko klaustroan. AMAIA TXINTXURRETA

## ETXEBIZITZA DUINAK, POLITIKA PUBLIKOAK, HERRITARRAK ETA AUZOAK HARTUKO DITUZTE ARDATZ

**Lau ardatz**

Bereziki lau ardatz jarraituta egin nahi dute lan Elkarrekin Podemoseko hautagaiek: etxebizitza duinak, ondasun publikoak berreskuratzea, auzoei indarra ematea eta herritarrek entzunaz lan egitea. Etxebizitza dagokienez, alokairu sozialerako dirulaguntzak eman nahi dizkiete kuotak ordaintzeko zailtasunak dituztenei, eta etxebizitza sozial gehiago egin nahi dituzte.

Ondasun publikoak berreskuratzeke, besteak beste, pribatizatuta dauden zerbitzu publikoak udalera itzartzea asmoa azaldu dute. Auzoak ere indartu nahi dituzte, autonomia ekonomiko handiagoa emanez eta bertan egiten diren ekintza kulturalak areagotuz, eta herritarren nahiak entzuteko parte hartze batzordea eratzea eta udal tramiteak sinplifikatzea proposatzen dituzte.

## Elkarrekin Podemosen lau ardatzak

**Etxebizitza duinak**

- Alokairu sozialerako laguntzak.
- Etxebizitza publiko gehiago.

**Ondasun publikoak**

- Pribatizatutako udal zerbitzuak publiko bihurtzea, mailakatuta.
- Hezkuntza: azpiegiturak hobetzea eta segregazioaren aurkako udal-plan bat.

**Auzoak**

- Auzo batzordea eratzea, hauei aurrekontu propioak ematea eta auzoak berpizteko autonomia ematera.
- Ekintza kultural gehiago.

**Herritarrek entzutea**

- Parte hartze batzorde bat eta tramiteak erraztea.
- Etxebizitza publiko gehiago.



NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

## Hau da Macao

Bartzelonan bizi nintzen garaian, hainbat pisukide izan nituen; haietako bat da Andre. Elkar ondo ezagutzeko aukera eskaini ziguten urte gutxi haiek, eta ordutik pasa direnek ezin izan dute orduan konpartitutako hamaika kontakizun eta istorioen oroitzapena amata. Elkarrizketa luze haietatik dator bere jaioterrira bidaiatzeko neukan gogo bizia, eta azkenik, asteburu honetan gauzatzerik izan dudana.

Horrela, ustekabea eta planifikazio gehiegirik gabe, Europak Asian izan zuen azken kolonian hartu genuen lur, Macao-n. Bat-batean, kultura portugaldarraren pintzelkada koloretsu eta garbiak azaldu zitzaizkigun aurrez aurre, zeruaren ilunetik nabarmendu guran, zementuzko eraikin gris eta herdoilduekin borroka amaigabea. Txinatar jakien usaina airean, Belem-eko pasteltxoak dendetako erakuslehoak janzen, Anaia Handiaren begia txoko ezkutuenetan guztia grabatzen... Kantones berbak altu-altu, tabako kea eta kiratsa igogailuetan zerurantz; eta gizonak gizonekin apustu egitera, domeketako mezak katedral bihurtutako kasinoetan ospatuko balira bezala.

## Ibai-Arteren Magia Aldia bueltan da, doako erosketekin

Magia berriz itzuli da Arrasateko komertzioetara, eta ekainaren 14ra arte herriko komertzioetan erosten duten bezeroek doako "erosketa magikoak" izango dituzte zain. Dendetan magiarekin lotutako apaingarriak jarriko dituzte, eta *Magia festa* eguna antolatu dute maiatzaren 25erako, non askotariko ikuskizunak izango diren.

## Bainujantzi desfilea egingo du Sikol dendak hilaren 18an

Lehen aldiz Arrasaten, Sikol lentzeriak bainujantzi desfilea antolatu du. Maiatzaren 16an, osteguna, izango da, 18:00etan, eta modeloek Fantasi, Freya, Elomi eta Antigela marken bainujantzi bilduma berriak aurkeztuko dituzte. Horrez gain, kupoi bat betetzen duten ikusleen artean bainujantzi bat zozketatuko dute.



IMANOL SORIANO

## Arrasate Aurrera!-ren zerrenda

Taldearen aurkezpena egin zuen pasa den barikuan Arrasate Aurrera! herri plataformak. Maiatzeko hauteskudeei begira Ramon Ugalde zerrendaburuak adierazi du jende asko identifikatuko dela eurek imajinatzen duten Arrasaterekin: "Askok egingo dute bat gurekin. Herritarren interesak jarriko ditugu guztien gainetik".



# 1.137.000 euro, puntako laborategiak egiteko

MGEpk industria aurreratuko laborategi batzuk egin nahi ditu Gautxori esparruan, Trefasa zegoen tokian. 26.221 metro koadro dituen esparru horretan, Udalak %14ren jabetza du, eta dagokion proportzioagatik ekarpen hori egitea onartu dute

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Martitzenean egin zen 2015-2019 agintaldiko azken osoko bilkura, askorentzat agur kutsua izan zuena, eta eztabaida piztu zuen puntu bakarra Gautxori esparrua kudeatzeko hirigintza hitzarmena izan zen. Bertan, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak industria aurreratuko laborategi batzuk egin nahi ditu, eta horiek ekarriko dituzten onurak azaltzeko MGEpk koordinatzaile Carlos Garciak hartu zuen hitza, luze eta zabal. Besteak beste esan zuen, bailarak dituen oreka sozial eta ekonomikoan, eta baita izaera berritzailean, Mondragon Unibertsitateak "zerikusia" izan duela eta aurrerantzean "gizarte ekarpen hori egiteko" borondatea dutela. Misio horri jarraiki egin nahi dituzte industria aurreratuko laborategiak; bailarako enpresekin elkarlan estua izango dutenak, eta "Europako laborategi aurreratuenen parekoak izango direnak".

Garciaren hitz hartzearen ostean etorri zen alderdien arteko eztabaida. EAJko Anuska Ezkurak esan zuen "argi eta garbi" babesten dutela MGEpren planteamendua. "Gure ustez, era honetako ekimen publiko pribatuak ezinbestekoak dira herri eta etorkizun hobea erai-



Trefasa lantegia zegoen tokian egin nahi ditu laborategiak MGEpk. XABI GOROSTIDI

kitzeko. Badakigu gaiak Hirigintza batzordean tirabirak eragin dituela, baina alboan egotea tokatzen zaigu, hezkuntzaz, ikerkuntzaz, teknologiaz eta berrikuntzaz hitz egiten ari garelako".

EH Bilduko Eneko Barberenak esan zuen ez daudela MGEpren proiektuaren aurka, baina "hitzarmenarekin eta hori egiteko moduekin" ez daudela ados. "Hasieran, Tokiko Gobernu Batzordean onartu zenuten gaia, baina ez zen organo horren eskumena. Kontu hartzaileak

berak hitzarmenarekiko zalan-tzak azaldu zituen; uztailen eta abenduan. Gure ustez, babesa aurrerago eman diezaioke Udalak; proiektua garatuagoa dagoen fase batean, eta hauteskunde girotik kanpo". Baleiko Igor Urizarrek esan zuen "obra pribatu bat" ezin daitekeela arrasatear guztien diruarekin ordaindu. Horrez gainera, gaineratu zuen partzelaren %14ren jabe izateagatik Udalarri dagokion ekarpena "474.000 eurokoa" dela, eta "ez 1.137.000 eurokoa"



Itxaro Artola, Maider Morras eta Kepa Urteaga, asteazkeneko solasaldian. X. GOROSTIDI

## Herri eragileen ekarpena azpimarratu du EH Bilduk

Eragileen eta Udalaren arteko konfiantza "berreskuratu" nahi dute, "Arrasatek aitzindari izaten jarrai dezan"

**X.G.** ARRASATE

Kulturaren egindako solasaldi irekian, "azken lau urteetan herri eragileekiko harremanetan atzera" egin dela esan zuen Maider Morrased. "Lau urte hauetan ez da harreman ona egon, ez herri eragileekin, ez oposizioarekin, ezta udal langileekin; eta hori herriak igarri egiten du. Guretzako, eragileekin eta oposizioarekin harreman ona izatea eta akordioetara heltzea funtsezkoa da, azken finean, denok baikara mondragoetarrek".

**Euskara, feminismoa eta kultura**

Euskarekin lotuta, Udal Gobernuak Geike elkartearen jarduna kontrolatu nahi izana eta Euskara Sailak arduradunik gabe bi urte daramatzala salatu zuen Itxaro Artolak. Esku artean dituzten proiektuen artean, hauek aipatu zituen: euskara plan bat egitea eta Geikereren zereginak

definitzea, euskara zerbitzua indartzea, gazteentzako errefortzuak areagotzea eta Udalarentzat lan egiten duten enpresei euskara eskakizunak jartzea klausuletan.

Kultur taldeekin lotuta, dinamizazio zerbitzu bat jartzea defendatu zuen Kepa Urteagak: "Duela urte batzuk garbi zegoen taldeek lokal egokiak behar zenuztela, eta hala etorri zen erlojuaren eraikina. Baina zuen arteko harremanak sendotzeko eta zuen ekintzen difusioa hobeto egiteko dinamizazio zerbitzu bat beharrezkoa da".

Feminismoarekin lotuta, honako proiektu hauek aipatu zituen Maider Morrased: Emakume Txokoa Monterron Jaurigira eroatea, feminismoa eta hirigintza paraleloan uztartzea, eraso matxisten aurkako plana berritzea eta kiroldegi berriaren emakumeen kirolak lurpeko solairutik ateratzea.

## Ikasleak, baserriekin arduratuta

Herriko ikasleek *Agenda 21*-en baitan landutakoak zinegotzietan helarazi zizkieten martitzenean. Aurtengo gaia baserria izan da, eta, horrekin lotutako hainbat irteera eta azterketa egin ostean, baserri mundua laguntzeko proposamen sorta helarazi zieten. Horien artean, azoka plaza erakargarriago egitea eta baserriarren jakiak erabiltzea herri bazkarietan.



Arrasateko ikasle gazteak, zinegotzien aurrean, martitzenean. XABI GOROSTIDI

## OHARRAK

### Nagusien danborradarako jende bila

Beti Gazte elkarteak arrasatearrak animatu nahi ditu ekainaren 23ko danborradan parte hartzera. Entseguak maiatz bukaeran hasiko dituzte, astelehenean eta eguaztenetan, 20:30ean. Interesa dutenek, deitu: 688 82 36 94 edo 653 01 76 69.

### Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

### 'Zuztarrak errotuz'-en bigarren hitzaldia

Nafarroaren konkista eta sorginen ehiza Euskal Herrian hartuko dituzte hizpide Amaia Etxenausiak eta Iraitz Agirrek asteazkenean, hilak 15, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.



# Lapur taldea aske, 189 aktuzio jaso izan arren

Herriko lapurreta gehienak eragin dituen taldearen "inpunitatea amaitzeko", Gipuzkoako Fiskaltzari gutuna bidali dio alkateak. Hamasei laguneko taldea da, 16 eta 31 urte artekoak, Arrasaten bizi dira eta 189 aktuzio dituzte bizkar gainean

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Duela hilabete, Gipuzkoako Fiskaltza joko zuela iragarri zuen Udal Gobernuak, herrian lapurreta gehien eragin dituen lapur taldearen "inpunitatea amaitzeko". Hala, astelehenean, gutuna bidali zion alkateak, euren aurkako neurriak hartzeko eskatuz, eta lapurrek eragindako kalteei buruzko txosten bat ere bai. "Epaileen lanean sartzea ez zaigu gustatzen, baina alkate moduan ez dut beste irtenbiderik, Gutunaren helburua da Fiskaltzak neurriak azkarrago hartzea: kartzelara bidaltzeko, erreformatario batera bidaltzeko edo desintoxikazio zentro batera bidaltzeko".

Eguaztenean, txosten horretan batutako datuak eman dituzte aditzera Maria Ubarretxenak, Iñaki Arriaga udaltzainburuak eta Amaia Frontaura udaltzainburuordeak. Emandako datuen arabera, herrian lapurreta gehien eragin dituen taldea 16 lagunek osatzen dute: denak Arrasaten bizi dira eta 16 eta 31 urte bitartean dituzte. Emandako datuen arabera, taldeko kide guztiak dira berrerorleak, eta, guztira, 189 aktuzio dituzte bizkar gainean. "Taldeko batek 42 aktuzio jaso ditu, eta, hala ere, aske geratzen da epailearen aurretik pasa ostean. Gure esku dagoen guztia egiten dugu, baina inpotentzia itzela sentitzen dugu behin eta berriz aske geratzen direla ikusita. Kokoteraino gaude".

Behin eta berriz lapurretan egitera bultzatzen dituzten arrazoiei buruz galdetuta, zera adierazi du Iñaki Arriaga udaltzainburuak: "Batzuek drogekin arazoak dituzte, bai, baina ez denek. Beste batzuentzat, euren bizimodua ateratzeko bidea da; ez dute ez ikasten, ez lanik egiten, eta hortik bizi dira". Drogekin arazoak dituzten artean, askotariko drogak kontsumitzen



Amaia Frontaura, Maria Ubarretxena eta Iñaki Arriaga, txostena erakusten. X. GOROSTIDI

## KIDEETAKO BATEK 42 AKTUAZIO DITU, BAINA ASKE GERATZEN DA EPAILEEN AURRETIK PASA OSTEAN

dituztela aipatu dute, eta heroinarekin arazoak dituztenak horietako talde murriztu bat dela. Gaizkile taldeak ardura-dunik duen galdetuta, ondorengo azaldu dute: "Bi lagun dira taldeko buru. Horietako bat kartzelatik irten da duela gutxi, eta berriz eror ez dadin gaztea-gorenekin egiten duten orain lan zikina", azaldu du Arriagak.

### "Botere judizialak du giltza"

Herrian dagoen segurtasun faltaren ardura, hein handi batean, justiziarengan dagoela uste dute: "Botere judizialak dauka giltza. Hemen kontua ez da lapurrak ez ditugunik harrapatu, edo atxilotu. Guztiz kontrakoa: harrapatuak izan dira, atxilotuak izan dira, behin eta berriz, eta, hala ere, aske geratzen dira. Horietako batek 42 atxiloteta ditu, beste batek 25, beste batek

20... eta hurrengo egunean aske geratzen dira. Hori dela eta, eskatzen diogu Fiskaltzari, mesedez, neurriak har ditzala". Udal Gobernuak hartutako neurrien artean honako hauek aipatu ditu Ubarretxenak: "Hiru gutun bidali dizkiogu Jaurlaritzako Segurtasun sailburuari, epaitegietara joan gara eta epaileekin hitz egin dugu, baita gaizkileen abokatuarekin; eta orain, Fiskaltzara jo dugu".

### Delituak, 'in crescendo'

Gaizkile talde horren aurka egindako aktuzioek gora egin dute, haiek egindako delituek gora egin duten heinean. Igoera hori nabaria da, batez ere, azken hiru urteetan: 2014an 16, 2015ean 14, 2016an 13, 2017an 29 aktuzio, 2018an 70 aktuzio eta 2019 lehen bost hilabeteetan 51 aktuzio.

### Gaizkileak, aske

Zaila da ulertzen hainbat delitu bizkar gainean dituzten gaizkileak behin eta berriz aske geratzea. Horri buruz galdetuta, zera azaldu dute: "Hiru edo lau urte pasa daitezke gaizkile hauen aurkako sententzia irmo bat heldu arte, eta hori gehiegi da".



EAJko hautagaiak, astelehenean, Alfonsito X Jakintsua plazan. XABI GOROSTIDI

## EAJ, Grupo San Juanen oinezkoen lehentasuna ematearen alde

Alfonsito X Jakintsuan trafikoa kentzea eta gainontzeko aparkaleku guztiak egoiliarrentzat izatea nahi dute

**X.G.** ARRASATE

2017ko azaroan eman zuen Gobernuak aditzera Etxaluze eta Musakola bidegorriz lotuko dituen Ekoboulevard proiektuaren baitan Grupo San Juani eragin-goi lioketen neurri sorta. Astelehenean, ordea, neurri horiekin duten konpromisoa plazaratzeko agerraldia egin zuen EAJk. "Berriz aukeratzeko bagaituzte, lehentasuna emango diogu proiektu honi", azaldu du Maria Ubarretxenak.

### Proposamenak

Lehenik eta behin, Alfonsito X Jakintsua plaza oinezkoentzat bihurtuko litzateke, eta itxita geratuko litzateke trafikoarentzat. Erdian duen berdegunea, pixka bat hondoratuta dagoena, altxatu egingo lukete egun errepedea dagoen maila berera jartzeko, eta Biteriren estatua Biteri kalera -Aldedi pareko

belardira- lekualdatuko dute, Arrasate Zientzia Elkarteak eskatu bezala. Auzo horretako beste bi aparkalekuak -Iparra-girre eta Jose Maria Eguren plazakoak- egoiliarrentzat izatea ere planteatzen dute. Horretarako, egoiliarrentzako TAO sistema jarriko lukete, "Uribe auzoan dagoenaren modukoa". Horrez gain, Zaldibartik Maa-lako biribilgunera joatea ahalbideatzen duen errepedea -San Bixente Ferrer kalekoa eta erreka albotik doan pasabidea- itxi egin nahi dute trafikoarentzat, oinezkoentzako gune bihurtzeko. "Errekaren bi alboetara dauden guneak egoteko eta pasatzeko gune izatea nahi dugu, eta horietako batean, Etxe Txikien aldean, ur-txorrotadun parke bat jarri nahi dugu".

"Arkupeetan gune ilunak sortzen dira gauez, eta bertako argiteria ere hobetuko genuke".

## Laugarren 'Naturan Jolasean' eguna hilaren 18an

Naturarekin gero eta harreman gutxiago dagoela ikusita, hori balioan jartzeko festa eguna antolatu du Txatxilipurdik, Be-saide MErekin, Gaztetxe Haur eta Guraso Asanbladarekin, Udalarekin eta Leintz Eskola Kirolarekin elkarlanean. Maia-tzaren 18an izango da; Monterronen, nagusiki, baina ginkana, adibidez, Santa Barbaran.



Haurrak Monterronen jolasten. T.E.



# Sorian onenen artean egoteko presio barik

Arrasate Dragoi Taldeko gimnastak Espainiako Aerobik Txapelketan lehiatuko dira bihar. Iaz podiumera igo ziren, baina badakite Kataluniatik eta Valentziatik maila handiko taldeak etorriko direla: "Urteko hitzordu garrantzitsuena bilakatu da guretako"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeko Uxue Azkue –bakarka–, Naia Irazola eta Izaskun Garcia –binaka– eta Nora Marco, Sara Yan Azkarate eta Maider Agirreurreta –hirunaka– Espainiako Aerobik Txapelketan lehiatuko dira bihar, Sorian: "Entrenamendu saio ofiziala gaur [egubakoitza] izango dute. Aerobikean zoru berezia jartzen dute, biguna da, kolpeak leuntzeko, eta horretara ohitzeko eta ariketak praktikatzeko azken saioa izaten da egubakoitzekoa. Bihar, berriz, jardunaldiak luze joko du", dio Dragoiko ordezkari Edurne Elkorok.

Arrasateko neskak iaz podiumera igo ziren –ez da lehenengo aldia– eta aurten ere lan txukuna egiteko asmoz doaz, baina inongo presio barik: "Esperientzia aberasgarria da, eta neskak ederto pasatzera doaz, ez dugu gehiagorik behar. Aerobika duela gutxi hasi gara klubean praktikatzeko; Euskal Herrian oso modalitate ezezaguna da, baina gimnasia erritmikoarekin bateragarria da, eta horixe esaten diegu neskei, goza dezatela, euren bi modalitate egiten dituztelako, aurrean izango dituzten beste talde asko aerobikera bakarrik dedikatzen direla".

**Kontrario gogorak**

Valentzia eta Bartzelona aldean aerobikak askoz ere jarraitzaile gehiago ditu, eta talde sendoak dituzte han: "Egubakoitzeko entrenamendu saioa ikusi ahal izango da ze maila egongo den txapelketan, ordura arte ezinezkoa da eta ezer aurreratzen. Gure neskek aurrez prestatutako ariketa jakin batzuk egingo dituzte, jakinda, ariketa bakoitzak epaileen aurrean puntuazio konkretu bat duela. Hala, posible da zailtasun –eta puntuazio– handiko saio bat prestatzea, baina ondoren saioa ez bada



Uxue Azkue aerobikeko ariketa bat egiten. DRAGOI GIMNASIA TALDEA

## "EGUBAKOITZEKO ENTRENAMENDU SAIOAN IKUSIKO DA ZE MAILA EGONGO DEN SORIAN"

behar den moduan egiten, epaileek puntuazio txikia emango dute. Alde horretatik, posible da egubakoitzean ikustea beste talde batzuek ariketa zailagoak egin behar dituztela, baina gero, ondo egin behar dira horiek. Azken orduan aldaketak egiten ibiltzeak ez die neskei onik egiten, lasaitasunak eta konfiantzak ere asko balio du eta halako txapelketa batean".

Hala, Arrasateko klubeko ordezkari batzuek beste urte batzuetako esperientzia izango dute, baina, esaterako, Nora Marcok, Sara Yan Azkaratek eta Maider Agirreurretak debuta egingo dute Espainiakoan: "Patxadari eusteak balio handia du, eta entrenatzaileak badaki euretako bakoitzari zenbat eska diezaiokien. Dena dela, azken urteotan neskak oso ondo lehiatzen dakitela erakutsi dute".

## Bihar, Tolosan, Gipuzkoakoa

Gipuzkoako A eta B mailako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu dute bihar Tolosan. Dragoi taldeak, alebinetan, bakarka, Eider Vazquez eta Uxue Vicario lehiatuko dira; infantiletan, bakarka, Liyanis Alonso eta Miren Miguelez.

## Sanisidrotan erakustaldia

Domekan, berriz, Dragoiko gimnastek Musakolako kiroldegian erakustaldia egingo dute (11:30). San Isidro jaien barruan prestatutako hitzordua da, eta 5-14 urteko gimnastek urte osoan zehar egindako lana zaleen aurrean erakutsi ahal izango dute.

## Aire zabaleko denboraldian hasi dira lehenengo emaitzak batzen

Arrasateko atletek Sorian, Huescan, Anoetan eta Mojategin izango dituzte asteburuan hitzorduak

**X.U. ARRASATE**

Atletek dagoeneko hasi dute aire zabaleko denboraldia. Hala, Istar Dapenak bost metroko salto egin zuen joan den astean Euskadiko Kopan eta Inigo Uribarenek 15,21eko marka egin zuen. Ibai Fernandez, berriz, Castellon egindako unibertitate txapelketan, 100 metrokoan 11 segundoko markatik jaitsi zen (10.80), eta ez da marka makala, denboraldi hasiera dela kontuan izanda. Asteburuan, berriz, Real Sociedad taldeko lau ordezkari horiek Sorian lehiatuko dira

Ohorezko Lehen Mailako Liga saioan. Aipatu behar da Malen Ruiz de Azuak salto hirukoitzean 12,13 metroko salto egin zuela –Arrasateko errekorra–.

Bestalde, Huescan, lehenengo mailako Ligan Arrasate Kanpanzar taldeko hainbat atleta Bidasoako klubarekin lehiatuko dira, Arrasateko kluba filiala da eta. Eta Anoetan, Malen Ruiz de Azuak eta Maialen Axpeke ere txapelketa izango dute. Amaitzeko, domekan Mojategin egingo dute Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa.

## Mondrako Ohorezko gazteek, Euskal Ligara igotzeko finala

Klubaren historian lehenengo aldia da kategoria horretan maila gorenera igotzeko lehiak dabiltzala

**X.U. ARRASATE**

Mondrako Ohorezko Mailako gazteek, klubaren historian lehenengo, Euskal Ligara igotzeko aukera dute. Zuri-moreek liga ikusgarria egin dute eta euren multzoko onenak izan dira. Hala, beste multzoko liderraren, Oiarzunen, kontra dute Euskal Ligarako txartela jokoan, zapatuan, Zubietan (18:00).

**Multzoko onenak**

Zuri-moreak euren multzoko onenak izan dira, 30 partidutatik 20 irabazi eta bi berdinduta.

62 puntu eskuratu dituzte, eta bigarren sailkatuari 8 puntuko aldea atera diote. Zapatuko finalean Oiarzun izango dute zain, beste multzoko liderra, eta bolada izugarri onean dagoena –azken hamalau partidua jarraian irabazi dituzte–.

**Autobusa jarriko du klubak**

Halako partidu garrantzitsu baten aurrean klubak ahalegina egin, eta autobusa antolatu du biharko partidurako. Autobusa 16:30ean irtengo da, Garibaitik –2 euro; jokalariek, debalde–.

## Zikloturista taldea Kantabria aldera joango da ekainean

Debagoieneko Zikloturistak taldekoek Kantabriako parajeak aukeratu dituzte urteroko irteera egiteko. Hala, ekainaren 8an eta 9an Liernanes inguruko errepideetan 100 kilometroko etapa bana egingo dute, eta elkarteko kide ez direnek ere joateko aukera izango dute –50 euro–. Izena emateko: [debagoiena.tx.t@gmail.com](mailto:debagoiena.tx.t@gmail.com).

## Ekainaren 1ean Besaideko beteranoek irteera egingo dute

Donostiatik Oriora joango dira, eta lau orduko mendi irteera izango da –Kukuarritik pasata–. Gero, Zarauzko Kirkilla Jatetxean bazkalduko dute –bazkide eta federatuek 46 euro, bazkide ez federatuek 48 euro eta ez bazkide eta ez federatuek 52 euro–. ES11 3035 0001 5900 1013 3101 kontu korrontean egin behar da ordainketa –azken eguna, 23a–.



# Rock doinuek girotuko dituzte Musakolako jaiak

Gaur, egubakoitza, murgilduko dira jaietan, eta jai batzordeak egitarau "potoloa" prestatu du datozen bost egunetarako. Izan ere, nobedadea da musika emanaldiek –gaur eta bihar– berebiziko protagonismoa izango dutela

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Aste barruan aurkeztu du Musakolako jai batzordeak datozen bost egunetan jaietan izango duten egitaraua, eta, auzo alkate Iban Goñik adierazi duenez, ahalegin handia egin dute guztiondako hitzorduak antolatzen: "Beste urte batzuetan baino egitarau potoloagoa prestatu dugu, pozik gaude". Gaineratu du, baina, haserre daudela Udalarekin: "Gauzak antolatzeke orduan, erraztasunak baino gehiago, trabak jartzen dituzte, eta gu, azken batean, boluntarioak gara, ez gara halakoetara dedikatzen. Aurtengo karteletako irudian erakutsi dugu zelan sentitzen garen jai batzordeko kideak, ez da irudi soila".



Musakolako jai batzordea, aste barruan. GOIENA

**Gaur, Erretiratuen Eguna**

Jaiak Erretiratuen Egunarekin hasiko dituzte gaur: 19:30ean, erretiratuendako jai afaria izango da, Al-Andaluzen. Hala ere, gaztetxoendako hitzordu mordo egongo da egunean zehar –17:30ean, gazteendako merienda eta tailerrak izango dira gazte txokotan eta 19:00etan buruhandiak. Eta 22:30ean, bolo txapelketa egongo da –nagusien-dako-. Izena bolatokian bertan eman behar da.

**Zapatuan, Kuadrillen Eguna**

Bihar, ostera, Kuadrillen Eguna ospatuko dute. Eta hor, herri bazkariarekin batera –15:00–, motorren topaketak ere protagonismoa hartuko du, 16:00etan hasita. 18:00etan, berriz, San Isidro sokatira sari nagusia jokatuko dute.

**Domekan kirol hitzorduak**

Etzi, besteak beste, hainbat kirol topaketa izango dira: lauko eskubaloitza torneoa, 10:00etan; gimnasia erritmikoko erakustaldia, 11:30ean; eta trial erakustaldia, 16:30ean. Egitaraua, oso rik, *Goiena.eus* atarian dago.



Barbe-Q-Barbies taldeko kideak. 'BARBEQBARBIES.COM'

## Finlandiako Barbe-Q-Barbies gaur

Gaur, egubakoitza, Barbe-Q-Barbies taldea izango da hainbat taldek egingo duten rock kontzertuko burua. Finlandiako taldeak *Borrowed Time Tour 2019* izeneko bira hasi berri du –atzo bertan hasi ziren, Parisen, izen bera daraman diskoa aurkezten–. Hala, Frantziako hiriburutik Arrasatera etorrita, Musakolan izango dira gaur, 23:00etan. "Pozik gaude, gurean izango delako Euskal Herrian egingo duten kontzertu bakarra", adierazi du auzo alkate Iban Goñik. Finlandiarrekin batera Arrasateko Sindy Berbenas, Xementerio eta Krisis taldeek ere joko dute.

Zapatuan, Gazte Tour Ekimenaren barruan, Foru Aldundiaren laguntzarekin Arrasateko Udaleko Gazte Sailak kontzertua antolatu du Libertad Condiciona, La Basu eta Tribade taldeekin, 19:30ean. Lehenago, parkour ikastaroa izango da, 17:30ean.

## Oreka Quartet gaur, egubakoitza, Udaberri Musikaldiaren barruan

Udaberri Musikaldiaren barruan, bi emanaldi izango dira aste barruan. Batetik, gaur, egubakoitza, 19:30ean, Kulturaten, Oreka Quartet taldearen emanaldia izango da. Hari laukote hori Euskal Herriko instrumentista profesionalek osatzen dute, eta Espainiako eta Europako kontserbatorio inportanteenetan ikasitakoak dira. Iñaki Lagosek

–biolina–, Enrique Camposek –biolina–, Ainara Basagurennek –biola– eta Nuria Nietok –biolontxelo– osatzen dute laukotea.

**'Humanity at music' domekan**

Domekan, San Frantzisko elizan, 19:30ean, Arrasate Musikaleko Orkestraren, Goikobaluren, Goikobalu Txikiren eta Arizmendi Abesbatzaren emanaldia izango da. Kontzertu berezian, *Humanity at music* izeneko Mondragon esperientziaren soinu banda eskainiko dute.

## Literatur Lehiaketako sariak hilaren 16an banatuko ditu AEDk

Kulturaten egingo duten ekitaldian banatuko dituzte AEDko lagunek Literatur Lehiaketako sariak. Antolatzaileak pozik geratu dira aurtengo edizioak eman duenarekin, ohiko generoekin batera komikiak eta ilustrazioak ere gehitu dituztelako eta sariketarako erantzun ona izan duelako. Guztira, 187 lan jaso dituzte.

## Bihar, 'Rumble in Mondra'-ren bigarren edizioa egingo dute

Psychobilly Gauda egingo dute bihar Arrasaten. Batetik, gaztetxean –22:30, 5 euro–, Screammers and Sinners, Bartzelonatik etorritako Psycho Tendencias eta Zoltar taldeen kontzertua izango da. Ordu batzuk lehenago, 18:30ean, Craic Roll taldeak joko du, Iratin. Bestalde, domekan, gaztetxean, *Aukerak* izeneko lana egongo da ikusgai, 19:00etan.

**KUBARA BIDAIA**  
Arrasatetik

2019ko uztailaren  
20tik 31ra (10 gau, 12 egun).

Informa zaitez!

**BARNE HARTZEN DU:**

**Autobusa:**  
Arrasate-Loluko aireportua-Arrasate.

Linea erregularreko hegaldiak Bilbotik.

12 bidaia-egun / 10 gau:  
3 Habanan, 2 Cienfuegos, 2 Sancti Espiritusen eta 3 Cayo Santa Marian.

Zirkuitua bisitekin eta trekingekin, adin guztiendako.

Jatordu-erregimena, ibilbidearen arabera.

Aireportuko tasak / Sarrera-bisa.

Talde murriztuak.

Informazio gehiago:  
Erdiko kalea 16, Arrasate  
943 79 29 88  
Halcon99@halcon-viajes.es





Pedro Elozegi –ezkerretik, laugarrena–, ekitaldiko hizlariekin batera. JULEN IRIONDO

## Kuadrilla guztiek ahotsa izatea nahi du EAJk

Batzar Nagusietako barrutien banaketa aldatzeko nahia agertu zuten jeltzaleek hauteskundera begira Aramaion egindako ekitaldian. Ramiro Gonzalez ahaldun nagusi eta hautagaiak agintaldian "13.000 lanpostu" sortu izana nabarmendu zuen

### Julen Iriondo ARAMAIO

Foru hauteskundeetarako Lurralde Jareetako hautagaizako buru Pilar Garcia de Salazarrek agintaldiaren erreposoa egin zuen Aramaioko ekitaldian: "Gogor lan egin dugu pertsona nagusiek leku gehiago egoitzetan eta etxeko gizarte zerbitzu hobeak izan dituzten, Gasteiza joan beharrik gabe; eskualde mailako garraio publiko hobe izateko, maiztasun handiagoarekin eta ibilbide gehiagorekin; gazteek erraztasunak izan dituzten eskolako eta aisiadirako garraioan; gogor lan egin dugu herri eta industrialde guztiek izan dezaten banda zabala, landagunean aktibitatea eta garapena sustatuz; suhiltzaile zerbitzu integrala edukitzeko, edonora 25 minutu baino gutxiagoan iritsiko dena; tokiko finantzazioa eta Obra eta Zerbitzuen Foru Plana hobetzeko, herrietako bizitza kalitatean aurrera eginaz; eta, noski, Trebiñu gero eta gehiago izan dadin Araba, arabarrak direlako".

Ramiro Gonzalezek, berriz, adierazi zuen Arabak ez duela "estremismorik" nahi, "ez alde batekorik ez bestekorik", eta hau gaineratuta: "Arabak elkarriketa, akordioak, moderazioa, kudeaketa ona eta emaitzak nahi ditu; hori da gure eredua, EAJ-ren eredua".

Araba duela lau urte baino "askoz hobeto" dagoela adierazi zuen: Garoña itxi zela; 13.000 lanpostu sortu dituztela; enpresak berriz ari direla herrialdean inbertitzen eta kokatzen; "hegoak moztu nahi" izan dizkioten Foronda indartu dutela, bidaiariarentzako hegaldi erregularrekin, karga gehiagorekin, 24 orduko zerbitzuarekin eta "laster" izango duten terminal berrituarekin.

**MODERAZIOA, KUDEAKETA ONA ETA EMAITZAK NAHI DITU ARABAK, GONZALEZEN ARABERA**

Forondak "etorkizuneko euskal aireportu handia" izan behar duela gaineratu zuen.

Helburu gehiago ere jarri zituen. "Beste 10.000 lanpostu" sortzea, adibidez. Landaguneetan aktibitate ekonomikoa bermatzea eta haietako biztanleria berreskuratzea ere, jomugan; 100 milioi euro iragarri zituen eskualde mailako errepideak hobetzeko, eta hitz eman zuen lan egingo dutela herri guztiek, kuadrilla guztiek, izan dezaten ordezkaritza Batzar Nagusietan, egungo barrutien banaketa aldatzeko urratsak eginaz.

### Udal hauteskundeak

Hizlarien artean ez, baina ekitaldian izan zen, baita ere, Pedro Elozegi, EAJren Aramaioko alkategaia. Zerrenda osatzen dutenak dira: Juan Antonio Peña, Pilar Garcia de Salazar, Unai Grajales, Vicente Mondragon, Maria Pilar Beitia, Mercedes Mondragon, Francisco Javier Aiastui eta Jonatan Moreno.



Zerrenda osatzen duten pertsonak, ordezkoak ere tartean. EH BILDU

## Hauteskundeetarako osatutako zerrendarekin pozik da EH Bildu

Adierazi dute "herri bizitzan, esparru desberdinetan, parte hartzen duen jendea" izatea izan dela irizpide bat

### Julen Iriondo ARAMAIO

Lierni Altuna, Santiago Balantzategi, Ana Maria Martiarena, Iban Herrarte, Gorka Astondoa, Kristina Etxenautia, Oihana Ameskua, Jon Ortueta eta Monika Landaluze dira udal hauteskundeetarako EH Bilduren zerrenda osatzen dutenak.

Koaliziotik adierazi dute "genero ikuspegia" errespetatu nahi izan dutela, batetik, eta alde horretatik ondo geratu dela zerrenda. Horrekin batera, "kale-tarren eta auzotarren" arteko oreka ere bilatu dute, azaldu dutenez: "Hori ere ondo irten da; zazpi auzotar eta bost kale-tar daude [ordezkoak aintzat hartuta]". Zerrenda osatzeko azken irizpide moduan, Aramaioko "herri bizitzan, esparru desberdinetan, parte hartzen duen jendea" izatea nahi zutela azaldu dute: "Horrekin ere pozik gaude; aniztasuna badago, ba-

tzuek ikuspegi sozialagoa dute, beste batzuk ingurumen eta baso kontuetan ibili izan dira... denetik dago. Eta inportanteena, herriko jendea dela, jende eza-guna, gertukoa eta lanerako prest dagoena".

Alkategaiari dagokionez, berriz ere Lierni Altuna proposatzea "aho batez" hartutako erabakia izan dela azaldu dute: "Jendeak oso ondo ikusten du Lierniren lana". Amaitzera doan agintaldiaren balorazio baikorra egin du EH Bilduk.

Arabari eta foru hauteskundera begira, berriz, EH Bilduk dio udalherri txikiarentzako potentzialitate handia duela Aldundiak: "Hor erabakitzen dira gauza asko, laguntza asko etortzen dira Aldunditik –Foru Planaren ingurukoak eta–. Hori ondo kudeatzea inportantea da, eta EAJren kudeaketan badaude hutsune batzuk".

### Aramaioko hiru bertsolari biharko Eskolarteko finalean

Legution ariko dira Aitor Ugarte, Martin Abarrategi eta Danel Herrarte, Aroa Arrizubieta, Beñat Cano eta Eli Zalduarekin batera. Bertsoa Bizi Gazte lehiaketako bideo klip emanaldia izango da 11:00etan, eta 12:00etan saioa. Hilaren 17an, berriz, Aramaion izango da Gorbeialdeko bertsolari gaztetxoaren topaketa –17:30ean, kultura etxean–.

### OHARRAK

#### Eskalada ikastaroa

Lehen hezkuntzako umeentzat, bihar eta hurrengo zapatuan, 10:30ean, frontoian.

#### Pilota, domekan

Gorbeialdeko lagun arteko topaketa, 10:30ean frontoian.

#### 'Dantza' pelikula

Duela aste batzuetako arazo teknikoaren ostean, domekan emango dute, 19:00etan.

# "Kritikoa den hori ere konbentzitu gura dugu"

**XAVIER SUREDA** 'LA REVOLUCIÓN NATURAL' DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA  
Duela urtebete estreinatu zuten dokumentala, eta asteon Aramaion izan dira zuzendaria eta protagonista, Lorabari Asteon, proiektuaren gainean berba egiten

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

25 elkarrizketatan oinarritutako dokumentala bi zatitan banatuta dago, eta asteon lehenengoari buruz aritu dira. Fitoterapia eta medikuntza integratiboa dira proiektuaren ardatz nagusiak, baita negozio farmazeutikoa ere. **Urtebete da estreinatu zenutenetik. Nolako izan da harrera?**

Oso ona. Leku askotan egon gara, eta jende ugari etorri da. Baina etortzen den jende gehiena dagoeneko konbentzitu dagoen jendea da. Gure asmoa da jende berria erakartzea eta gai hauetaz konbentzitzea, baita kritikoa den hori ere. Izan ere, dokumental zorrotz bat egiten saiatu naiz, eta esaten den guztia adituaren esanetan konfirmatzen, inork ez dezan pentsa gezurretan ari garenik. **Zuri ere ikasteko balioko zizun esperientzia honek...**

Bai, noski. Asko ikasi dut, eta oso pozik nago. Egia da nik uste baino denbora gehiago behar izan dugula, baina oso aberasgarria izan da, niretako, jende interesgarri asko ezagutu dut. Amak behin eta berriz esan izan dit ea noiz bukatuko nuen dokumentala, oso astuna izan naitzela. Erantzun diot astuna izaten jarraituko dudala aurrerantzean ere, landare sendagarrien eta fitoterapiaren alde lanean jarraituko dudalako konbentzimendu osoz.

**Iraultza naturala dio tituluak. Iraultza hori gertatu da dagoeneko, ala gertatzeaz dago?**

Alde batetik, alde naturala lantzen duelako jarri nion izenburu hori, landareak, eta abar. Baina, bestetik, naturalki gertatu beharko litzatekeen iraultza dela uste dudalako ere bai. Hainbeste kimikaren ondoren, naturara itzultzea beharrezkoa da. **Motibazio batek kontzientzia aldatzea bat eragiten duenean, osasunean eta elikaduran ahalduntzeko. Laneko esaldi nagusia da.**



Xavier Sureda, kultura etxearen kanpoaldean. JULEN IRIONDO

**"JENDEA OHARTZEN ARI DA EZIN GARELA HAINBESTE MEDIKATU, ETA GEHIAGO ZAINDU BEHAR DUGULA"**

Motibazio baten beharra duzu kontzientzia aldatzeko. Josep, adibidez, motibazio baten ondorioz hasi zen landare sendagarriekin lanean. Probatzen hasi zen, eta ikusi zuen osasunerako onurak zekartzala. Ahalduntzearen ideia asko erabiltzen ari da azkenaldian, eta nik uste garrantzitsua dela ahalduntzea, gure osasunaren agintea guk geuk hartzea. Horretarako informazio erreminta bat da dokumentala. Jendeak, zenbat eta informatuago egon, orduan eta erabaki gehiago hartu ditzake. **Gizarteak nahikoa kontzientzia dauka arlo honetan?**

Geroz eta gehiago. Ni ez naiz aditua, ezagutzaren igorle bat baizik, baina egia da jendea konturatzen ari dela ezin garela hainbeste medikatu, medikamentu farmazeutikoei albo-efektuak dituztela, eta gehiago zain-

du behar dugula. Gizarteak oso gaizki jaten du eta elikadura gaixotasunen iturri nagusiengatikoa da. Transgenikoak, pestizidak eta abar gu gaixotzen ari dira. Ez da kasualitatea horrenbeste minbizi, diabetes, eta abar egotea.

**Negozio farmazeutikoa ere bada dokumentalaren ardatzetako bat.** Dokumental positiboa egitea zen nire asmoa, eta ez hainbeste farmazeutikoei kritika egitea. Baina negozio farmazeutikoa hor dago, eta hori ere ikusarazi egiten behar dugu.

## Asteburuko ekintzak

Gaur, egubakoitza, erlezaintza ikastaroa egingo dute, Aldeko eztegien, 17:30ean. Bihar, zapata, Lorabari Azoka eta bigarren eskuko azoka egingo dituzte, Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etatik 14:00ak arte, askotariko produktuekin.



NIRE USTEZ

XABI IGOA

## 82 urte

Azoka egun bat, astelehena noski. Postuak atontzen hasita zegoen jendea: zerbak hemen, tipulinak harago... ganadua ere hasia zen marruka, eta tabernetan kafe usaina zegoen, bazen arrautza pareta gosaldutuen ere. Umeak eskolara zihoazen, bidea egin heinean jolasteko aukera probesten zutelarik. Eskolako ataurrean hamar bat neska-mutiko kanikekin jolasten ari ziren. Urak, denboraren joanaz, lurrean eginiko zuloak nork kanikekin lehenago beteko mugitzen zituzten hatzak, zetorkienaren metafora bat eraikitzen ari zirela jakin gabe. Zer den haurren inozentzia...

Picassok irudikatu zuen ondoren etorri zena, *Markak* dokumental musikatuak jarri zion doinua, hamaika testigantzek hitza, horrenbeste begiradek hitz horiei zilegitasuna...

Gernika. Horrelako zerbait izan zitekeen, edo ez.

Ekarpenok errailetaraino sartuagatik ere, bizi izan zutena haratago joan zenaren sentsazioa ezin gainetik kendu nabil. Eta pasa diren arren 82 urte jada, bere ostetik etorri dira: Gaza, Bagdad Alepo... Ez dugu ikasten edo ez dugu ikasi nahi.



ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

## Olaizola nagusi Matienan

Julen Olaizolak eta Ioritz Arbaizak –Orozkokoa– irabazi dute Matienako pilota txapelketa; Unai Amiano –Tolosa– eta Amets Uzkudun –Alegia– izan zituzten kontrario, eta 2-10 galtzen joan ziren. Olaizolak eta Arbaizak, baina, pilota astunago bat atera eta 11na berdindu zuten. Bigarren zatian nagusi izan, eta 22-15 irabazi zuten finala.

## Gorbeialdeko dantzari topaketa egingo dute bihar Aramaion

17:30ean hasiko da, eta dantzariak plazatik kalejiran igoko dira frontoira. Eguraldiak laguntzen badu, frontoi kanpoan egingo dute; bestela, barruan. 180 bat dantzari bilduko dira, Zuiako dantzariak, Oketa Alaia, Bida-barri, Triskari eta Lagun Artean taldeetakoak. Bukatzeko, zuzeneko musika eta dantza saio gidatua egongo da guztientzat.

## Gaur banatuko dituzte Txirritolaren ipuin lehiaketako sariak

17:00etan hasiko da saioa, kultura etxean. Lehenik, bi taldetan banatuko dituzte ikasleak, eta Aitor Martinezek eta Ane Gebarak ipuin kontaketa bana egingo dute talde bakoitzarekin –20-25 minutukoak–. Kontaketa bukatutakoan ekingo diote sari banaketari. 80 bat ipuin aurkeztu dituzte, txikienek talde-lanean egindako ipuinez gain.



# Drogen bueltan hiru eguneko saioa ekainean

'I(nk)lusioa: esnatu, mugitu, ausartu eta erabaki' leloarekin jardunaldia egingo dute Donostian, UDAk eta San Juan de Diosen antolatuta, udalekin elkarlanean; 15 urteko ikasle guztiak gonbidatu dituzte, eta hainbat adituren hitzaldiak izango dira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Bi urte beteko dira UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak drogen gaineko proiektua abian jarri zutenetik, eta ekainean beste pauso bat eman gura dute. Hiru eguneko jardunaldia antolatu dute Donostian, Bentaberri kiroldegian, *I(nk)lusioa: esnatu, mugitu, ausartu eta erabaki* leloarekin.

**15 urteko ikasle guztiak deituta**

Eskoriatzako eta Aretxabaleta-ko 15 urteko neska-mutiko guztiak eroango dituzte ekainaren 5ean, 6an eta 7an Donostiara. Eta hainbat kirol jarduera egingo dituzte Bentaberriko kiroldegian: areto futbola, petanka, saskibaloia eta boleibola, besteak beste. Egun bakoitzean sariak banatuko dizkiete, gainera, kirolari ezagunek. Egun osoko jardunaldiak izango dira: "Kirola egiteaz gain, hausnarketa tailerrak ere izango dituzte gazte horiek", adierazi du Agurtzane Elkorok, UDAko presidentea.

Ekainaren 7an, ostera, hainbat adituk bideratutako hitzaldi bi izango dira. Batetik, Islandiara eraldaketa ekarri zuen proiektuaren berri emango du Patricia Ros psikologoak: "Islandiako proiektua Espainian eta Hego Amerikan abian jarri duena da, *Planet Youth* izenekoa, hain zuzen ere". Drogen prebentzioaren lanketa izango du berbetarako gai, komunitatearen ikuspegitik. Eta bestetik, Marta Torrens psikiatrak sustantzien kontsumoaren eta patologia dualen gainean jardungo du. Gurasoak, entrenatzaile eta hezitzaileak eta prebentzio arloetan diharduten teknikariak gonbidatu dituzte horietara. Horretarako, izena eman behar da: [inklusiona@gmail.com](mailto:inklusiona@gmail.com).

**Liburu zuria irailan**

Jardunaldi horren ondorioak liburu zurian jasoko dituzte:



Udal teknikariak, UDAko ordezkariak eta San Juan de Diosen medikuak. SAN JUAN DE DIOS

"Kirola eta gaixotasun dualak landuko ditugu liburu horretan, jardunaldiaren ondorioak jasoko dira. Eta irailan UDAko jokalarien artean zabalduko dugu; gero, familiei ere eskainiko diegu, seguru asko", dio Elkorok.

Ekimen honetan bi herrietako udalen laguntza izan dute UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak, baita Debagoieneko hainbat enpresaren babesa ere; besteak beste, Copreci, Fagor eta Mon-dragon Assembly.

## "Hamasei gaztek laguntza eskatu izana handia da"

**AGURTZANE ELKORO** UDA-KO PRESIDENTEA

Ilusio handiarekin dabil lanean proiektu honen bueltan.

**Pozik proiektuak orain arte eman duenarekin?**

Pozik baino gehiago, bete-bete eginda. Abian jarri genuenetik hamasei gaztek laguntza eskatu izana izugarria da. Gehiago egiterik izango bagenu...

**Hiru urteko proiektua da?**

Bai; lehen urtean, jokalariekin landu genuen; bigarren, jokalariez gain, gurasoekin; eta



GOIENA

hirugarrena izango da jokalariekin, gurasoekin eta gizartearekin, Aretxabaleta-ko eta Eskoriatzako bizilagunekin. Seguru asko, beste bat egingo dugu, geu autonomoak izaten ikasteko, San Juan de Dios ospitalekoen laguntza barik. **Ikastexetara ere jo duzue...**

Bai, eta ateak zabalik topatu ditugu. Aukera polita eskaini diegula eta aprobetxatzen dabilta.

## "Beharrezkoa da elikagai taldeak ondo ezagutzea"

**ANDERE ETXABE** DIETISTA-NUTRIZIONISTA

Elikaduraren gaineko hitzaldiak eskainiko ditu

**M.A. ARETXABALETA**

Atxabalta Mugik antolatuta, elikadura osasuntsua izango du berbetarako gai hilaren 14an eta 28an, kiroldegian (18:00).

**Zer da elikadura osasungarria?**

Elikagai osasuntsuen bitartez pertsonaren nutrizio-beharrizanak eta energetikoak betetzea organismoaren ongizaterako.

**Zer da bai ala bai jakin beharrekoak sukaldean dabilen batek?**

Elikagai taldeak –barazkiak, frutak, proteina osasuntsuak, zereal osoak, esnekiak...– ezagutzea beharrezkoa da konbinaketa egokiak egiteko. Noski, elikagaiak prestatzeko moduak ere garrantzi handia du.

**Zer da real food delakoa?**

Benetako janariak jatean oinarritutako bizi estilo osasuntsua da. Elikagai freskoak –barazkiak, frutak, zereal osoak, lekaleak...– elikaduraren oinarri izatea, gaur egun oso eskuragarri ditugun jaki prestatuak, ultraprozesatuak, alde batera uzteko.

**Elikadura piramideak aldatetako izan ditu?**

Elikaduraren inguruko gomen-dioak hobetu egin dira; piramidearen oinarrian benetako jakiak –barazki, fruta, zereal osoak...–



Andere Etxabe. ANDERE ETXABE

agertzen direlako ariketa fisikoarekin batera, eta elikagai ez osasuntsuak –alkohola, gozoak...– piramidetik kanpo. Funtsean, *real food*-a bizi estilo osasuntsu horretan oinarritzen da.

**Elikagaien etiketak dioena jakitea garrantzitsua da?**

Bai, jaten diren jaki prestatuen osagaiak eta nutrizio-ezaugarriak jakiteko; baita datu horiek interpretatzen jakitea ere: elikagai edo jaki osasuntsuen eta ez osasuntsuen sailkapen egokia egiten lagunduko digu eta, hala, erosketak egiterakoan lana erraztu.

## Erretiratuen Eguna ospatuko dute bihar Ibarra kiroldegian

Bazkaltzeko elkartuko dira herriko erretiratuak bihar, maiatzak 11, Udalak antolatu dien egunean (14:00). Ibarra kiroldegian egingo dute bazkari hori, udal ordezkariak lagun eginda, eta ondoren, gura beste dantzan egiteko aukera izango dute, AZ Gaubelak DJ talde aretxabale-tarrak girotuta.

Iaz berreskuratu zuten ospakizun egun hori, hainbat urtetan egin barik egon ondoren, eta harrera beroa egin zieten herriko erretiratuek. Basotxoko kideak pozik daude iazkoak eman zutenarekin; izan ere, 160 lagun inguru elkartu ziren. Aurten, are eta festa handiagoa izan dadin gura dute.

## OHARRAK

### Odol ateratzea

Odola ateratzea etorriko dira hilaren 15ean, eguaztena; Durana kalean izango da autobusa (16:45-20:00).

### Alzheimerra berbagai

*Alzheimerrarekin elkar-bizi* hitzaldia eskainiko dute, Basotxon, Afagiko presidente Koldo Aulestiak eta elkarteko kide Antton Elosegik maiatzaren 15ean (17:30).

### EAJkoak Basotxon

Basotxo erretiratuen elkarteak gonbidatuta, EAJko ordezkariak izango dira gaur, egubakoitza, elkartean bertan (16:00). Herriko hainbat gairen gainean galdetuko diete eta solasaldia egingo dute haiekin.



Aretxabaleko EAJko udal hauteskundeetarako taldea, Bakartxo Tejeria eta Aintzane Oiarbide. TXOMIN MADINA

## Udal hauteskundeetarako taldea aurkeztu du EAJk

Talde "sendoa, umila, anitza eta eraginkorra" osatu dutela diote, eta Aretxabaleta hobe baten alde "garbitasunez eta zintotasunez" jarraituko dutela, "herritarrei entzun eta herriko beharrei erantzuten". Unai Elkoro izango da alkategaia

**Aitor Agiriano** ARETXABALETA

Eguaztenean egin zuen Aretxabaleko EAJk maiatzaren 26an izango diren udal hauteskundeetarako taldearen aurkezpena.

Unai Elkoro alderdikideak, Debagoieneko EAJren alkategaia, Bakartxo Tejeria eta aretxabaletarren izan ziren Durana kalean egin zuten ekitaldian.

"Lau urte hauetan ilusio handiz, Aretxabaleta hobe bat helburu izanik eta bestelako politika bat posible dela erakutsiz aritu gara denontzat lanean", aipatu zuen Elkoro. Eta gaineratu zuen ohore handia dela hori berrestea: "Ilusio handiz heltzen diot erronka berriari, datozen lau urte hauetan aretxabaletarren alkate izateko erronkari", hain zuzen.

Erronka berri horri, baina, ez dio bakarrik helduko eta Elkoro berak aurkeztu zuen bide-lagun izango duen taldea: Unai Elkoro, Karmele Uribarri, Xabi Otxoa, Ainhoa Cabero, Koldo Zubillaga, Alex Seiler, Pili Lea-

nizbarrutia, Javier Mar, Pili Gorostiaga, Iñaki Astiazaran, Nerea Garcia, Juanjo Pereira Mari Carmen Hermosa, Mikel Uribebarria, Joxemiel Uribarren eta Arritxu Oliden.

"Taldea anitza osatzen dugu, bai adinean, eta baita lanbideetan ere. Eskarmentu handiko jendea gehiena, diziplina ezberdinetakoak, batzuk administrazioan aritutakoak eta berriak beste asko, baina helburu berekin: Aretxabaleta hobe bat eraikitzea". Ilusioz beterik datoz eginkizun horretarako, eta, Elkoroaren esanetan, "ohore handia" da osatu duten taldearen buru izatea.

Aurki, herritarrei entzunda azken urteotan herriko beharrei

**"MODU ARDURATSUAN LAN EGITEN" JARRAITUKO DUTELA ADIERAZI DUTE EAJ-KO KIDEEK**

erantzuna emateko landutako programa aurkeztuko dute: "Ez gara ideia edo kerik saltzen ari, gauzatu daitezkeen proiektuak baizik: hobekuntzak adineko pertsonendako zerbitzuetan, nerabe eta gazteentzako ekimenak, aisialdi eta kirolerako espazioak handitu, herriko irisgarritasuna hobetu eta Aretxabaleta herri are biziago bihurtzea", besteak beste.

Hala, aipatu zuten hemendik aurrera ere "sektarismo gabe" aretxabaletar guztientzat lanean arituko direla, hurbiltasunez eta gardentasunez, orain arte aritu diren moduan.

**Bakartxo Tejeriaren hitzak**

Herri batentzako garrantzitsua dena lortu dutela aipatu zuen Tejeriak: "Elkarbizitza baketsu bat, eta horren harira erantsi, legealdi honetan inposizioaren kulturatik elkarriketaren kulturara pasatzea, herritarren nahiak kontuan hartzea lortu da Aretxabaletan".



Gaztetxoak animaliekin jolasean, 2018ko Otala Zelai egunean. MIRARI ALTUBE

## Otala Zelai eguna ospatuko dute domekan Aozaratzako zelaian

Lasterketak, trikitaliak, animaliak, dantza saioa, paella lehiaketa eta euskal disko festa, denen gozagai

**Aitor Agiriano** ARETXABALETA

Domeka honetan ospatuko dute aretxabaletarrek Otala Zelai eguna, eta egitarau zabala prestatu dute jaieguna ospatzeko.

Goiz partean –udalbatzako kideak eta auzo alkateak ere gonbidatuta daude–, mugarriak berrikusteko mendi buelta egingo dute. Egunerako prestatutako egitarau ofiziala, baina, haurrentzako lasterketekin hasiko dute, eta, parte hartzaileen adinaren arabera, modalitate ezberdinak egongo dira: benjaminen 500 metro, alebinek 1.000 metro eta infantilek 1.500 metro egingo dute arineketan. Neskek eta mutilak bereizita egingo dute lasterketa. Jarraian, 11:00etan, helduen lasterketa abiatuko da.

Behin lasterketak amaituta, erromeriari emango diote hasiera: umeek animaliekin jolasean aritzeko aukera izango dute

13:00etan, eta, ordu berean, herritarrek eta herriko elkarteek eginiko paella lehiaketa ere izango da. Horrez gain, sagardo dastatzea, herri bazkaria eta Leizarra Musika Eskolako eskutik trikiti doinuak eta dantza saioa ere izango dira. Eguna borobiltzeko, euskal disko festaz gozatuko dute bertaratutakoek.

Eguraldi txarra eginez gero, erromeria Iturrigorri pilotalekuan egingo dute eta paella lehiaketa bertan behera geldituko da.

**41. Otala Zelai krosa**

11:00etan, Joseba Mardo omen-  
duz, 41. herri krosa egingo dute, Urkuluri itzulia eginez. Hiru kategoriatan banatuko da lasterketa nagusia: mutilak, neskek eta bikote mistoak, hain zuzen ere. Ondoren, sari bana-keta ekitaldia egingo dute, 12:30ean.

Jou Díaz  
Harakina  
Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENZA  
ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA  
Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



David Agirre aretxabaletarra, gaur aurkeztuko duen *Camina despacio, muy despacio* liburuaren alboko duela. MIRARI ALTUBE

## Bost idazle plazan gaur, euren lanen berri ematen

Elkartuko dira David Agirre, Luis Jose Errasti eta Monika Madinabeitia aretxabaletarrak, Josune Murgoitio arrasatearra eta Angel Mario Fernandez soraluzetarra; oraintsu argitaratutako liburuak erakutsiko dizkiete herritarrei eta sinatzen jardungo dute

### Mirari Altube ARETXABALETA

Apirilaren 23an izandako Liburuaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, Debagoieneko bost idazleek –horietako hiru aretxabaletarrak– euren lanen berri emango dute gaur, maiatzak 10, Herriko Plazan (18:00-20:30). Azken nobedadeak aurkeztuko dituzte, orain arte argitaratutako liburuak erakutsi, horiek sinatu eta irakurleekin kontu-kontari jardun.

### Hainbat gai hizpide

David Agirrek bigarren liburuaren aurkeztuko du: *Camina despacio, muy despacio*. Hainbat gai landu dituela hor dio: "Harrokeria, apaltasuna, diru-gosea, politika... Liburu hau irakurtzeak ibilbide bat egitea dakar, eta, horren bidez, irakurlearen jakin-mina piztuko duen ikuspuntua aurkituko du". Agirreren bigarren liburuaren da; aurretik, *Triángulos en la cueva* argitaratu zuen, orain dela hiru urte, hain zuzen ere.

Luis Jose Errastik, osterara, orain dela urte pare bat argitaratutako *Altruista* liburuaren berri emango du, Jokin izeneko gazte baten gorabeheren gainekoa, hain zuzen ere, eta politika eta ustelkeria jaso ditu.

Angel Mario Fernandez soraluzetarra iaz irailean argitaratutako *Che Aitona! Las palabras enterradas* lanaren laugarren edizioarekin dator. Espainiako gerratik ihesi "amestutako lurraldera" ailegatuko den gazte euskaldun baten bizipenak kontatu ditu: "Eta haren iloba aitona jaioterrira etorriko da, gerran gertatutakoa jakin nahian". Argentinan jaiotako idazleak dio arlo pertsonaletik ere baduela liburuak.

**LIBURU HORIETAKO BATZUK LABETIK ATERA BERRIAK DIRA ETA HERRITARREI ERAKUTSIKO DIZKIETE**

### Emakumeen gaineko istorioak

Josune Murgoitio arrasatearrak ere bigarren liburuaren argitaratu du: *Viaje Turquía. Mujeres en Marmaria, Estambul y Diyarbakir*. "Egiazko gertaerak jaso dira liburuan, bidaiako egunerokoa kontatzen da. Ohiko ibilbideetatik urrun, eta jendetza dagoen lekuetatik aldentuta herrialde horretan bizi den benetako egoera islatzen du". Idazleak berak Turkiako hainbat parajetan bakarka egindako bidaiaren nondik norakoaren berri ematen du: Egeo turkiarra, Istanbul, Diyarbakir...

Huheziko irakasle Monika Madinabeitia aretxabaletarrak *Petra, my Basque Grandmother* liburuaren aurkeztuko du: "Emakume migratzaileen istorioa jaso dut. Ingelesez idatzita dago, baina modu errazean". Markinan jaio eta Ameriketako Estatu Batuetara bizi izatera joan zen Petra Amoroto Egañaren gainekoa da eta Yera Sanchezek eta Maitane Pueblak ilustratu dute hori.



M.A.

## Asfaltatze lanetan dihardute

Atzo, eguna, hasi zituzten Errekabarren kaleko asfaltatze lanak, eta, ondorioz, atzo eta gaur itxita egongo da kale hori autoendako. Inguruko garajeetara Mitarte kaletik jo beharko dutela autoek jakinarazi die Udalak. Bestetik, kale horretan dagoen autobus geltokia ez da erabilgarri egongo; Txarapeatik joango dira autobusak eta Lausittan geratuko dira.

### Udal tramiteak erraztu gura dituen 'AretxabaletApp'

Telefono mugikorretarako aplikazio den *AretxabaletApp* gartu dute, herritarrei udal tramiteak errazteko; besteak beste, zerbitzu hauek eskaintzen ditu: agenda, guardiako farmaziak, ibilbideak eta albisteak. Udal instalazioen erreserba ere egin daiteke bertatik: gelak, pilotalekua eta bestelako lokal batzuk.

Android zein iOS telefonoetan instala daiteke eta debalde da. Aplikazioaren helburua da klik bakarrarekin herritarrek informazioa eskura izatea, eta tramiteak era erosoan egin ahal izatea. Herritarren "parte-hartzea sustatu" gura da, iritziak jaso eta inkestak egin ahal izango dira eta.

### OHARRAK

#### Zinegoak emanaldia

Zinegoak 2019 LGTB zinema jaialdiko sei film labur emango dituzte maiatzaren 16an (19:30), Arkupen, Berdintasun Sailak antolatuta.

#### Gitarra emanaldiak

Gitarra ikasleen emanaldiak izango dira datorren martitzenean, hilaren 14an, eta eguaztenean, 15ean, Arkupen (18:00).

#### ALEn ate irekiak

Aretxabaleta Lanbide Eskolak ate irekiak egingo ditu maiatzaren 15ean, eguaztena (18:30). Goi eta erdi mailetako zikloen berri emango diete gazteei. Aurrematrikulazio epea ekainaren 3tik 14ra da.

### Craic'n'Roll taldearen rock doinuak gaur, egubakoitza, Arkupen

Irlandatik datozen Donna Marie Dunne abeslari esanguratsua eta Philip Doyle musikari handiak osatzen duten Craic'n'Roll taldeak kontzertu akustikoa eskainiko du gaur, maiatzaren 10a, Arkupen, 22:00etan –sarre 4 euro da–. Irlandar folklorea eta rock-and-rolla, countrya eta pop doinuak aldean hartuta etorriko dira, umorea lagun.



Dunne eta Doyle. CRAIC'N'ROLL





Astlehenean, Gorosarri plazako ekitaldian, Eskoriatzako EAJko zerrenda-kideak, Egibarrek eta Arrizabalagarekin. IMANOL BELOKI

## Erronkari ideia eta asmo sendoekin heltzea helburu

Eskoriatzako EAJk datozen udal hauteskundeetara begirako zerrenda aurkeztu du. "Herritarrei entzuten jarraituz, zintzoa eta umila, lan egiteko gogoz dagoena eta ideia berrituekin datorrena" dela adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkategaiak

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Datozen udal hauteskundeetara begira, Joserra Zubizarreta egungo Eskoriatzako alkatea buru izango duen taldea aurkeztu zuen astlehenean Eskoriatzako alderdi jeltzaleak. Gorosarri plazan egindako ekitaldian, herritarrek, alderdikideak eta ordezkari politiko zabala izan ziren.

Herritarrei eta bereziki zerrenda-kide izango dituen pertsoneri eskertza beroa eginda, Joxean Artze idazle eta musikariaren olerki ezagun bat irakurriz hasi zuen aurkezpena Zubizarretak: "Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik". Hain zuzen, alkategaiak azaldu zuen duela lau urteko ilusioa sendotuko dutela, eta herritar guztiei entzunez eta guztiekin lan egiteko prest egongo direla gaineratu zuen: "Guztion artean posible izango dugu orain dela lau urte sortu genuen ilusioa sendotzea. Ho-

rrera, bidea emango diogu Eskoriatzari eta EAJri. Eta datozen lau urteetan asmo berarekin jarraituko dugu, guztiak entzuteko prest eta guztiekin lan egiteko prest. Benetan sinisten dugulako ez duela inporta ideiak nondik datozen gure herrirako onak badira".

Horrekin batera, erronka berriari ideia eta asmo sendoekin helduko diotela adierazi zuen. Proposamen berriak ere aurreratu zituen; kiroldegian kanpoko igerilekua egitea eta San Pedroko goiko parkea konpontzea eta Dorletako umeen parketa berritzea. Asmo hauek, ordea, aurki aurkeztuko duten programaren aurrerapena besterik ez dela adierazi zuen.

**HERRITARREI ENTZUTEN JARRAITUKO DUTELA ADIERAZI ZUEN ALDERDI JELTZALEAK**

**Ordezkaritza zabala**

Alkategaiak lankidetzeta eta erakundearen arteko elkarlan sendoaren balioa azpimarratu zituen. Hori horrela, ekitaldian izan ziren Eider Mendoza, Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea; Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegituretako foru diputatua; eta Ainhoa Aizpuru, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreekako diputatua. Debagoieneko alkategai eta hautagai jeltzaleak ere egon ziren ekitaldian.

**Arrizabalaga eta Egibar**

Arrizabalagak alderdi jeltzalearen ereduari heltzeko eskatu zien herritarrei. Egibarrek, bestalde, Joxean Artzeren poema hizpide hartuta, hauxe adierazi zuen: "Inposizioaren ura ez da edangarria, ez da ona, eta, gainera, gorrotoa sortzen du. Guk ezin dugu inor gorrotatu, elkarbizitza bai, errespetua eskatu eta exijitu bai, baina gorrototik ez dator gauza onik".



Eskoriatzako Elkarrekin Podemoseko Salva Gonzalez eta Blanca Merchan. I.B

## "Ilusioz beteta gaude, herriarentzat lan egiteko"

Eskoriatzako Elkarrekin Podemos-eko alkategaia Salva Gonzalez izango da, maiatzeko udal hauteskundeetarako

**I.B** ESKORIATZA

Eskoriatzako Elkarrekin Podemos alderdiak maiatzeko udal hauteskundeetara begirako aurkezpena egin zuen eguaztenez kulturaren etxean. Bertan, Salva Gonzalez alkategaia eta zerrendako bigarren Blanca Merchan izan ziren programaren nondik norakoak eskaintzen.

"Osatzen dugun hautagaitza Podemos, Ezker Anitza, Equo eta Independenteez osatuta dago. Ilusioz beteta gaude, herriarentzat lan egiteko, eta gure programaren ardatz nagusia jendea da. Sei gizonek eta bost emaku-

mek osatzen dugu taldea, eta politikan esperientzia dutenak ere badaude", adierazi du Salva Gonzalez alkategaia.

**Ardatz nagusiak hizpide**

Eskoriatzako Elkarrekin Podemosek izango dituen ardatz nagusiak honako hauek dira: enplegua, etxebizitza, ingurumena eta eskubide sozialak, besteak beste. Hori horrela, deialdia ere egin zien Gonzalezek herritarrei, maiatzeko udal hauteskundeetan erantzukizunez jokatzeko eta guztiek parte har dezaten eskatuz.



I.B

## Segurtasuna bermatzeko hesia

Oinezkoen segurtasuna bermatzeko asmoz, hesi bat jarri dute Eduardo Gorosarri eta Olazar kaleak batzen dituen izkinan, Kimu ile-apaindegia alban. Hesia Udalak jarri du, eta aste honetan egin dituzte lanak. Olazarren beheara doazen autoek ikuspen txikia dute Gorosarritik doazen oinezkoak ikusteko, eta haiek kontuz aritzeko jarri dute hesia.



# Kultura sustatzeko ekintza ugari zapatuan

Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna ospatuko da zapatuan. Gernikako The Riff Trickers rock taldeaz eta hainbat estilo uztartuz istorio eta sentimenduz beteriko kantuak eskaintzen dituen Natali taldeaz gozatu ahal izango da, besteak beste

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna zapatu honetan ospatuko da, eta egitarau zabala prestatu dute elkarteko kideek aurtengo ediziorako. Urtero moduan, ez dira faltako musika emanaldiak eta haurrentzat zuzendutako puzgarriak; hala ere, aurtengoz ez dute herri bazkaririk antolatuko.

Jaiegunari hasiera emateko, gaur, egubakoitza, helduentzako ipuin kontaketa izango da Inkernu tabernan, 22:30ean.

## Helduentzako ipuin kontaketa

Dorleta Kortazar eskoriatzarrak *80 amandre* izeneko kontaketa egingo du. "Ilusio handiaz hartu dudun ikuskizuna da. Gogoz nengoen nire amandarearen edo amonaren istorioak batzeko... Jorge Oteizaren teoria batek esaten zuen moduan: *Paleolitikotik, 80 belaunaldi nahikoa dira gure iraganetik gaur egungo bidea egiteko*. Eurak zirena gu ere bagarelako, lau ipuinetan banatutako kontaketa egingo dut", adierazi du Kortazarrek.

## Puzgarriak egun osoan

Zapatua txistularien kalejirarekin hasiko dute, eta Eskoriatzako talogileak Fernando Eskoriatza plazan izango dira, urtero moduan, talo goxoak prestatzen. Aurtengoz berritasuna da haurrentzako puzgarriak goizean bakarrik ez, arratsaldean ere egingo direla.

## Herri bazkaririk ez

Urtero egin izan ohi dute herri bazkaria, baina azkenaldian izan diren eta dauden ekintza ugari-rengatik deskantsua hartzea eta ez antolatzea erabaki dute. "Pasa den astean Puntaik izan zen, eta jende asko mugitu zuen. Aste Zapatistan ere izango da bazkaria... beraz, aurtengoz ez dugu ez egitea, eta datorren urtean indarberrituta antolatzea", adierazi du Juan Luis Zubiza-



The Riff Trickers talde gernikarra kontzertuan. IPARRAGIRRE ROCK ELKARTEA

## Aste bukaerako egitaraua

### Egubakoitza, 10

- **22:30** Dorleta Kortazar eskoriatzarraren *80 amandre* helduentzako ipuin kontaketa, Inkernu tabernan.

### Zapatua, 11

- **11:00** Txistulariekin kalejira.
- **12:00** Talo goxoak, umeentzako gaztelu puzgarriak eta ziza zozketa, Fernando Eskoriatza plazan.
- **17:00** Umeentzako gaztelu puzgarriak, Fernando Eskoriatza plazan.
- **19:00** Zuzeneko kontzertuak Inkernu taberna kanpoan: The Riff Trickers eta Natali taldeak.
- **23:00** DJ Jo Ta Txo, Inkernu tabernan.

rreta Atxorrotx Kultura Elkarteko lehendakariak.

### Aldaketak egin guran

2003an sortu zen Atxorrotx Kultura Elkartea, eta gaur egun egoera onean dauden arren, aldaketak egin nahi dituztela adierazi du Zubizarretak: "Pixa bat motelduta gaude; izan ere, urtero ekintza berberak egiten ditugu... eta aldaketen beharrea gaude. Bi helburu ezarri ditugu: batetik; elkartea indartzeko bazkide gehiago lortzea. Izan ere, gaur egun, 90 bazkide gara, eta handitzea gustatuko litzaiguke. Bestetik, batzordea aldatzea. Jende berria sartu nahiko genuke; hala, ideia berriekin ekintza berriak sortzen laguntzeko".

### Erantzun ona antolatutakoek

Atxorrotx Kultura Elkartearen egunaz gain, uztailean antolatzen duten Errekan Gora jaialdirako hitzorduak lotzen ari direla ere adierazi du Zubizarretak: "Ia guztia lotuta daukagu, baina ez nuke oraindik ezer aurreratu nahi. Seguruenik, iaz moduan, irailerako ere gordeko dugu zerbait".



Panel informatiboa, indusketako objektuak eta garaiko jantzia. AITOR AGIRIANO

## Iraganeko memoria zati bat bildu dute Ibarraundi museoan

Atxorrotxeko indusketetan batutako zenbait objektu eta garaiko kontuak biltzen dituen erakusketa ikusgai dago

### I.B ESKORIATZA

Maiatzaren 3ean ireki zuten *Atxorrotx*, iraganeko memoria izeneko erakusketa Ibarraundin, eta maiatzaren 15era arte izango da ikusgai, zapatu eta domeka honetan izan ezik. Panel informatiboak, Atxorrotxeko historia ezagutzeko ikus-entzunezkoa, garaiko jantziak eta indusketetan bilatutako objektuak daude bertan.

"Panelen bitartez, gaztelua nolakoa zen ikusi dezakegu. Indusketen ostean, gauza batzuk azaleratu dituzte, baina, askotan, kosta egiten da nolakoa zen ima-

jinatzea, eta errekreazio bat jarri dugu, nolakoa izan zitekeen ikusteko. Honekin batera, honen atzetik historia bat ere badago, eta bertako jendea nola jantzen eta zer jaten zuen ere ikusi dezakegu", adierazi du Saioa Alzua Ibarraundiko teknikariak.

### Atxorrotx, puntu estrategiko

"XII. mendera arte Gipuzkoako gaztelurik garrantzitsuenak izan zen Atxorrotx, Nafarroako erregearen boterea ordezkatzen zuen tenenteen egoitza zegoelako han... Hala, gehiago jakin nahi duenak zabalik ditu museoko ateak".



ARIZMENDI

## Kirola egiteko kontzientzia sortu

Urtarrilean, DES erakundeak antolatutako jardunaldietan, kirola egiteko eta ohitura osasuntsuak izateko kontzientzia sortzeko aurkeztutako proiektuetako bat da *No elevators day*. Arizmendiko hainbat gunetan igogailua alde batera utzi eta erronka politak jarri dituzte ohitura horiek sustatzeko. Ikasleek zortzimilako hamalau mendiak ikasi dituzte, besteak beste.



# "Autoa gurutzatzeko gogoz gaude pilotuak"

MIKEL OYARZABAL PILOTUA

Maiatzaren 18an izango da Eskoriatzako autoen proba estazio zaharrean. Aurten, bigarren edizioa izango da, eta oraindik aukera dute pilotuek izena emateko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Iaz egin zen Eskoriatzako lehenengo eslalom txapelketa, eta kono artean erakustaldi ederrez gozatu ahal izan zuten bertaratu ziren ikusleek. 24 pilotu batu ziren, eta motor hots zaratsuak, goma erre usaina eta ke ugari batu ziren estazio zaharreko aparkalekuan. Hala, izandako arrakastaren ondorioz, aurten berriro antolatzea erabaki du Eskoriatzako Udalak, Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldekoen eta Azpeitiko Lagun Artea eskuderiako laguntzarekin. **Iaz, lehenengo edizioa izan zen, baina arrakastatsua, ezta?**

Iaz, autoa hautsi gabe bukatu nuen; gurrpil batzuk erre genituen, oso ondo pasatu genuen, eta gustura aritu ginen erakustaldia ematen. Eskoriatzako pilotuak ez gara ari antolakuntza lanetan, baina zaletasun hau dugunon guraso guztiak bertan ari dira, eta uste dut arrakasta hortik datorrela. Gu gustura ikusten bagaituzte, beraiek ere gustura geratzen dira, eta, hala, berriz, antolatze gogoz egoten dira, eta gu, berriz, beti prest.

**Hori horrela, izen-ematea zabalik dago dagoeneko?**

Apirilaren 19an ireki zen izen-ematea, baina, oraingoz, gutxi batzuek eman dugu izena. Aste



Mikel Oyarzabal. IMANOL BELOKI

honetan bost pilotuk bakarrik eman dutela esan didate. Hala ere, halakoetan beti gertatzen da gauza bera, azken unera arte itxaroten dute pilotu guztiak. Eskoriatzako hainbatek eman dugu izena, eta bertakoak zenbat eta gehiago izan, orduan eta herriko ikusle gehiago batuko direla esango nuke. Eskoriatzatik, Gorka Urrutia, Unai Jurado eta ni, behintzat, bertan izango gara. Hala ere, Euskal Herriko beste lasterketa batzuetatik eza gutuzten ditugun pilotuak ere etorriko dira parte hartzera.

**Ez dakienarentzat, zer egiten da halako proba batean?**

Eskoriatzan egiten den bigarren aldia denez, lehenengo edizioa ibilbide bera ez dute jarriko, nahiz eta leku berean egingo den. Eslaloma, lasterketa baino gehiago, erakustaldia izaten da, eta proba ezberdinak pasa behar izaten ditu pilotuak. Esaterako; bi kono jarri eta zortzi bat egitea, kono baten bueltan zero bat egitea... Autoan baino gehiago, norberaren abilezian dago gakoa; azkar ibili behar da eta ondo derrapatu, baina ez da dirudien besteko samurra. Esku ona behar da kono guztiak aurretik ez eramateko.

**Iaz sustoa ere izan zenuen, gainera?**

Hala da. Larregi gerturatu nintzen espalaira eta bertan ordeko kono batzuei eman nien autoaren atzeko aldeaz. Konoak jendearen gainera jausi ziren, baina ez zen ezer larririk gertatu. Kontuz ibili beharra dugu pilotuok, baina ikusleak ere larregi gerturatzen dira askotan, eta hori ere ez da komeni.

**Beraz, erakustaldia emateko gertu?**

Bai, noski. Autoa gurutzatzen aritzeko gogoz nago. Ea ikusleek gustuko duten, pilotuok ere disfrutatzen dugun eta egun boro-bila irteten den.



Ixidor Salaberri, bizikleta elektrikoarekin. IMANOL BELOKI

## Bizikleta elektrikoak alokairuan, Gatzagako inguruak ezagutzeko

'Gatz E-bike' proiektua aste honetan jarri berri dute martxan eta, oraingoz, erantzun ona izaten ari da

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Labideako Ixidor Salaberri eta Iñaki Gabilondok aste honetan jarri dute martxan *Gatz E-bike* proiektua. Hainbat bizikleta elektriko jarri dituzte bertan alokairuan, eta Gatzagako zein inguruko bidegorri eta mendiak ezagutzeko ibilbideak ere proposatu dituzte.

"Mendiko sei bizikleta elektriko ditugu, alokairuan hartu nahi dituenarentzat. Bertara datozenek ibilbide ezberdinak egin ahalko dituzte, eta guk hiru ibilbide proposatu ditugu, eLabidea kanpoan margotu ditugunak. Bata

Atxorrotx eta Alabita aldean egitekoa da; beste bat, Hiruerreketa inguruetan egitekoa; eta bestea, hiru urtegiaren tartean kokatuta dagoenez Gatzaga, Urkulu, Landa eta Albina inguruetan egitekoa. Hala ere, nahi duenak beste bide batzuk ere egin ditzake..."

**Erantzun ona, oraingoz**

Pasa den asteburuan Eskoriatzan izan ziren, Puntaik Punta jaialdiaren barruan, jendeari bizikleta elektrikoaren gaineko argibideak ematen, eta arrakasta izan zutela adierazi du Salaberriek.



1.B

## Ezkondu aurreko festa

Eskoriatzako *Txirotutako Uraneok* kuadrillakoak Burgosen izan ziren pasa den zapatuan, Aratz Kortazarri ezkondu aurreko agurra egiteko. Eskoriatza areto futbol taldeko kapitainari Madril futbol taldeko jantziak jarri zizkieten, beste hainbat osagarriekin lagunduta. Bertan, bapo bazkaldu eta festa egiteko aprobetxatu zuten lagun artean.



'TXIROTUTAKO URANEOAK'

## Jolas-gunea loratzen hasi da

Udaletxe alboan, zume-bizia landatuz barraskilo formako jolasgunea sortu zuten, martxoan, Garaion Sorgingunekoek eta Gatzagako haur, gazte eta gurasoek elkarlanean. 1.000 bat zume landatu zituzten, eta hostoz betetzen hasi berri da. Barraskilo formako jolasgunearen gorputzak hiru sarrera ditu eta buruak, berriz, bi ate.



# Parkingarekin aurrera, eta "lan handienak" oporretan

Kontratazio mahaiak hilabete beharko du proiektuaren exekuzioa enpresa bati esleitzeko eta Gobernuak dio uztailean zuloa egiten hasi eta urtebetera amaituko dela parkingerrako obra; Aste Santu aurretik abiatutako kolektoreko lanak "oso ondo" doazela adierazi dute

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Seminarioko parkinga eraikitzeke prozesua hilabete erabakigarrian sartu zen eguaztenean, zein enpresak exekutatu duen erabakitzeke hilabete izango duelako orain Udaleko kontratazio mahaiak. Proiektua exekuziorako adjudikatu ostean, Udal Gobernuak atzo goizean egindako agerraldian iragarri zuenez, uztail hasieran hasiko dira errotazio bidezko 86 aparkalekuek zuloa egiten. Eta lanak uztailean hasita, Gobernuak kalkulatu du gehienez urtebete iraungo dutela parkinga bera egiteko lanek.

Gaur egun martxan dauden kolektorea egiteko obrak eta parkingaren osteko urbanizazioerako lanak kontuan hartu barik, proiektuaren aurrekontua 1.820.948 euro da.

**"Lan handienak" oporraldietan**

Aranzadi Ikastolaren oporraldiak aprobetxatu gura ditu Gobernuak



Seminario azpiko kolektorea egokitzeke obrak Herrilaganun kalean, atzo. J.B.

"lan handienak" egin eta afekzioa ahalik eta txikiena izan dadin –ur zikinen biltzaileerako lanik handienak Aste Santuko oporretan egin ziren–. Hala, uztailean hasiko balira lanak, lehen zulaketak ikastolaren fatxadatik

hasiko lirateke, eta Ibargarai kalerantz hedatzen joan. Diotenez, afekzioak txikitzeke amoz, eraikuntza sistema ere aldatu dute, eta mikropilotaje bidez egin beharrean zimendu-lauza sistema erabilita egingo dute:

"Asmoa ez da zulo handi bat egin eta gero hormigoia botatzea, baizik eta progresiboki egitea, kolektorearekin moduan; obra pasatu beharreko trantze bat izango da, baina, gerora, Aranzadi izango da onuradun nagusia", dio Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik. Hain justu, Elena Lete alkateak adierazi du kolektorerrako lanak, Artzamendi enpresako teknikarrien arabera, "oso ondo" doazela: "Espero dugu hurrengo faseak ere lehen hau bezain ondo joatea".

**Lete: "Ekarpenak jorratu ditugu"**

Alkatearen arabera, parkinga egiteke proiektuaren barruan gutxienezko urbanizazio lan batzuk aurreikusten badira ere, aurrerago zehaztuko da proiektu zehatza; BEB enpresak hainbat aukera idatzita utzi ditu. "Urtebete inguru egongo da aztertzeke eta proiektu zehatza aukeratzeko".

Alkateak azpimarratu du proiektu hau aspalditik datorrela eta aurrera jarraituko dutela: "Proiektu honetan bereziki jorratu ditugu ekarpenak jasotzeke bideak, modu zabalean, sakonean eta iraunkorrean. Ekarpen horiek jaso, aztertu eta asko proiektuan txertatu ditugu, eta hori egiten jarraituko dugu. Prozesua oso aberasgarria izan da, bereziki Aranzadirekin, eta harridura handiz hartu dugu bertako kolektibo batzuek obra eteteke egin duten eskaera".

**Guraso talde bat sinadurak batzen** Apirilaren 29ko osoko bilkuran, *Patixuan aparkalekurik ez!* ize-na hartu duen Aranzadiko guraso talde batek udalbatzari eskatu zion proiektua gelditzeko. Gobernuaren erantzunaren aurrean, sinadura bilketa bati ekitea erabaki zuten; bilketa horren gaineko balorazio publiko aurrerago egingo dute, baina herritarren artean aparkalekuaren gaineko eztabaida ireki izanarekin pozik daude.

Hausnarketa hori bultzatzen jarraitu gura dute, guraso talde horretako bozeramaile Larraitz Uribealagoren arabera: "Zergatik ez da azterketa sakonik egin gaur egun aparkaleku beharrak zeintzuk diren aztertzeke? Eta mugikortasun planarekin zer? Proiektu honen bideragarritasuna beste proiektu batzuekin alderatzen badugu, beste kokapen batzen eta plaza gehiagorekin? Errotazio bidezko 86 aparkalekuk herriko aparkaleku arazoa ez dute konponduko, eta erdigunean hainbat arazo sortuko dituela uste dugu, zirkulazio gehikuntzari lotuta. Herri moduan atzera joango gara proiektu zahar honetan tematzeagatik".

**'PATIXUAN APARKALEKURIK EZ!' TALDEAK OBRA ETETEA ETA GOGOETA EGITEA ESKATZEN DU**

## Oinezkoei lehentasuna ematea lortzeko lanean Bidekurutzetan

Ibilgailuak binan-binan pasatzeak "hainbat arazo" eragiten ditu, eta neurriak hartzeke aspaldi eskatu zuten bizilagunek

**J.B. BERGARA**

Bidekurutzetan, Leturia harategitik Cafe Bergarainoko tartean, ibilgailuak binan-binan pasatzea "eguneroko arazoa" da bizilagunendako. Urte eta erdi bada, gutxienez, euren kezka eta ardura adierazi zutela Udalean, eta Udal Gobernuak asteon jakinarazi du neurriak hartuko dituela. Neurrien artean, abiadura gehienez 20 kilometro ordukoa dela dioen seinalea jarri dute Espolotik plazarako norabidean doazentzat –bizilagunek plazatik gorantz doaze-

nentzat ere seinalea jartzeko eskatzen dute, besteak beste–; argi-seinale bat jarriko da, lehentasunezko pasabidea zeinek daukan garbi adierazteke; eta udaltzainek jarraipen zorrotzagoa egingo diete ibilgailuei. Ohartarazpenez gain, isunak ere jarriko dituzte "oso modu nabarian" gehienezko abiadura gaintzen duten gidariei.

Zamalanetarako, bestalde, Leturia harategiaren parean seinale bat jarriko dute, 3.500 kilotik gorako ibilgailuek zamalanak bertan egiteke lehentasuna izan-



Arazoak Bidekurutzetan. J.B.

go dutela adierazteke, 00:00etatik 11:00etara arteko ordutegian. Oro har, zamalanak aldi berean egiten ibiltzen diren ibilgailuen kopurua mugatu egingo dute, eta esku-orriak aterako dituzte neurri guztien berri emateke.

**Oinatz horiekin, "harridura"**

Martitzen goizean, Udaleko brigadako langileek eremu horretan lehentasuna oinezkoek dutela aditzera emateke oinatz hori batzuka margotu zituzten; Udalari neurriak hartzeke eskatu dion bizilagunetako batek "erabateko harridura" agertu du oinatz horiekin eta adierazi du susto bat izan dutela dagoeneko, ume batek jolaserako moduan hartu eta auto batek ia harraipatu egin duelako.

Bestalde, Udal Gobernuak eskuorri bat argitaratu du, plataforma bakarreke guneak erabiltzeke zehaztasunak emango dituen. "Udaltzaingoa presentzia handiagoko izango du Bidekurutzetan, ordutegi zehatz eta zabal batekin. Astero intzidentzien gaineko txostena ere prestatuko dute", gaineratu dute.

## OHARRAK

**Auzoen arteko zozketa**

Maiatzaren 4an Angiozarren ospatutako Auzuen Arteko Eguneke zozketako zenbaki sarituak honako hauek dira: lehen saria, 1.478 –ordezkoa, 1.481–; bigarren saria, 1.051 –ordezkoa, 4.150–; eta hirugarren saria 2.128 –ordezkoa, 2.988–.

**Jolasleku ibiltaria**

Jardunen eskutik, familia arteko transmisioa lantzeke jolasleku ibiltaria egingo dute: gaur, Usondon; maiatzaren 17an, Arrizuriagan; ekainaren 2an Labegaraietan.

**1949an jaiotakoak**

Maiatzaren 25ean Tartufon bazkalduko dute: ES29 3035 0009 120091154415 (Laboral Kutxa).



MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

**ERAIKI DEZAGUN.  
ZENTZUZ.  
ELKARREKIN.**

---

# **Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta egiteko Erdi Mailako Zikloa Gizarteratzeko Goi Mailako Heziketa Zikloa**

**Ate irekiak:** Maiatzaren 15ean 17:30ean  
**Aurrematrikulak:** Ekainaren 3tik 14ra

Mariaren Lagundia Ikastola  
Espoloia Kalea 1, 20570 Bergara

T. 943 76 25 40

[mlagundia.net](http://mlagundia.net)

[ikastola1@mlagundia.net](mailto:ikastola1@mlagundia.net)







EAJren maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda, Elena Lete buru dela. EAJ BERGARA

# Ondorengoei "herri hobebat" utzi nahi dien taldea

Elena Lete buru dela, maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du EAJk, eta "ilusioz eta indarrez" beteta datorrela diote: "Bizikidetzan oinarria duen Bergara bat da gure proiektua, euskalduna, parekidea, inklusiboa eta ekintzailea dena"

## Jokin Bereziartua BERGARA

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hautagaizta aurkezteko joan den domekan Mubibe plazan egindako ekitaldian, EAJko alkategai Elena Letek esker on hitzak izan zituen, eta zerrenda osatzen duten herritarrek auzo, adin, sentsibiltate eta arlo ezberdinetatik datozenak direla esan zuen: "Guzti-guztiak ikuspuntu aberasgarri eta baliotsuak dituztenak. Talde honek gure ondorengoei herri hobebat laga nahi dien proiektuari bultzatza egingo dio, bizikidetzan oinarria duen Bergara bat, euskalduna, parekidea, inklusiboa eta ekintzailea dena".

## "Ilusioz eta indarrez"

Hitza eman zuen hurrengo lau urteetan ere Udal Gobernuan egonez gero "eraginkortasunean eta sentsibiltatean oinarrituko den kudeaketa" izango dela euren. Hurrengo lau urteetan alboan izango duen lantaldea "ilusioz eta indarrez" beteta datorrela ere esan zuen Letek: "Bergarari bultzada emateko, herriko elkarte sare zabalarekin lankidetzan arituta".

Azken agintaldi honetako proiektuei dagokienez, "emandako hitza bete" izanaren adibide moduan jarri zuen seminarioko parkinga; lur azpiko

aparkalekuak egiteko lanak uztailan hasita aurreikusita badago ere, ur zikinen biltzailea egokitzeko lanak hasita daude dagoeneko: "Bergararok 30 urtez itxaron dugu lur azpiko parking hau izatea eta espero dugu urtebete barru martxan egotea; gure ekonomiarako motor bat izatea ere espero dugu".

## "Entzule aktiboak izan gara"

Horrekin batera, agintaldiaren balorazioa egiterakoan, Letek herri galdeketa ere azpimarratu zituen, zabor biltzaile sistemaren inguruan eta Boluko frontoiaren estalduraren inguruan egin direnak, hain justu: "Entzule aktiboak izan ginen eta galdeketa horiei esker herriaren edota auzoaren nahia zein zen jakin genuen; ondoren, nahi hori bete egin dugu".

Enpleguren arloan, Candyren lekuan Gureak martxan jarri izana "oso garrantzitsua" izan dela deritzo: "Bederatzi urte hutsik egon ostean, Gureak Taldeak bere proiektuari ekin dio. Gizarteratze prozesuetan Gipuzkoan garrantzi handia duen proiektua da, gainera". Horrez gain, Soraluze eta Ederlan enpresen sustapenak eta Larra mendiko industrialdearen funtzionamendua ere izan zituen hizpide. Eta, amaitzeko, kultu-

ra arloan ere agintaldi "oso emankorra" izan da, Leteren esanetan; Seminarixoa aretoaren irekiera nabarmendu zuen.

## Agorrosin Berriarekin "aurrera"

Agintaldi berrira begira, EAJren alkategaiak aurreratu zuen Agorrosingo zelai berria egiteko lan egingo dutela, Bergarako Kirol Elkartearekin batera. Hain justu, proiektuak aurrera atera eta konpromisoak betetzeko, elkarlana eta partaidetza jarri zituen Letek hurrengo agintaldiko zutabe gisa: "Orain arte egin dugun moduan, herritarren partaidetza bultzatzen jarraituko dugu, herritarrei hitza ematen eta entzuten".

## EAJren hautagaiak

- Elena Lete.** 54 urte. Arkitekto teknikoa.
- Maite Agirre.** 31 urte. Enpresen Zuzendaritzan eta Administrazioan lizentziaduna.
- Lander Arregi.** 56 urte. Nekazaritza ingeniaria.
- Irene Galarraga.** 44 urte. Erizaina.
- Angel Murgiondo.** 60 urte. Enpresen Zuzendaritzan eta Administrazioan lizentziaduna.
- Esther Ortiz de Zarate.** 52 urte. Osakidetzako langilea.
- Joseba Elosua.** 56 urte. Enpresa zuzendaria.
- Martin Etxaniz.** 55 urte. Finantza zuzendaria kooperatiban.
- Iñaki Arrondo.** 42 urte. Ontzi-garbigailuen egiaztaizalea.
- Gema Zenitagoia.** 55 urte. Ekonomia Zientzietan lizentziaduna.
- Josu Ormaetxe.** 24 urte. Automatizazio eta robotika industrialeko goi-teknikaria.
- Markel Ena.** 44 urte. Nekazaritza ingeniaria.
- Nekane Alvarez.** 60 urte. Administrazio teknikari komertziala.
- Maritxu Barrena.** Erretiratu "aktiboa".
- Iñigo Jauregi.** 54 urte. Antolaketako ingeniari teknikoa.
- Bittor Gorrotxategi.** Erretiratu "aktiboa".
- Izaskun Labaien.** 57 urte. Irakaslea.

## 830 sinadura batu ditu Xaxauk dirulaguntza handitzea eskatzeko

Xaxau jai herrikoen konpartsak publikoki salatu du azken bost urteetan Udal Gobernuak ez diela jaiak antolatzeko dirulaguntzan igoerarik aplikatu, ezta KPIaren araberako igoerarik ere. Horregatik, sinadura biltzeta abiatu zuten eta atzo arratsaldean erregistratu zituzten sinadurok udaletxeko Bergararen Arreta Zerbitzuan. 830 sinadura izan dira, guztira, eta Xaxaukoak pozik daude: "Herritarrek oso ondo erantzun dute; jendeak komentatu digu ez duela Bergarako jairik Bideberriko txosnagune barik ulertzen, askok hartzen dute eta egitarau ofizialarekiko beste alternatiba bat bezala".

## Autobus digitala San Martin plazan, gaurtik hilaren 15era arte

Gaur hasi eta maiatzaren 15era bitartean, Diputazioaren eskutik atzo heldu zen autobus digitala izango da San Martin plazako bisitari berezia. "Helburua da sareen erabilera kritiko eta kontzientea sustatzea", adierazi du, ohar bidez, Kultura eta Gazteria diputatu Denis Itxasok. Asko eta askotariko ekintzak antolatu dira Kultura Digitalaren Aste ibiltariaren barruan -Bergarako izango da ikasturte honetako azkena-. Izan ere, autobusaz gain, besteak beste, bideo jokoak eta webguneak sortzeko programazio-tailerrak eskainiko dizkiete 8 eta 16 urte artekoak. Argibide gehiago jasotzeko: [www.kulturadigitala.eus](http://www.kulturadigitala.eus) webgunean.

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matsiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE  
AROEZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

AROEZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

BERGARA  
[aroztegia@ugartearoztegia.com](mailto:aroztegia@ugartearoztegia.com)

Proiektuak - Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak - Eskailerak -  
Leihoak - Tarimak -  
Egur lanak

**21**  
**K**  
KALITATA  
Enpresa Registrada Nº00205



# Lapurreten aurrean, sortzen jarraitzeko grina

Abendutik maiatzera bitartean bost alditan sartu dira kartzela zaharrean, aspaldian jasan duten eraso kopuru handiena, eta bertako kolektiboak nahikoa dela esateko batu dira. "Txoko kutun honetan mila kontu sortzen jarraitzeko indarra dugu", adierazi dute

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Domekatik astelehenerako gauean, berriro ere sartu ziren kartzela zaharrean; azken hila-beteotan jasaten duten bosgarren eraso izan da honakoa hau; hori dela eta, nahikoa dela esateko elkarretaratzea egin zuten atzo San Martin plazan.

Kartzela zaharra osatzen duten kolektiboak oso haserre daude: "Gure baliabideak lapurtzeaz gain, gure espazio kutun honi eraso egin diote, eta nahikoa dela esateko batu gara. Denoi eragiten diguten lapurretak egin dituzten pertsonak gaitzesten ditugu eta ezin gara isilik eta geldi geratu egoera honetan sis-



Kartzela zaharreko sarrera, artxiboko argazki batean. GOIENA

temak eta gizarteak berak hartzen duen jarrera utziaren aurrean. Eta argi dugu konponbidea ez dela polizia gehiago jartzea edota arma kopurua handitzea, gauzak beste modu batera egin daitezkeela sinisten eta defendatzen dugu". Dirua osteaz gain -koordinadorak ez du kopurua zehaztu-, apurketak eragin dituzte barruan, eta kanpoko ateen segurtasuna indartzeko neurriak hartu dituzte dagoeneko.

**Lan egiteko, atek zabalik**

Egoerari soluzioa bilatzeko, herriaren beraren babesa jartzen dute oinarri moduan: "Kartzela zaharreko askotariko proiektuak herriarenak dira. Segi dezagun gure espazioak babesten, komunitatea eraikitzen, konponbidea batera aurkitzen eta inor bide bazterrean laga gabe. Nahikoa dela esatera etorri gara, baina herriko txoko honetan mila kontu sortzen jarraitzeko dugun gogoia eta indarra erakustera ere bai. Kartzela zaharra askatasun-gune bihurtzen jarraituko dugu, eta beti izango ditu atek zabalik lan egin nahi duen edonorentzat", gaineratu dute.

## OHARRAK

**Pentekosteak: azala**

Bost azalen artean aukeratu beharko dute herritarrek, etzira arte. Herritarren botoek %50eko balioa izango dute eta epaimahaikideenak, beste %50. Azalak bozkatzeko: [www.bergara.eus/eu/node/11699](http://www.bergara.eus/eu/node/11699).

**Jaietako zapia**

Jaietako zapirako marrazkia eta leloa aukeratzeko lehiaketa abian da. Argibide gehiago: [www.jardun.eus](http://www.jardun.eus) edo 943 76 36 61 / 605 71 24 69 telefono zen bakietan.

**Azoka solidarioa**

Bihar, maiatzak 11, Mariaren Lagundia ikastetxeko jaiaren barruan, azoka solidarioa egingo dute Espoloian, 10:00etatik 13:30era. Euskal Herriko gobernuz kanpoko 15 erakunde egongo dira bertan.

**Hobetzeko ideiak**

Bergara hobetzeko 120 ideien artean gustukoena bozkatzeko aukera dago etzira arte: [www.bergara.eus/eu/node/130](http://www.bergara.eus/eu/node/130).

## LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN



“etorkizuna zure esku”

**ARETXABALETAN**

**Ate irekiak:**

**Maiatzaren 15ean, 18:30ean**



**ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola**

Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALET  
☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43  
[ia.aretxabaleta.com](http://ia.aretxabaleta.com)

**www.aretxabaleta.com**

**BERGARAN**

**Ate irekiak:**

**Maiatzaren 16an, 18:30ean**



**Miguel Altuna LHII Bergara**

Ibargarai, 1 • 20570 BERGARA  
☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40  
[info@maltuna.eus](mailto:info@maltuna.eus)

**www.maltuna.eus**

**OÑATIN**



**IES RM Zuazola - Larraña BHI**

Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI  
☎ 943 89 93 00  
[013015aa@hezkontza.net](mailto:013015aa@hezkontza.net)

**www.onati.net**

2019-2020 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA: Ekainaren 3tik 14ra (biak barne). MATRIKULA: Uztailaren 11tik 17ra (biak barne).





Bergarako eskubaloi jokalaria, jaurtiketa egiteko gertu, Donibaneren aurkako lehian, otsailean. IMANOL SORIANO

## Egoera irauli eta puntuak batzea izango da asmoa

Soraluce BKE taldeak gaizki hasi du iguera fasea: bi partidu jokatu dituzte eta biak galdu dituzte. Josetxo Muniategi entrenatzaileak fisikoki ondo ikusten du taldea, baina "gatz pixka bat" falta zaiela dio. Domekan, Escolapiosen aurka jokatuko dute

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA Bizkaiko ligako txapelaren aurka jokatuko du Bergarak domekan: 12:30ean izango da partidua, Escolapios taldearen kantuan. "Taldea gaztea da, eta bizkorra... kantxa berezia dute, txikia dena...", azaldu du Josetxo Muniategik domekako aurkariaren gainean.

Bergarak "hasiera kaskarra" eman dio iguera faseari. Lehenengo bi partiduak galdu ostean, hirugarrenera joango dira puntuaren baten bila mahoneroak. Baina, Muniategik azaldu duen moduan, "aurkari zaila" izango dute aurrean.

### Burua eta abiadura

Egoerari buelta eman nahi dio Muniategik: "Fisikoki ez gaude txarto, baina falta zaigu abiadura, konfiantza... zerbait falta dugu, gatz".

Fisikoki "ondo" daudela nabarmendu du Muniategik, eta partiduak ez dituztela fisikogatik galdu gaineratu du. "Burua

eta abiadura izan dira lagundu ez digutenak...", dio.

### Bi partidu, bi porrot

Maiatzaren 1ean hasi zuen iguera fasea Bergarak. "Urnietaren aurka gaizki jokatu genuen", azaldu du. Etxean izan zen lehia, eta 20-25 galdu zuten. Hasieratik jarri ziren markagailuan atzetik etxeokak (1-6) eta atsedendira 12-16 iritsi ziren; bigarren zatian zerbait hobetu zuten arren, bost goleko aldearekin galdu zuen partidua Muniategiren taldeak.

Joan zen zapatuan, aldiz, Askartzaren aurka jokatu zuten. "Zerbait hobeto jokatu genuen, baina, hala ere, markagailuan atzetik ibili ginen une oro", dio entrenatzaileak, eta gehitu du:

**ESCOLAPIOSEN AURKA JOKATUKO DU BERGARAK DOMEKAN, 12:30EAN, BILBOKO KANTXAN**

"Gol bakarrera jartzea ere lortu genuen, baina ezin izan genuen partidua berdindu". 24-21 galdu zuten mahoneroek.

### Lauko finalerako sailkatzea

Denboraldia luze egiten dabilela ere gehitu du Muniategik: "Sei bat hilabete goaz partidu guztietan oso maila ona ematen". Hori horrela, eta iguera faseko hasiera honetan izan duten beharaldia ikusita, egoerari buelta ematea du buruan Bergarako taldeak.

Iguera fasea bukatu ondoren, lau finala jokatuko dute bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren sailkatuek: "Lehenengo sailkatua zuzenean igoko da mailaz, eta bigarren sailkatuaren etxean jokatuko da lau finala", dio Muniategik. Final hori jokatu ahal izateko "partidu bat edo bi" irabazi beharra dutela dio. Iguera faseko azkeneko partidua Euskadiko txapelaren aurka jokatu behar du Bergarak -Munttarpe-.

## 'Mindfulness', elikadura eta bideo ikastaroak egingo dituzte

Bizikasik eta Udalak elkarlanean antolatu dituzte ikastaroak; Bizikasin bertan eman behar da izena

### A.E. BERGARA

Bizikasik eta Udalak hainbat ikastaro antolatu dituzte, maiatzean zehar egitekoak. Horien artean, dagoeneko hasita dagoen *mindfulness* ikastaroa dago: garapen pertsonala eta estres murrizketa landuko dute ikastaro horretan. Maiatzaren 11n, 14an eta 18an elkartuko dira berriro ere, Ana Carpinteroren gidaritzapean.

Maiatzaren 20an, 22an eta 27an, bideoak nola sortu modu errazean erakutsiko du Jaione Carpintero kazetariak. Migel Altunan

izango da, 18:00etatik 19:30era, euskaraz. Ikastaroaren prezioa 15 euro izango da. Mugikorrrarekin grabatutako bideoak editatzen erakutsiko du Carpintero. Azkenik, maiatzaren 30ean, Angiozarren, 17:30ean, *Sukaldaritza osasuntsua, elikapen energetikoa* ikastaroa eskainiko du Silvana Huegun dietistak. Ele bitan izango da, 15 euroren truke. Ikastaroetan izena emateko: Bizikasik Iargarain duen zerbitzuan, 943 76 93 94 telefonoan edo [info@bizikasi.com](mailto:info@bizikasi.com) helbidera idatzita.

## GORA ETA BEHERA



### Ontzi arinen edukiontzien erabilera txarra

Ola auzoko miniguneko erabilera txarra salatu du bizilagun batek. Ontzi arinendako edukiontzi horian, bestelako hondakinak ere botatzen dituzte. Modu horretan, errefusera bota behar dute dena, eta ondo bereizten duenaren ahalegina eta esfortzua kaltetzen da.

### EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)  
edo 688 69 00 07.



K.I.

### Giroko porra egiteko aukera egongo da aste bukaeran Iralan

Italiako Giroa bihar hasiko da, zapatua. Eta, hain zuzen, lagun talde batek antolatuta, Giroko porra egingo dute. Bihar, zapatua, 18:00etatik 20:00etara eta domekan 11:00etatik 14:00etara Irala kalean egongo dira porrak jasotzen. Parte hartu nahi duenak 20 euro ordaindu beharko ditu, eta hamabost txirringularririk aukeratu.

### Pilotan, herri artekoa jokatuko dute Adunaren aurka

Herri arteko pilota txapelketa jokatuko dute gaur, barikua, 19:45ean. Bergarak Adunaren aurka neurtuko ditu indarrak. Hiru partidu izango dira: kade-teen, gazteen eta nagusien mailetakoa (Rezustari omenaldia egingo diote; ikus 37. orria). Horrez gain, domekan, Gipuzkoako mailako partiduak jokatuko dituzte, 16:00etan hasita.



# 'Arrakalak' erakusketa zabalduko du Albenizek

Jone Albeniz bergararrak bakarkako lehenengo erakusketa zabalduko du Aroztegin. Argazkiak jarriko ditu ikusgai; gehienak iaz udan Bosnian egindakoak izango dira. Horrez gain, bidaia hartako soinu batzuk ere entzungo dira aretoan bertan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA  
Jone Albeniz argazkilari bergararrak *Arrakalak* erakusketa zabalduko du Aroztegi aretoan. Gaur izango da inaugurazio ekitaldia, 19:00etan.

"Eztanda moduko bat da erakusketa, argazki eztanda", azaldu du Albenizek. "Aretora sartzekoan, parez pare dagoen horman argazki mordoa jarri ditut, eta gainerako hormetan gutxiago, formatu handikoak", dio argazkilariak.

## Tamaina handiko lanak

Argazkiak tamaina handian inprimatu ditu: "Metro eta erdi bider metro bateko azalera dute,



Erakusketako kartela, erakutsiko duen argazkiarekin. J.A.

gutxi gorabehera". Horrez gain, azaldu du ez direla joango marko batekin eta ez dutela kristalik izango: "Hormara itsatsita joango dira".

Iaz udan Bosnian egindako argazkiak dira gehienak; eta horietako asko zuri-beltzean egindakoak dira. "Ez naiz zentratu argazkiaren kalitatean; zarataren jokoarekin jolastu nahi izan dut. Zarata presente dago aretoan".

## Irudia eta soinua

Zarata hori presente egingo duen beste gako bat soinua izango da. Erakusketa zabalik dagoen bitartean audioa entzuteko aukera egongo da: Bosniako bidaian grabatutako soinuak izango dira Albenizek aretoan entzungai jarriko dituenak.

Aroztegikoa bakarka egingo duen lehenengo erakusketa izango da Albenizendako: "Aurretik, Martxanterekin jarri izan dut nire lanen bat, baina bakarka lehenengoa izango da". Maiatzaren 26ra arte egongo da aukera Albenizen argazkiak ikusteko, martitzenetik domekara, areto-ko ordutegian.

## 'Liv til doden' lana aurkeztuko du Nogen taldeak Seminarixoan

Donostiako Nogen eta eMe taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, barikua, Seminarixoan, 21:00etan. Nogen taldeak iaz argitaratutako *Liv til doden* lana aurkeztuko du. Hirukote formatuan hasi zen taldea handitu egin da eta egun, bost kide dira taldean: folk, pop, indie... doinuak egiten dituzte. Sarrerak 8 euroren truke salduko dituzte.

## Musika eskolan dagoeneko zabalik dute matrikulazio epea

Matrikulazio epea zabalik dago, eta 2019-2020 ikasturterako ize-na emateko aukera egongo da ekainaren 6ra arte. Idazkaritzako ordutegia 15:30etik 19:30era bitartekoa da. Musika eskolaren helburuak dira musikaren kulturaren sustapena egitea eta Bergarako musika taldeen harrobi izatea –orfeoia, abesbatzak, bandak, orkestra...–.

Ezagutu gure eskola!

# ATE IREKIAK

MAIATZAREN 18AN, LARUNBATA

11:30ETIK 13:30ERA

Matrikulazio epea zabalik  
maiatzaren 2tik ekainaren 6ra

Informazioa:

Bergarako musika eta dantza eskola  
Espoloia z/g, 943765780  
idazkaritza@bme.e.telefonica.net  
www.bergarakomusikaeskola.com






# "Hezkuntzako taldeekin berba egingo dugu"

**NORA LEGORBURU PAUSOKA GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA**

Antzuolako Udala, Herri Eskolako irakasle taldea eta Pausoka Guraso Elkartearen elkarlanean ari dira eskolako pedagogiaren jarraikortasuna bermatzeko

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Antzuolako Herri Eskolako pedagogiaren jarraikortasuna zaila da; izan ere, pedagogiaren sortzaile eta sustatzaile izan diren irakasle gehienek erretiroa hartu dute. Kezka dago herrian, eta Antzuolako Udalak, Herri Eskolak eta Pausoka Guraso Elkarteak elkarlanean dihardute pedagogiari eusteko. Nora Legorburu Pausoka elkartearen presidentea Goiena telebistan aurreratu du gurasoekin eta herritarrekin taldea osatu dutela indarrak batu eta lan egiteko. **Herri pedagogiaren jarraikortasunarekiko kezka eta beldurra dago; zer gertatzen da?**

Urte luzez, eskolan klaustro finkoa egon da eta horrek Antzuolako eskolak duen pedagogia metodoa aurrera eramaten lagundu du. Baina orain dela hamar urtetik hona, haur kopurua gora egin du eta gela gehiago eduki ditu eskolak kurtso berean. Horrek eragin du finkoak ez diren irakasle kopurua haztea eskolan. Horri gehitu behar zaio esperientziadun irakasleak erretiroa hartuz doazela. Hemendik eta 2022ra bitartean espero da beste sei irakasle erretiroa hartzea. Hala, irakasle ez finkoak izateak dakarren arazoa da metodoa ere arriskuan jartzea.

**Antzuolarendako zergatik da garrantzitsua metodoari eustea?**

80ko hamarkada hasieran, bi eskola zeuden Antzuolan, eta euskal eskola publiko eta berri-zaile baten aldeko apustua egin zen. Eta orduko irakasleen esperientziarekin eta gurasoen laguntzarekin, eskola esperimental deritzona sortu zen. Orduan egin ziren egungo metodologiaren lehen urratsak. Gu orduan ikasle ginen eta esperientzia positiboa izan dugu. Orain, guraso gara eta seme-alabendako ere metodologia honekin aurrera egitea ona dela deritzogu. Kanpotik datorrenak



Nora Legorburu, Goiena telebistako platoon. MAIDER ARREGI

## "ANTZUOLARA ETORTZEAREN GAKOETAKO BAT ESKOLA BERA DELA AITORTZEN DIGUTE"

aitortzen digu Antzuolara etortzearen abantailatako bat eskolaren metodologia ere badela, hain zuzen ere.

**Zein urrats egingo duzue eskolako metodologiari eusteko?**

Gure erronka irakasle finkoak edukitzea da. Udalak, irakasleek eta guraso elkarteak elkarlanean dihardute. Hezkuntzako talde ezberdinekin harremanetan gabilta. Baina orain arte ez da ezer lortu. Lanean jarraituko dugu, Hezkuntza Saitetik errekonozimendua eta borondatea egon badagoelako. Hala ere, zalantza batzuk ere sortzen dira, eta hor egin behar dugu lan.

**Herritarrendako batzar informatzaileak egin dituzue. Zein balorazio egiten duzue?**

Apirilean egin genituen bi bilerak gurasoei eta, orokorrean, herritarrei eskainiak. Eskola zein unetan dagoen azaltzea zen

asmoa. Eskolaren funtzionamendua eta egungo egoera zein zen azaldu genien.

**Urratsak egiteko, taldea sortzea duzue helburu.**

Jendeak interesa badauka, eta herriko parte hartze prozesuan azaleratu den kezketako bat izan da metodologiaren jarraikortasuna. Herritarrekin eta gurasoekin osatutako taldea sortu dugu. Esan moduan, gurasoek badaukagu interesa, baina atxikimendua antzuolar ororena dela esango nuke. Baina sortu berri dugun taldearekin, oraingoz, ez dugu ezer egin; une honetan, hezkuntzako talde ezberdinekin harremanetan gabilta. Hortik irteten denaren arabera jokatu dugu taldean.

**Emaitza onak eman dituen pedagogia dela diozue.**

Bai, hala da; beste eskola batekiko konparaziorik ez dut egin gura, baina emaitzak onak dira frogatuta dago. Gainera, behin Antzuolatik Bergarara joaten direnean ikasleei jarraitpena egiten zaie eta emaitzek onak izaten jarraitzen dutela ikusi da. Eskola batetik bestera egokitzeko arazorik ez dagoela argi ikusi da.



GOIENA

## Bigarren kanporaketak, domekan

Dagoeneko hasi da emakumezkoen I. San Isidro pilota txapelketa. Infantil-kadete mailako finala erabakita geratu da: Maddi Berrocal eta Uxue Zubizarreta bikote bergararra Maddalen Etxegarai eta Uxue Osés bikote oñatiarraren aurka lehiatuko da maiatzaren 18ko finalean. Domeka honetan, gainontzeko kategorien txanda izango da, 09:00etan hasita.

## Menu beganoa aukeran San Isidro eguneko bazkarian

Maiatzaren 18an, San Isidro eta Debagoieneko Atzegi eta Artzain egunak ospatzeko, herri bazkaria egingo da patioan *-zero kilometro* produktuetan oinarritutako bazkaria da-. Txartelak salgai dardelaren 13ra arte udaletxean eta liburutegian. Helduendako eta haurrendako menuez gain, menu beganoa dastatzeko aukera ere badago aurten.

## Udalekuetako begiraleak hartzeko deialdia abian da

Uztailaren 1etik 18ra, umeentzako udalekuak izango dira Antzuolan, eta begiraleak hartzeko deialdia zabaldu du Udalak. Izena emateko azken eguna maiatzaren 12a da. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea, 2019an 18 urte beteta izatea eta formakuntza, programazio eta errepaso bileretan parte hartzea. Informazio gehiago: [Goiena.eus/antzuola](http://Goiena.eus/antzuola).

## GORA ETA BEHERA



P.O.

## Okerreko kartela jarri dute bidegorrian

Herritar batek salatu du Mahatzerreka paretik igarotzen den bidegorri zatian okerreko kartela jarri duela Diputazioak, Antzuola eta Soraluez lotzen dituen Bide Berdeari dagokio eta.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.





Gela aurrefabrikatuak eskolako patio ondoko aparkalekuan jarri dituzte. GOIENA

# Gela aurrefabrikatuak lekuz aldatu dituzte

Herri Eskola handitzeko obra nagusia ikasturtea bukatzean hasiko da. Baina, bien bitartean, gela aurrefabrikatuak tokiz aldatu dituzte. Ikasleek dagoeneko bertan jasotzen dituzte eskolak. Geletatik patiorako zuzeneko sarbidea ere egokitu dute

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Aste Santuko oporren bueltan, Herri Eskolako gela aurrefabrikatuak lekuz aldatu dituzte, eskolako patioaren alboan zeuden aparkalekuen gunera eroan dituzte-eta jada. Aste Santuko oporren ostetik, ikasleek erabilgarri dituzte gelak. Herri Eskola handitzeko lanek, aldiz, ikasturtea amaitu arte itzarongo dute: "Esan digute eskolako obra udan hasiko dela, baina ez digute gehiago argitu. Obra izango da justu aurrefabrikatuak zeuden tokian. Horregatik mugitu dira tokiz eskolako patio ondoan zeuden aparkalekuen gunera. Obra nork egingo duen esleitzeko dago", dio Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.

Eta behin eskola handitzeko lanak hasten direnean ezingo da barruko patiotik kanpoko patiora joan. Eta horregatik behin-behineko sarrera egin dela gela aurrefabrikatuak dauden tokitik eskolako patiora argitu du Valen Moñuxek.

## Haur eskola

Herri Eskolako lanekin lotura dute haureskola gazte txokora eramateko lanek ere. Moñux Hirigintza teknikariak aurreratu du hasita daudela egokitze lanak. "Ekain hasieran bukatuko dira haur eskola egokitze lanak".

Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak argitu du gazte txokoa egokitze lanak beharrezkoak direla, haur eskolak kondizio bereziak behar dituelako: "Ohartu gara haur eskola eskolako eraikinean dagoela eta obragunetik kanpo mantendu beharreko zerbitzua dela. Horregatik, gazte txokora eramango da zerbitzua". Egokitzapen lanak egin behar dira, ordea,

**ESKOLAKO OBRA  
HANDIA IKASTURTEA  
BUKATU OSTEAN  
HASIKO DU  
HEZKUNTZA SAILAK**

eta 25.000 euro inguruko kostua izango dute lanok. "Antzuolako herriarendako, haur eskolaren zerbitzua estrategikoa eta oso garrantzitsua da, gainera; eta, beraz, beharrezkoak diren egokitzapenak egingo ditugu bertan", argitu du Kortabarriak. Auzolanean egingo da trasladoa eta ekainerako haur eskola gazte txokoa egongo da; ondorioz, apirilera amaitu egin da gazte txokoko aurtengo kurtsoa.

## Bestelako lanak

Eskola inguruan egiteko dauden bestelako lanen artean daude eskolako balkoia berritzea. Herdoilduta dago eta hau osorik berritzeak 15.000 euroko kostua dauka. Patioaren itxidurarako ere 40.000 euro jasoak ditu aurtengo aurrekontuak. Hala ere, eskolako obren ondorioz, osorik ezingo dela patioa itxi aurreratu du alkateak: "Gela aurrefabrikatuak patioaren ondoan daude eta sarrera zuzena egin zaio. Horregatik, hesiaren zati bat itxiko dugu soilik aurtan".



ANTZUOLAKO EH BILDU

## Hainbat lantalde egingo dituzte

EH Bilduko lantaldeak hurrengo agintaldirako dituen proposamenak aurkeztu eta eztabaidatu ditu asteon. "Antolatze moduz ere hitz egin dugu, herritar eta zinegotziz osatutako lantalde ezberdinak eratzeko proiektua dugu-eta eskuartean", azaldu dute. Maiatzaren 23an, eguena, egingo dute programa aurkezteko ekitaldia, 19:00etan, Zurrategin.

**60** urte  
**Goizper Group**  
Elkarlanean garatzen

Hazten segitzen dugu...

**MEKANIZAZIO LANGILE  
baten bila gabilta!**

Mekanizatuko goi-maila baduzu, lan esperientzia pieza unitarioetan eta proiektuko pertsona bazara, ezagutu egin nahi zaitugu.

[rrhh@goizper.com](mailto:rrhh@goizper.com)

[www.goizper.com](http://www.goizper.com)



# Herritar guztien bultzada eskatu du EH Bilduk

Maddalen Iriarte eta Jon Iñarritu Elgetan izan ziren martitzenean. Iraitz Lazkano buru duen hautagaitzari babesa eskaintzeaz gainera, EH Bilduko ordezkariak hainbat erakundetan egiten duten lanaren berri ematera etorri ziren

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

40 bat lagunek jarraitu zituzten, Rebeka Uberaren galderak erantzunez, Gasteizen legebiltzarkide den Maddalen Iriarteren eta Madrilgo erakundeetan lanean diharduen Jon Iñarrituen azalpenak. Hizpide izan zituzten, besteak beste, gaur egungo egoera politikoa, Kataluniako *proces*-a, politika egiteko modu batzuek eragin duten prestigiorik eza eta, batez ere, euskal errepublika bat eraikitzearen premia. Iriartek oso argi du posible dela, herritar guztien bultzadarekin. "Hobeto egon gaitezke eta euskal errepublika independente bat posible da. Guztion artean egin behar dugu", adierazi zuen. "Ekarriko luke guk geure burua gobernatzea eta Europako beste estatu batzuen pare aritzea. Horrekin batera, egunero gure bizitzan zerikusia duten politikak egikaritzeko aukera edukitzea. Hezkuntzarekin, adibidez, gertatzen zaigu. Gure hezkuntza sistema nahi dugu, baina Espainiako gobernuak LOMCE aplikatu behar dela esaten digu. Edo nahi dugu pentsiodunei pentsio duinak ematea, baina Espainiaren baitan dago gure pentsio sistema. Hizkuntzari, enpleguari, feminismoari... Jendarte bat eraikitze behar ditugun poli-



Maddalen Iriarte hitzaldia egiten, Jon Iñarritu alboan dituela. L.Z.L.

## MADDALEN IRIARTE: "GAUZAK HOBETU DAITEZKE ETA EUSKAL ERREPUBLIKA POSIBLE DA"

tika guztiak guk gure jendarte honetan erabakiko genituzke, eta ez Espainiak aginduta".

### Herri txikiak badute etorkizuna

Ekitaldian izan ziren, nola ez, Elgetako EH Bilduko hautagai-

tzako kideak. Iraitz Lazkano alkategaiak garrantzia ematen dio erakunde ezberdinetan lanean diharduten EH Bilduko kideen arteko elkarlanari. "Lanean dihardugun jendea gara eta gaurko ekitaldiak balioko du ikuspegiak bateratzeko eta aurrera begirako plangintzak egiten jartzeko. Herri txikiak, askotan, plangintzetako azken tokietan gelditzen gara, eta ikusarazi behar dugu herri txikiok badugula etorkizuna, eta badagoela hemen jendea prest herriaren alde lan egiteko".



L.Z.L.

## Bihotz-biriketako suspertzea

Bihotz-biriketako gelditzeak gertatzen direnean nola jokatu jakiteko formakuntza jaso dute herrian hainbat lagunak. Ordu eta erdiko bi saiotan, lehen sorospenen gainera azalpenak eta desfibriladore baten erabileraren inguruko argibideak jaso dituzte Fernando Albenizen eskutik. Udalak azaroan ipini zuen desfibriladore bat herriko plazako zutabeetako batean.

## Hauteskunde eguneko mahaikideak izendatuta daude

Maiatzaren 26an izango diren hauteskundeetarako mahaikideen zozketa eginda dago. Hauteskunde horietan, udaletako, Foru Aldundiko eta Europako erakundeetako ordezkariak aukeratu dituzte herritarrek.

Udalek egin behar izaten dute mahaikideak aukeratzeko zozketa, eta, Elgetaren kasuan, apirilaren 29an egin zuten.

Elgetan egongo den mahai bakarreko presidente kargurako Maitena Mañarikua dago izendatuta. Lehenengo ordezkoa da Nagore Ojanguren eta bigarrena Oier Landaburu.

Lehenengo mahaikidea Eneritz Larrea da. Lehenengo ordezkoa Olga Fernandez da eta bigarrena, Narciso Martin.

Bigarren mahaikidea, berriz, Asier Errarte da. Lehenengo ordezkoa Ainarra Sangroniz da eta bigarrena, Jesusa Iturricastillo.

## OHARRAK

### 'Gu ere kontalari', gaur, liburutegian

Neska-mutikoek egindako kontalari saioa, 17:00etan.

### Frontenis txapelketa, zapatuan eta domekan

Bigarren jardunaldiko partidak, frontoian, egun osoz.

### Jaietako kartel proposamenak, buztin gelan

Domekara arte dago zabalik gustukoena bozkatzeko aukera.

### Ozkarbi eguneko bazkarirako txartelak, salgai

Maiatzaren 25erako buruhandiak, bazkaria eta erromeria daude iragarrita. Elkarteko ordenagailuan erreserbatu behar da bazkaria. Prezioak dira: helduak 25 euro eta umeak 5 euro.

### Komunikazioa hobetzeko formazioa, eskolan

Martitzenean, 17:00etan, guraso eta begiraleendako saioa.

### Nekazaritzako ibilgailuendako IAT, Pagatzen

Teknikoak industrialdean izango dira eguaztenean, 12:00etan.

### Podologia erretiratuendako, hilaren 16an

Txanda hartzeko aurrez deitu behar da: 943 76 80 77 (Nati).

## Iraitz Lazkano: "Garbi dugu Elgetan zein behar dauden"

Hautagaitza "sendoa", "elgetarra" eta "herrigintzan esperientzia duena" osatu dutela adierazi du Iraitz Lazkanok. Martitzenean egin zuten jendurreko aurkezpena, Iriarte eta Iñarritu herrian zirela. EH Bilduk hilaren 14rako iragarri du hurrengo ekitaldia. Aritz Saidi Olaortuak *Zer gertatzen da Sirian?* hitzaldia egingo du, 19:00etan, udaletxean.



Iraitz Lazkano buru duen hautagaitzaren aurkezpen ekitaldia. ELGETAKO EH BILDU



# Eskerrak emanez esan dute agur Biainek eta Idoiagak

Etxekoei, udal langileei, ondoan izan dituzten taldekideei eta herritarrei eskerrak emanda esan diote agur udalgintzari Mikel Biainek eta Lourdes Idoiagak. Euren arteko harremana ona izan dela esan dute biek, eta herriaren onerako lan egin dutela

## Oihana Elortza OÑATI

Agintaldiko azken ohiko osoko bilkura egin zuen hilaren 2an Oñatiko udalbatzak. Zinegotzietako batzuk hurrengo hauteskundeetako zerrendetan daude eta zeregin horretan jarraitzeko aurkeztu dira. Beste askorendako, ordea, agur-eguna izan zen. Besteak beste, Mikel Biain alkatearendako eta oposizioburu izan den Lourdes Idoiaga jeltzailearendako. Eskerrak emanez esan zuten agur biek.

Ordu erdi pasa iraun zuen osoko bilkurak eta alderdi bietako bozeramaileen agur hitzek bete zituzten minutu gehienak. Hainbat herritar aretora joan ziren osoko bilkura bertatik bertara jarraitzera. Ezker abertzaleak gehienak; tartean, hurrengo hauteskundeetako EH Bilduren zerrendan daudenak. Bataren zein bestearen agurrak entzundakoan, txalo egin zuten guztiek, udalbatza osatzen duten zinegotzi guztiekin batera.



Alkatea, zinegotziak, kontu hartzailea eta idazkaria azken ohiko osoko bilkuran. O.E.

## Zeregin berrietara

Mikel Biain alkateak zortzi urte egin ditu udalgintzan eta hemendik aurrera ere gertutik jarraituko du politika. "Batzar Nagusietan izango naiz eta ardura hori beteko dut, baina

zaintzara bideratuko ditut nire orduak, etxekoen zaintzara". Lourdes Idoiagak hamasei urte egin ditu Oñatiko udalbatzan eta hemendik aurrera Arizmen-diarrieta Fundazioan ibiliko da buru-belarri.


## Biainen eta Idoiagaren esker onak



MIKEL BIAIN  
ALKATEA

## "Gora herria!"

Agintaldi biak bakarria moduan hartzen dituela esan zuen Mikel Biainek, eta esperientzia "aberasgarria" izan dela: "Ikaste prozesu bat; eta horrekin geratzen naiz, une gazi-gozen gaineratik. Lan asko egin dugu, onura publikoa izan da gure iparra". Beretako izan diren "indargune" batzuk aipatu zituen: hezkuntza komunitatea indartzea, kultura eta sormena sustatzea eta oinezkoei lehenetsuna ematea, adibidez. "Udalbatza osatzen dugunok herriarekin dugu konpromisoa; herri bizia da Oñati eta pertsona konprometituak ditu", esan zuen. Lana etxekoei modu orekatuan eramaten saiatu dela esan zuen eta duen zorra kentzen ahalginduko dela orain. "Gora herria!" esanez agurtu zen.



LOURDES IDOAGA EAJ-KO  
UDAL BOZERAMAILEA

## "Borondaterik ez zaigu falta"

Lourdes Idoiagak adierazi zuen udalbatzako kide izan den hamasei urteetan "borondatearekin" lan egin dutela, "herriaren onerako beti". Azken agintaldi honetan ere ekarpen asko egin dituztela esan zuen eta oposizio "erakitzailea" egin dutela. Gaineratu zuen udalbatza "demokraziaren muina" dela: "Illegalizazio garaian Ereitten eta beste alderdi batzuk defendatu genituen, eta harro gaude horretaz. Udalbatzak bihotz onez lan egiten duen adibide da hori". Zinegotzi izateko erabakia hartzen duten herritarrek "ausartak" direla esan zuen Idoiagak, eta eskerrak eman zizkien orain arte izandako denei eta hemendik aurrera izango direnei, "konpromisoa eta ardura" hartu dutelako.

## Hainbat gaztek eta erretiratut babesa eman diote EH Bilduri

Azken zortzi urteetan Oñatiko Udalak egin duen lana goraiatu dute, bakoitzak bere esparruan

## O.E. OÑATI

Datorren maiatzaren 26an egingo diren foru eta udal hauteskundeetako begira, herriko hainbat gaztek eta helduk agerraldi bana egin dute euren babesa EH Bildu alderdiari emateko.

## Gizarte politikak

Pentsiodunen kasuan, esaterako, herriko hainbat erretiratu elkartu ziren astelehen eguerdian, Duintasuna elkar-teak deituta. Adierazi zuten gizarte politikek pertsona

guztiengan garrantzi handia dutela, batez ere, adinekoengan, eta azken zortzi urteetan Udalak herriari emandako gizarte zerbitzua "bikaina" izan dela.

Hainbat adibide eman zituzten: menpekotasuna duten pertsonen laguntza, etxeko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa prozesua egitea, autonomia pertsonala sustatzea eguneko zentroko plazak gehitzea eta Bizipoz moduko ekintza berritzaileak bultzatzea, hain zuzen ere.

## Gazteen agerraldia

Dozena gaztek ere prentsa agerraldia egin zuten, "etorkizun euskaldun, ezkertiar, feminista eta abertzale baterako" EH Bilduren alde daudela adierazteko. Agerraldia egin eta adierazi zuten "aurrerapauso handiak" izan direla herrian azken urteetan, "berdintasunean, autogestioan, giza eskubideen defentsan, kultura sormenean eta ingurumenean". Baina "egiteko asko" dagoela gaineratu zuten, eta datorren garaia "erabakigarria" izango dela gaineratu. Datorren garaia "erabakigarriaren" aurrean, eurei "determinanteak" izatea dagokielako adierazi zuten gazteek.

EH Bilduko zerrendan doazen hainbat lagunek hartu zuten parte bi ekitaldietan.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

## Gaitasunak eta mugak

Amaia garraio enpresa bateko gerentea da, baina gauetan ez du lorik egiten eta antsietateak harrapatuta bizi da. Mirenek adimen urritasuna du, baina badaiki bizitzako gauza txikiez gozaten eta esker oneko izaten. Mikel oso azkarra da, baina taldean lan egiteko zailtasunak ditu eta lankideak gutxiesten ditu egunero. Jesusek ez du piperrik ikusten, baina errebelazio aktore onenaren Goya saria jaso du aurtan, eta askok, duen gizatasun zabalagatik miresmenegaz begiratzen diogu. Alberto kudeatzaile eraginkorra da, eta baita diruzale amorratua ere. Xabierrek lan baldintza onak ditu, baina burumakur ibiltzen da eta ez du lanerako irrikarik erakusten. Gauza berriak ikasteko orduan arazoak ditu Leirek, baina giza harremanetan oso maitagarria eta eskuzabala da...

Azken batean, argi dago pertsona guztiok gaitasun eta muga desberdinak ditugula, inor ez dagoela inoren gaineratik, elkarren arteko harremanak aberasten gaituela, enpatiak mesede handia egiten digula eta duintasunean berdinez gaituak. Nork esan dezake kontrakorik?





Santa Ana aretoko sarreran jarriko dituzte informazio panelak. O.E.

## Kiroldegi berriko irudi birtualak ikus daitezke

Santa Ana aretoko sarreran 70x100 zentimetroko bederatzi panel jarri dituzte eraberritutako Zubikoako irudiekin eta testuekin. Bi faseetako lanak daude jasota eta QR kodea irakurrita gune berrituak nolakoak izango diren ikus daitezke

### Oihana Elortza OÑATI

Zubikoa kiroldegi eraberritu ostean nolakoak izango den erakutsiko duten informazio panelak daude ikusgai Santa Ana aretoko sarreran. Argazkiak eta testua dituzte panel horiek, baina baita QR kodea ere, telefono adimendunekin irakurri eta pantailan panel horretako argazkietan agertzen diren espazioak 360 graduan ikusteko.

### Abuztuan hasiko dira

Bi fasetan egingo dituzte lanak eta bietako informazioa dago paneletan. Gune bustiari dagokion panelean, igerileku handiak bi metroko bederatzi kale izango dituela dator idatzita, eta uraren sakonera txikiagoa izango dela: 1,30 eta 1,60 metro artekoa izango da. Ur putzu txikia zenbat handiagoa izango den ere bai: 6x12 metrotik 8x16 metrora pasako da. Panelaren QRa irakurritz gero modu ikusgarriagoan ikusiko dira bi igerilekuak eta 100 pertsonarendako harmaila.

### Egunak eta ordutegiak

Goiz eta arratsalde egongo da zabalik eta azalpenak emango dituzten bisitak ere egingo dira.

#### Erakusketa zabalik maiatzaren 9tik 19ra\*

- Astelehenetik egubakoitzera: 09:00 - 20:30.
- Zapatuan eta domekan: 10:00-20:00.

#### Azalpenak ematen egongo diren egunak

- Maiatzaren 14an eta 16an: 11:30 - 13:00.
- Maiatzaren 13an, 15ean eta 17an: 17:00etatik 19:00etara.

\* 10ean itxita egongo da, enpresa batek bilera duelako hor

Sarrera berria nolakoak izango den, kanpoko belardian egingo duten ur txorrotan gunea nolakoak izango den eta bigarren faserako utzi dituzten tenis pistek zein itxura izango duten ere ikus daitezke informazio-gune horretan. "Egia da luze joan dela prozesua, baina hobera egiteko izan da egindako lan guztia. Hiru proiektu aurkeztu ziren lehiaketara eta hiruretatik egokiena iruditu zaiguna da hau. LKSk egin du eta bertako teknikari Joxe Oleaga oñatiarra izateak ere asko lagundu du", dio Borja Moiuia Kirol zinegotziak. "Squashko bi gelak kendu eta bakarra geldituko da, hobea. Rokodromoa handiagoa izango da, baita gimnasioa ere: 340 metro karratutik 566 izatera pasako da", gaineratu du.

Obrak egiteko proposamenak egin dituzten enpresen eskaintzak zabaldu eta aztertze fasea hasiko da orain. Asmoa da lanak ekainean lizitatzea eta abuztuan hasia.

## Sindikatik gorako balizak topatu beharko dituzte domekan

Maila ezberdinetako hiru bide egongo dira Arantzazun izango den Gipuzkoako orientazio ligako proban

### O.E. OÑATI

Domeka goizean egingo dute, Arantzazun, Gipuzkoako orientazio ligako bosgarren proba. Maila txikiko, ertaineko eta zaileko ibilbide edo proba bana dute antolatuta eta horietan ondo gaintzea izango da parte-hartzaileen lana. Umeek, familiak, gazteek zein helduek hartuko dute parte. Dendaren aurrean elkartuko dira eta han alokatuko dituzte txipak.

Mapak banatu, eta Sindikako aparkalekuan egongo da irteera puntua. "Minutu edo bi minutuko aldearekin aterako dira parte-hartzaileak. Mapan markatuta dauden triangeluak topatu, eta txipak sartu beharko dituzte. Helmugara iritsitakoan ikusiko da bakoitza zein kontrol guneetatik pasa den, eta, eskutakoa betez gero, proba ontzat emango da", dio Asier Osinagak.



Zirkuitua prestatzeko lanetan. A.O.

### Orientazio 'raid'-a

Bestalde, Oñatiko *raid* orientazio taldea abenturazko *raid* bat antolatzen ari da. Ekainaren 15ean eta 16an izango da eta hainbat proba egongo dira. Internet bidez eman daitezke da goeneko izena.

## Momentu historikoak jasotzen dituzten bi erakusketa daude

Momentu, egoera, lanbide eta pasarte historikoak jasotzen dituzten bi erakusketa zabaldu dituzte aste honetan herrian.

Bakardadeko Ama kalean, Egaña janari denda egon zen lokalean, *Emakumeak errekauntan* izenekoak zabaldu zuten atzo, eguna. Udalak emandako Selma Huxley Barkham bekarekin Jone Arrazolak eta Irati Garaik egin-

dako ikerketa lanaren parte da erakusketa hori. Azalpenak ematen egongo dira egileak lokalean eta herrian zehar ere egingo dituzte bisita gidatuak. Eguenetik zapatara arratsalde egongo da zabalik eta domeketan, goiz eta arratsalde.

Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, berriz, garai bateko Gipuzkoako eta bailarako garraibideak kirol bihurtzera izan duten eboluzioa erakutsiko dute, aspaldiko dokumentuen eta inskribuen bidez.

## Baserriko lagunez jantziko dira bihar San Migel Txikitán

San Migel Txiki jaiak ospatuko dituzte asteburuan Kale Zaharrean eta inguruetan. Mozorro eguna izango da bihar, eta aurreko pentasatutako gaia da: baserriko lagunak. Mozorroez gain, baina, musika, jolasak, ardo eta gazta dastaketa, auzo bazkaria, artisauak, kirol hitzorduak eta txorimaloak egongo dira, besteak beste, domekara bitartean.

## OHARRAK

### 1981eko kintoak

Peru Harri bisitatzea joango dira 1981eko kintoak ekainaren 1ean. Izena hilaren 20a aurretik eman behar da. Telefonoa: 645 73 24 12 (Jabi).

### 1944an jaiotakoak

1944an jaiotek 75 urte beteko dituzte aurten eta ospakizun berezia egingo dute hilaren 17an. Irizar estankotan eman behar da izena.

# "Estresa etxean utzita aterako gara zelaira"

**ENDIKA RUIZ ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA**

"Ilusio handia" du Endika Ruizek zapatuko partidurako. Galtzeko gutxi eta irabazteko asko duten sentsazioarekin jokatu behar dutela dio, "disfrutatzen"

**Oihana Elortza OÑATI**

Denboraldiko azken partidua jokatu du asteburuan Aloña Mendiko futboleko talde nagusiak. Igoera du jokoan. Partidu gogorra izango da, lehen postuan sailkatuta dagoen Urolaren kontra baitu. Bigarren geldituz gero, beste multzoko bigarrenaren aurka jokatu dute eta irabaziz gero mailaz igoko litzateke talde oñatiarra.

**Aukera guztiak dituzue zabalik. Denboraldi amaierara horrela heldu gura zenuten?**

Bai. Jardunaldi asko goaz esaten azken *tren* hori hartu gura dugula. Nik, egia esan, ilusio berezia dut. Ez dut inoiz horrelako partidurik jokatu, ezta jokalarari moduan ere. Etxean da, gainera, Azkoagainen. Galtzeko gutxi eta irabazteko asko dugu. Ea toki polit batera eramaten gaituen *tren* horrek. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

**Zuek emaitza onak lortu behar, baina beste taldeen emaitzek ere pisua dute.**

Garbi dagoena da irabazi egin behar dugula; bi goleko errentarekin irabazi behar dugu, gainera. Gure esku dagoena hori da eta hori egin behar dugu. Egia da zaila izango dela, baina gustura nago azken partidura aukerarekin heldu garelako. Heldu gara eta pozik nago, bai.

**Nolako taldea da Urola?**

Talde gogorra da. Kategoriaz jaitsi berri den taldea da. Dituen hiruzpalau jokalarari beterranoak dira, eta oinarri sendoa izaten da hori. Zaila izango da, baina guk etxean jokatzeko dugu, eta ea publikoak, zaleek, ere laguntzen digun. Lehen esandako moduan, galtzeko gutxi eta irabazteko asko dugu, konbentzimendu horrekin atera behar dugu, tentsioa etxean utzita. Ea denon artean lortzen dugun.

**Zapatuan izango da norgehiagoka.**

Bai, eta ea jendea datorren ikustera. Politza izaten da zaleak



Endika Ruiz, Mojategin, azken asteburuan Mondraren aurka jokatu ostean. GOIENA

**"IRABAZTEA DA HELBURUA, ETA DISFRUTATZEN BADUGU, ERRAZAGO LORTUKO DUGU"**

futbol zelaietan ikustea, animatzen ikustea. Joan den zapatuan Arrasateko Mondra taldearen aurka jokatu genuenean ere ikusi nituen batzuk; asko eskertzen da hori. Zapatuan ere laguntzen badigute, ba, askoz hobeto.

**Aste honetako entrenamenduak ezberdinak izan dira?**

Ez, ez. Saiatu gara aste normala izaten oraingo hau ere. Ilusio handiarekin entrenatu gara, hori bai, baina ohiko entrenamendu saioak izan dira.


**Zein helbururekin irtengo zarete Azkoagainera?**

Irabaztea da helburua, noski, baina, tentsioz jokatzeko badugu, gero eta urrutiago izango dugu helburua. Partiduaz disfrutatzen badugu, askoz errazagoa izango zaigu irabaztea, hori ziurra da. Beraz, intentsitate handiarekin eta ilusioz zapalduko dugu berdegunea.

**Zapatuan da partidua, 17:30ean**

Futboleko lehiaketa batzordeak erabakita, zapatuan jokatu du Aloña Mendiko denboraldiko azken partidua; 17:30ean hasiko da norgehiagoka.

Zumarragako Urola taldea izango da aurkaria, Aloña Mendiko taldearen entrenatzaile izandako Josu Zubia aretxabaletarrak zuzentzen duen taldea, hain zuzen ere. Javi Aspiazu futboleko presidentek dei egin gura die herritarrei Azkoagainera joan eta etxeko taldea animatzeko: "Zumarragatik 100 sarrera eskatu dizkigute, girorik ez da faltako". Nagusien sarrerak bost euro balioko du eta gaztetxoek, bi euro. Taberna zerbitzua ohikoa baino handiagoa izango da domekan.



Aurreko edizioetako txapelkunak eta finalistetako batzuk plazako frontoian. O.E.

## Herriko pilota txapelketa dator eta izen ematea zabalik dago

Ekaineko lehen astean hasiko da txapelketa, eta, ohikoa den moduan, herriko jaietan jokatu dira finalak

**O.E. OÑATI**

Datorren hilean, ekainean, hasiko da Aloña Mendi elkarteak eta herriko txosna batzordeak elkarrekin antolatzen duten herriko pilota txapelketa. "Egutegia aurreko urteetako bera izango da: ekainean eta uztailean jokatu dira partidua, taldekako faseetan, eta azken aurrekoak eta finalak irailean", adierazi du antolatze lanetan dabilen Iñigo Igartuak. Plazako frontoian jokatu dira partidua.

Aspaldikoa da herri mailako pilota txapelketa; duela bost urte, herriko eragile biak batu

eta txapelketa indartzea erabaki zuten. "Joan den urtean, 39 bikotek eman zuten izena, baina gehiago dira txapelketa jarraitzen dutenak. Lagunartean jokatzeko txapelketa da, baina nork txapela jantziko amorruekin. Maila ona egoten da eta iraileko partiduetan jende asko batzen da", dio Igartuak. Antolatzaileen taldea osatzeko, izena ematen dutenen artean zozketa egingo dute, hamar bikote egoteko.

Parte hartu gura dutenek Ona edo Arrano tabernetan eman behar dute izena hilaren 19a aurretik.

## Zubikoan da saskibaloiko infantil txikien lauko finala

Zapatu goizean jokatu dituzte lehen bi partidua, kantxa berdean, eta domeka eguerdian da finala

**O.E. OÑATI**

Aloña Mendiko saskibaloiko sailko infantil txiki mailako taldeak lauko finala jokatu du asteburuan Zubikoan kiroldegian. Donostiako Atletico San Sebastian, Hondarribiko Ama Gualupekoa eta Zarautz dira beste hiru taldeak. "Guk 10:00etan jokatu dugu, Donostiako taldearen aurka, eta beste bien artekoa 12:00etan izango da. Partidu bietako irabazleek elkarren kontra jokatu dute domekan, 12:00etan", adierazi du Iñigo Zabaleta entrenatzaileak.

Junior mailakoek ere partidu garrantzitsua dute asteburuan. Bihar, zapatua, Hernanira joango dira eta hango taldearen kontra jokatu dute, 16:00etan. Beste bi talde ere badaude errendimendu mailara igotzeko fase honetan. Arrasate eta Hernaniko beste talde bat dira eta 18:00etan jokatu dute horiek.

Senior mailako taldeak datorren asteburuan du goiera faseko azken norgehiagoka. Hilaren 18an jokatu du, Donostian, eta, irabaziz gero, Tolosako kantxa finala.



# "Gure aukerak izango ditugula sinistuta nago"

OIHANA ALDAI REAL SOCIEDAD TALDEKO ATEZAINA

**FUTBOLA** Liga amaitu berri –zazpigarren izan da Real–, talde txuri-urdinak Erreginaren Kopako finala jokatu du bihar, zapatua, Granadan (20:30)

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Egun historikoa izango da bihar, Realarendako, emakumezkoen taldea Kopako finalean izango da eta, Atletico Madril boteretsuaren aurrean. hain zuzen ere. Oihana Aldai (Aretxabaleta, 1992) atezainak bertatik bertara jarraituko du futbol jaia, nahiz eta ez den gehien maitatuko lukeen postuan egongo: atepean, eskularruak jantzita.

**Zapatuko partidura begira ze giro sumatzen duzue taldean?**

Jendea ilusio handiarekin ikusten dut finalera begira. Badakigu oso erronka zaila izango dela, Atletico oso talde indartsua delako, baina gure eskuetan dagoen dena egingo dugu partidua irabazteko. Norgehiagoka bakarrean edozer gerta daiteke. **Madridgo taldeak liga irabazi berri du. Erlaxatuago egon daitezke?**

Ez dut uste. Txapeldunen Ligatik kanpo daude, eta Liga dagoeneko irabazita Koparekin *dobletea* egin gurako dute. **Ligako azken norgehiagoka euren kontra jokatu duzue –1-3 galdu zuen Realak–; zer ez duzuen errepikatu behar garbi izateko lagun-garri da?**

Bada, ez dakit. Edozein partiduren aurretik, astean ondo prestatzen dugu norgehiagoka, kontrarioaren gaineko bideoak ikusita... Egia da azken partiduan gertatutakoa fresko-fresko dugu buruan eta aste barruan gauza ezberdinak probatzen ibili dela entrenatzailea. Gero, ikusi egin behar...

**Atleticoren partidu hasiera intentsuari aurre ondo egitea izango da lehenengo gakoetako bat.**

Hori da; hasieratik berdegunean ondo kokatuta. Oso fuerte hasten dituzte norgehiagokak; lehen bultzada horri eutsi behar diogu, eta ondoren gure jokoa egiten hasi. Zaila izango da, baina sinistuta nago Kopa irabazteko gure aukerak izango ditugula.



Oihana Aldai, baloia atxikitzeko unean. REAL SOCIEDAD / TWITTER.

**"AURTEN EZ DUT ASKORIK JOKATU; BANEKIEN ZEREN ALDEKO APUSTUA EGITEN NUEN"**

**Gertatzen dena gertatzen dela, Anoetan izango zarete domekan.**

Bai, gizezkoen Realak Real Madril taldearen kontra jokatu du (18:30) eta partidua aurretik harrera egingo digute eta ohorezko sakea egingo dugu. Guk, baina, momentu horretan Erreginaren Kopa zaleei eskaini gura diegu; ea lortzen dugun. **Emakumeen futbolak erabateko eztanda egin du azken urte honetan.** Bai, azken urtean ikusten ari gara, orokorrean, emakumezkoen kirola zelan datorren behetik gora, baina azken urte hau garrantzitsua izan da emakumezkoen futbolean. Ligan ikusten ari gara geroago eta lehiakortasun handiagoa dagoela, mailak izugarri egin duela gora, eta, gainera, aurten Munduko Txapelketa Frantziara jokatu dute eta Espainiako selekzioa bertan izango da. Horrek guztiak la-

gundu egiten du gure kirolak gora egin dezan, eta klubetan ere apustua egiten dabilta.

**Atletico Madril moduko talde batek, baina, profesionalismoan beste pauso bat egin du aurrera?**

Bueno, pauso bat aurrerago dauden klubak dira horiek. Guk jokalarik semiprofesionalak ditugu, jardun erdiz lanean gabiltzanak, ikasten dabilzan jokalariek erabat profesionalak dira. **Talde moduan bistan da urte oso polita egiten zabilzate. Baina arlo pertsonalean zer moduz? Izan ere, jokalariek batek jokatu egin gura izaten du.**

Bai, hori hala da; aurten Ligan oso aukera gutxi izan dute, bi partidutan bakarrik jokatu dudelako. Beti esan ohi dut atezainaren postua oso zaila dela, pertsona bakarrik joka dezakeen postu horretan, baina Realera etortzearen aldeko apustua egin nuenean banekien zerekin egingo nuen topo. Talde profesional batera etortzeko apustua egin nuen, ikastera etorri nintzen, maila gorenean egon gura nuen... Ikusiko dut datorren denboraldian zer egiten dugun; orain, Kopako finala dugu buruan.



Michelenaren Mitsubishi autoa, iazko Gorlako Igoeran. GOIENA

## 59 pilotu batuko dira bihar Gorlako Igoeraren 28. edizioan

**FUTBOLA** Debagoieneko 20 pilotu izango dira irteera puntuan, Opakuan irabazi zuen Aitor Zabaleta buru dela

**X.U. ARRASATE**

Aste Santu aurretik Opakuan jokatu Mendiko Sariko lehenengo probak erakutsi zuen Aitor Zabaleta bergararrak saioiko jarraitzen duela, eta Bruno Scherer-en Porsche 911 GT3 Cup berria oso azkarra dela. Bi horiek izan ziren, euren kategorietan, denboraldiko lehen garaipenak eskuratu zituztenak, eta bihar, zapatua, irteera puntuan izango dira biak. Entrenamenduen lehen txanda ofiziala 15:00etan izango da.

CM autoen artean ere lehia bizia izango da: Joseba Olea,

Garikoitz Flores, Mario Asenjo, Jon Zuazua, Josu Beitia... Kua-drilla polita batuko da hor.

Ibarrekoen artean, Zabaleta-ekin batera irteera puntuan egongo dira: Aitor Zabaleta, David Ardions, Markel Cestafe, Iñigo Lizarralde, Asier Unzeta-barrenetxea, Mikel Fernandez de Arroyabe, Alaitz Urkiola, Mikel Oyarzabal, Mikel Beretxina, Iñigo Errasti, Jose Ferrreira, Monika Muñoz, Emilio Rodriguez, Oskar Sarasua, Gorka Urrutia, Ander Sarrao, Mikel Otxoa, Andoni Aperribai, Maialen Iarza eta Ekaitz Egurrola.



GOIENA

## Emakumeen Bira, Oñatira

Maiatzaren 22tik 25era bitartean jokatu dute Emakumeen Bira eta laugarren eta azken etapa Oñatin hasi eta amaitu da. Txirindulariek 156 kilometroko ibilbidea egin beharko dute egun horretan; tartean, Udana, Untzilla eta Asentzio mendateak igo beharko dituzte. Joan den egunean egin zuten lasterketaren aurkezpena.



# Zaila izan arren, aurrera egiten ahaleginduko dira

**PILOTA** Joan den asteko Herri Arteko Txapelketako joaneko partiduetatik ez Bergarak eta ez Aretxabaletak ez zituzten emaitza batere onak ekarri. Itzulerako partiduak jokatu dituzte gaur; zail dute aurrera egitea, baina horretan ahaleginduko dira

**Xabier Urzelai** ARRASATE

"Amorrotuta" amaitu zuten joan den astean Aretxabaletako eta Bergarako ordezkariak joaneko kanporaketa. Amorrotuta, badakitelako euren pilotariak kantuan erakutsi zutena baino gehiago direla, baina ez zutelako hori erakusterik izan. Kanporaketa maldan gora dute, batez ere, Aretxabaletakoek. "Baina azken unera arte ez dugu amorerik emango, kirolean denarik gerta daiteke eta", dio Juan Mari Errastik.



Joan den astean Zestoan jokatu zuten pilotari aretxabaletarrak. UDA PILOTA SAILA

**Bergarak 2-1ekoa kontrari**

Bergarako pilotariak Adunakoan kontra jokatu dute gaur, egubakoitza, 19:45ean ordu laurden lehenago klubeko pilotariak Beñat Rezusta omenduko dute. Mahoneroek 2-1eko emaitzari eman behar diote buelta, eta, gainera, tantea ere kontrari dute: "Kadete mailan aurreikusitena dugu gure atzelaria Adunan baino lasaiago ibil daitekeela, hango pilotaleku txikian ez zena batere eroso egon. Eta, senior mailan ere gure ordezkariak ez zuten euren maila erakutsi, pilotan gehiago egiten dute. Hotz kantxaratu ziren, eta konturatu orduko 8-2 ziren atzetik", adierazi du Julen Aranburuk. "Uste dugu nagusiek buruhauste handiagoak emango dituztela gaur, indarrak berdindu egingo direla, kategoria horretan partidu txukuna egiteko kapaz izango direla".

Hala, kanporaketa gaintitu ala ez, Bergarakoek zapo onarekin egon gura dute gaurko jaialdiaren amaieran: "Nahiz eta partiduak galdu norberak bere maila erakusten badu nahikoa da, ezin da gehiagorik eskatu. Txarra da pilotaria egindako partiduarekin batere gustura geratzen ez denean, mailarik eman ez duenean, eta, neurri handian, joan den astean horixe gertatu zitzaigun".



Bergarako pilotariak, joan den astean Adunan. BERGARA PILOTA ELKARTEA

**KANPORATU EGITEN BADITUZTE ERE, EUREN MAILA ERAKUTSI GURA DUTE GAUR ARRATSALDEAN**

**Aretxabaletak oso zail du**

Aretxabaletak are okerrago du (19:30, Iturrigorri), Zestoan hiru partiduak galdu egin zituzten eta -22-5, 22-2 eta 22-8-. "Ez dugu esango ezinezkoa denik, baina garbi daukagu kanporaketa gaintitzea oso-oso lan zaila izango dela", adierazi du Juan Mari Errastik. "Egia da kadete mailan emaitza hobea espero genuela,

baina Zestoako frontoian zegoen jende kopuruagatik, edo zaratagatik... Pilotari gazteak urduri ibili ziren eta ez zuten eurek dakiten moduan jokatu; tanteo hobea espero genuen hor".

Gazte mailako porrotak, berriz, ez zituen ezustean harrapatu: "Bereziki kategoria horretan ere kadete mailako pilotariekin jokatu genuelako, eta ez gazte mailako pilotariekin, kategoria horretan hutsunea dugu eta halaxe bete genuen hutsunea. Eta, seniorretan partidu partatuagoa izan genuen; ea etxean egubakoitzean zaleen babesarekin txukunago jarduten dugun. Garrantzitsuena da datozen urteotarako badugula taldea".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

**Deusto-Mondra**

Zapatua. 16:00. Zubieta.

**Bergara-Añorga**

Zapatua. 17:00. Agorros.

**Aretxabaleta-Eibar**

Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERE.

**Aloña Mendi-Urola**

Zapatua. 17:30. Azkoaga.

**Ilintxa-Mondra**

Zapatua. 17:00. Legazpia.

**Antzuola-Beasain**

Zapatua. 16:30. Estala.

**Aretxabaleta-Idiazabal**

Zapatua. 18:00. Ibarra.

ERREGIONALA, KOPA

**Eibartarrak-Aloña Me.**

Domeka. 16:00. Unbe.

**Arizmendi-Bergara**

Zapatua. 15:30. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

**Mondra-Oiartzun**

Zapatua. 18:30. Zubieta.

EMAKUM. GORENGO M.

**Aloña Mendi-Hondarri.**

Zapatua. 12:00. Azkoaga.

EMAKUMEZKOAK, KOPA

**Intxurre-Bergara**

Zapatua. 15:30. Alegi.

**ARETO FUTBOLA**

JUBENIL NAZIONALA

**Eskoriatza-Valle del E.**

Domeka. 16:30. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK, LIGA

**Ordizia-Eskoriatza**

Zapatua. 18:00. Ordiza

GAZTEAK, GIZONEZK.

**Aloña Mendi-Antiguo.**

Zapatua. 16:00. Oñati.

**Eskoriatza-Zarautz**

Zapatua. 12:15. M. Muñ.

**Antiguoko-Mondrate**

Domeka. 12:15. Donostia.

**SASKIBALOA**

EUSKADIKO. BIG. MAILA

**Lakua-Alkid. Ointxe**

Zapatua. 18:00. Gasteiz.

GIPUZKOAKO SENIORRA

**Zarautz-Mekalki Aloña**

Zapatua. 16:30. Zarautz.

SENIOR BIG. MAILA

**Bergara Sora.-Añorga**

Zapatua. 16:00. Bergara.

### ESKUBALOA

SENIORRAK, IGOERA

**Escolapios-Soraluce B.**

Domeka. 12:30. Gasteiz.

GIP. BIGARREN MAILA

**Ordizia-Bergara**

Zapatua. 16:00. Ordizia.

EMAKUMEZKOAK KOPA

**Ereintza-Aloña Mend.**

Zapatua. 19:00. Erreter.

GIZONEZKOAK KOPA

**Donibane-Ford Mugarri**

Zapatua. 18:00. Pasai D.

### PILOTA

HERRI ARTEKO TXAP.

**Bergara-Aduna**

Gaur. 19:45. Udal pilotal.

**Aretxabaleta-zestoa.**

Gaur. 19:30. Iturrigorri.

### ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Eskola Arteko proba.**

Domeka. 10:30. Mojategi.

### AUTOMOBILISMOA

GORLAKO IGOERA

**Zapatua. 15:00. Bolu**

**auzoa.**

**GAURSA**

**GORLA XXVIII. IGOERA BERGARA**

**2019.05.11**

Entrenamenduen lehen manga ofiziala: 15:00  
Amaitu lehen manga ofiziala 16:00 orduan

 <b>BERGARA PNEUMATIKOK</b> <small>CAMBIOS DE ACEITE - MECÁNICA RÁPIDA   943 26 36 27</small>	 <b>GORLA MOTOR</b> <small>ELECTROMECÁNICA - PNEUMÁTICOS - DIAGNOSIS</small>
 <b>LAZPIUR</b>	 <b>CONTENEDORES ZORROZA</b>
 <b>LANTO</b> <small>Enkaltaria Hiritia, SN          Telefonoa: 94326388          ZUMARRAGA</small>	 <b>lano indoor skatepark</b>
 <b>NEUMÁTICOS IRUÑA</b> <small>Enkaltaria Hiritia, SN          Telefonoa: 94326388</small>	 <b>Nafar, s.a.</b> <small>Enkaltaria Hiritia, SN          Telefonoa: 94326388</small>
 <b>Elek 2</b>	 <b>Lacor</b>
 <b>Bideraz</b>	 <b>BOLINTXO IGOERAK</b>



# "Publikoaren eskuetan dago ikuskizun osoa"

ANTHONY BLAKE MENTALISTA

Orain dela 36 urtetik mentalista den Blakek 'Pensamientos confidentiales' ikuskizun berriaren bi saio egingo ditu Elgetan: bihar, zapatua, 22:00etan, eta etzi, 18:00etan

**Aitziber Aranburuzabala** ELGETA Sarritan izan da Elgetako Espaloia antzokian, eta aretoa bete izan du beti. Aspaldi etorri barik, *Pensamientos confidentiales* ikuskizun berriaren bi saio eskainiko ditu asteburuan. Sarrarak, aurrez, 18 eurotan eros daitezke *Kulturhiru.eus* atarian, Elgetako Rincon de Lola tabernan eta Bergarako Eruan eta Tartufo tabernetan; leihatilan 22 eurotan izango dira.

**Oso gustuko duzu Elgeta; zergatik?**

Profesionalki zein pertsonalki izan dudana bizipen onenarikoa izan dut Elgetan. Lehenengo aldiz joan nintzenez, egoera politikoa oso nahastuta zegoen Euskal Herrian, baina hasieratik oso ondo ulertu genuen elkar, eta oso harreman ona egin nuen garai hartan antzokia kudeatzen zuen taldearekin. Harrezkero, lagunak ditut, eta desatzen nago Elgetara itzultzeko.

**Orain dela hiru urte izan zinen azkeneko; nondik nora ibili zara?**

Espainiako Estatu osoan eta baita Ameriketara ere; sei hilabete egon nintzen Miamin bizitzen, eta, horrez gain, Mexikon eta AEBetan biran ere bai.

**Lan berriarekin zatoz; zelakoa da?**

Ikuskizun aldakorra eta bizia da; ikusleen oroitzapenak eta bizipenak harrapatzen saiatuko



Anthony Blake. IMANOL SORIANO

naiz. 90 minutuan, ikusleak eza-gutu barik, euren bizitzako hainbat detaile emango dizkiet, une hartan zertan pentsatzen ari diren kontatuta. Publikoaren eskuetan dago ia guztia; azken finean, ikusleek erabakitzen dute nolako saioa egin nahi duten. Arrazoiari erronka bat da! **Jende askok ezagutzen zaitu hemen; ariketa berriak dituzu oraingoan?** Bai, horixe; aurreko ikuskizunetako oso nireak diren pare bat ariketa izan ezik, beste guztiak berriak dira. Errepikatuz gero, ni naiz aspertzeko lehena.

**Ez da erraza izango horrenbeste urtetan gauza berriak asmatzea.**

Ez diot sekula ikasteari utzi. Izan ere, liburutegi ikaragarria dut, eta handik ateratzen ditut ideia berriak. Badira hainbat alditan irakurri ditudan liburuak; garai ezberdinakoaak ditut, eta gauza berriak berrasmatzeko baliagarriak zaizkit. Egutero bizpahiru orduz irakurtzeko ohitura dut. Ez dago sekreturik, etengabe entseatu eta pasioa jarri!

**Jende askok oso gustuko du mentalismoa, baina beste askori beldurra ematen die. Zer esango zenieke horiei?**

Euren kontuei buruz adierazi edo esan nahi ez duten zerbait jakingo dudana beldurra dute batzuek, baina lasai egoteko esango nieke, nire asmoa ez da inor lotsaraztea edo sufriaraztea. Segituan sumatzen dut nor dagoen jolasteko prest; hortaz, jolastu nahi ez duen ikuslea bakean uzten dut; une goxo bat pasatzera dator, eta hala izango da nire partetik.

**Ze unetan zaude?**

Profesionalki eta pertsonalki oso ondo; hastapenetan besteko ilusio berarekin jarraitzen dut, eta badirudi krisi ekonomikoaren eragina ari garela gainditzen, hala sumatzen dut aretoetan.



Zestoako Rodeo taldea Oñatiko Antixena gaztetxean. IMANOL SORIANO

## Musikarekin gozatzeko ekimen berria Bergarako gaztetxean

'Egubakoitzak berreskuratzen' izena du, eta herriko hainbat musikazalek abiatuko dute datorren astean

**A. Aranburuzabala** BERGARA

Gaztetxe inguruan ibiltzen den gazte talde batek sortu du *Egubakoitzak berreskuratzen* ekimena. Datorren astean abiaraziko dute, eta ekainean egingo dute bigarren emanaldia; ondoren, irailtik ekainera bitarteko zikloa antolatzeko asmoa dute.

**Asmoa, irailtik ekainera**

Arrasateko Kooltur Ostegunak musika zikloak bederatzigarren urtea bete du, eta Oñatiko Antixenean domeka eguerdian kontzertuak egiten hasi dira; hori ikusita Bergarakoan ere antzerako ekimen bat sortzeko gogoia sortu zitzaizela kontatu du Unai Elkorok: "Kontzertuak egiten diren arren, musikazaleak izanda, zerbait falta zela pentsatzen genuen hainbat lagun elkartu ginen, eta hala hasi ginen antzerako ezaugarriak dituen ekimen bat abiatzeko

lanean. Asmoa ikasturteko, hau da, irailtik ekainera bitartean, hileko bi kontzertu egitea da, eta emanaldi bakoitzean bi talde –edo bakarlarri– joko dute. Egubakoitzetan izango da beti, 22:30ean, puntual; eta sarrera bost eurotan".

**Hasteko, bi emanaldi**

Musika estiloari eta formazioari dagokionez, askotarikoei tokia egitea da ekimen berriaren asmoa: "Herriko eta inguruko musika taldeei jotzeko aukera eman gura diegu, eta kanpoko talde ezagunak ekartzen ere saiatuko gara".

Estreinatzeko, maiatzaren 17rako eta ekainaren 14rako bi emanaldi antolatu dituzte: datorren astean, Azkoitiko RO taldearen rock instrumentala eta Zestoako Rodeo stoner talde gaztea izango dira; eta ekainean, Turboshit eta Sermonds.

## ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

ANA URRUTIA KAZETARIA ETA EGURALDI-AURKEZLEA,  
SARA GANDARAK ELKARRIZKETATUTA  
MAIATZAREN 10EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ANA GALARRAGA ZIENTZIA-KOMUNIKATZAILEA,  
MAITE GOÑIK ELKARRIZKETATUTA  
MAIATZAREN 15EAN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena  
Zu hemen zaude.



# 'Harian' egitasmoaren azken emanaldietako bat

Bira amaitu aurretik, Eñaut Elorrietak eta Kaabestri String Ensemble hari boskoteak Seminarixoan eskainiko dute kontzertua, bihar, zapatua, 19:00etan; sarrerak zortzi eurotan eros daitezke leihatilan, eta aurrez, [Ticket.kutxabank.es](http://Ticket.kutxabank.es)' atarian ere bai

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA  
2018ko urrian Bilboko Arriaga antzokian estreinatu zuten, eta, harrezkero, hamazortzi emanaldi egin dituzte. Oñatin egin zuten bigarrena, iaz azaroan, Santa Ana antzoki betean; bost kontzertu geratzen zaizkie bira amaitzeko eta horietako bat da bihar, zapatua, Seminarixoan egingo dutena.

Sarrerak zortzi eurotan eskura daitezke leihatilan eta [Ticket.kutxabank.es](http://Ticket.kutxabank.es) atarian.

## "Sekulako esperientzia"

